

# Zu hemen zaude. goiena

## "ERAKUTSI DIGUTEN GERTUTASUNA OSO GARRANTZITSUA IZAN DA GURETZAT"



Gaur bete dira 46 urte: etxe atarian zegoen Emilia Larrea, eta Guardia Zibilaren bala galdu batek hil zuen; hiru semeak hunkituta daude Arrasateko Memoriaren Eguneko aitortza-ekitaldiarekin / 8



Emilia Larrearen argazkia eta haren hiru semeak -Jesus Mari, Inazio eta Joaquin-, gaur egungo Larrea baserri atarian. XABIER URTZELAI ATXA

**Barrenkalea urbanizatzeko lanen lizitazioa martxan da; obra 2025ean egitea da Udalaren asmoa / 32**

**Obra bukatzeko xehetasun batzuen faltan, erabilgarri dago Mojategi berriua / 10**

**Juan Luis Bikuña kazetari bergarra hil da; gaur izango da haren aldeko hileta elizkizuna / 33**



Unai Iparragirre ETBko zuzendariari elkarrizketa

Gurean ere bada 'beteta' edo 'sold out' fenomeno

**Artaldeak goiko zelaietatik etxeko babesera lekualdatzeko sasoia heldu da**

Lur Pagoaga artzainak egunotan jaitsi ditu ardiak Degurixatik Areantzara; neguko lanak datoz, eta lotuagoak dira horiek / 4



Pagoaga, artaldearekin, Degurixatik etxerako bidean. ANDONI GOITI BILBAO



**ETXEBIZITZA, ERAIKUNTZA  
ETA DEKORAZIOA / 19**

### SINADURAK



ARITZ ARRIETA  
KABIKETA / 6



EVA ABUIN  
BIDEBURU / 10



MAITE  
TOLEDO / 34



MIKEL ARREGI  
ASKASIBAR / 48

**BULEGOAK ALOKAGAI**  
**GARAIA PARKE TEKNOLOGIKOAN**

Start-up-ak | Enpresak | Ekintzaileak | Autonomoak  
60 eta 1.000 m2 artean

**Informazioa:**  
ptgaraia@ptgaraia.eus  
943-03 88 46

**Hemen garbiketak**  
Ura bezain garbia

T.- 943 71 48 45



Boluntarioak, Bergarako Elikagai Bankuko biltegian, martitzenean. TXOMIN MADINA

## Elikagai bilketa handia, hilaren 22an eta 23an

Gipuzkoako Elikagai Bankuak datorren astean egingo du azaroko bilketa handia, eta herritarrei boluntario lanetan aritzeko nahiz ekarpenak egiteko dei egin diete; halaber, jasotakoaren zati bat Valentziako Elikagai Bankuari emango diote

**Idoia Aranbarri Arzuaga** DEBAGOIENA Gipuzkoako Elikagai Bankuak hilaren 22an eta 23an egingo du azaroan egin ohi duen elikagai bilketa handia, eta Debagoienero komertzioetan egongo da aukera janarien eta bonuen dohaintza egiteko. Alabaina, datorren asteko bilketan boluntario lanak egiteko dei egin diete debagoiendarrei Bergarako Elikagai Bankuko biltegiok.

Boluntarioetako bat da Iñaki Uriarte, eta azaldu du beti behar izaten dutela jendea askotariko lanak egiteko: "Herritarrek emandako produktuak kaxetan sartu behar izaten dira, jendea animatu behar izaten da euren ekarpena egitera, poltsak banatzen ditugu... Lau ordu izaten dira, gutxi gorabehera; zenbat eta jende gehiago badago, hobeto".

### Jeneroa eta bonuak

Janaria emanda edo Elikagai Bankuak adierazitako produktuekin egin daiteke ekarpena bilketan, eta balio handia eman

die ekarpenei Uriartek: "Dena dator ondo. Batez ere, galtzen ez diren produktuak. Haurrendako produktuak eta higienarokoak ere asko eskertzen dira".

Halaber, bonuak erostea da beste aukera bat, eta, Uriarteren arabera, geroz eta herritar gehiagok egiten dute hautaketa hori: "Soluzio ona da. Horrekin, behar dugun jeneroa behar dugunuean hartzen dugu". Herritarrek oraingo honetan ere "ondo" erantzungo dutela uste du hark.

### Valentziari ere laguntza

Azaroko bilketa, era berean, berezia izango da; izan ere, Gipuzkoako Elikagai Bankuak ere lagundu nahi die tanta hotzak kaltetu dituen herrietako bizi-

**AZKEN URTEETAN  
BEZALA, JENEROA ETA  
BONUAK EMAN AHAL  
IZANGO DIRA  
DOHAINZAN**

lagunei, eta, horregatik, datorren astean jasotakoaren zati bat Valentziara bidaliko dute. "Valentziako Elikagai Bankuarekin hartu-eman izan dugu, eta jasotakoaren zati bat haiei emango diegu. Ez dugu berehala bidaliko. Euren eskatzen dutenean bidaliko dugu eskatzen dutena", gaineratu du Uriartek.

Era berean, Gipuzkoako Elikagai Bankuak eskatu die Valentziara bidaltzeko janariak jasotzeko gune diren edo izan direnei eta kudeatzeko laguntza behar dutenei Elikagai Bankuarekin harremanetan jartzeko.

### Boluntariotza urtean zehar

Debagoienero, Debabarreneko, Goierriko eta Urola inguruko bilketak Bergaran kudeatzen dira, eta egunerokotasunerako ere boluntarioak behar dituztela azaldu du Uriartek: "Ez da hainbestekoa lana hona etortzea. Eskatzen dena da astean behin etortzea. Animatzen direnak ongi etorriak izango dira".



Ulma Taldeko presidente Ibon Calvo, aurkezpenean. PERU ATXA

## Ulma Taldeak 'Ondarea' proiektua aurkeztu du

Kooperatibaren 60 urte baino gehiagoko ibilbidea jaso dute sei liburu eta sei ikus-entzunezketan

### I.A.A. OÑATI

Atzo goizean Arantzazun aurkeztu zuen Ulma taldeak *Ondarea* proiektua, Arantzazun, proiektuaren protagonisten, kooperatibako organoetako ordezkarien, erretiratuen eta Oñatiko alkate Izaro Elorzaren eta Otxandioko alkate Egoitz Garmendiaren aurrean; denera, 160 lagunetik gora. Kooperatibaren 60 urte baino gehiagoko ibilbidea jasotzen du, protagonisten aho-teskin, eta, horretarako, hamar-kadaka banatutako seina liburu eta ikus-entzunezko sortu dituzte. Xabier Perez kazetariak gidatutako aurkezpenean, Ulma egungo presidente Ibon Calvok hartu zuen hitza, eta ohorean, erantzukizunean eta elkarlanean jarri zuen ardatza.

Etorkizuna du helburu proiektuak, *Ondarea*-ri esker etorkizuneko belaunaldiendako geratuko den istorioa utziko baitute.

"Ulman lan egiten dugunok erantzukizuna daukagu proiektua zaindu eta etorkizuneko langileei erakusteko. Kontzientte gara iraganean lan egin dutenek ere gauza bera egin dutela. Legatu kontua da gurea", zioen Calvok.

Bi urte pasa dituzte *Ondarea* garatzen, eta, dokumentala ikusi aurretik, protagonistekin solasaldia egin zuten. Hala, proiektuarendako sortu duten webgunean jarriko dituzte ikusgai ikus-entzunezkoak eta idatziak.

### Omenaldiak

Ekitaldiaren amaieran, Ulma Taldeak bere historian izan dituen lehendakari guztiak eta Oñatiko alkate Izaro Elorza eta Otxandioko Egoitz Garmendia alkatea omendu zituzten, kooperatibari berari eta jarduera garatzen duten inguruneari keinu eginda.

## Arnaldo Otegiren berbaldia gaur Arrasaten, Kulturaten

Arnaldo Otegik berbaldia egingo du gaur, 18:30ean, Kulturateko Areto Nagusian, Arrasateko EH Bilduk antolatua. Egungo egoera politikoaren analisia egingo du eta EH Bilduren III. Kongresuaz mintzatuko da: "Proiektu nazionala da ponentzia politiko honen ardatza, nahia eta xedea. Euskal Herria bere testuinguruan jarri dugu".

## ZUZENKETA

Aurreko asteko aldizkarian Euskaraldiaren koordinatzaile Goiatz Urkijori egindako elkarrizketan bi akats publikatu ziren: ikerketek erakusten dute Euskaraldia egiten duten parte hartzaileen bi herenek aldatzen dituztela hizkuntza ohiturak, eta ez heren batek; bestetik, oinarrizko proposamenean ariguneen planteamendua proposatuko ez bada ere, entitatei proposatuko zaie ariguneak osatzeko.

# "Hauteskunde guztiak jarri dituzte zalantzan"

GLENNA CABELLO VENEZUELAKO KONTSULA BILBON

Venezuelak bizi duen egoerari buruz bere ikuspuntua emateko hitzaldi ziklo bat antolatu du Venezuelako kontsulatuak. Hitzaldi horiek egiten ari da Glenna Cabello

Jone Arruabarrena ARRASATE

Arrasaten dagoen Debagoieneko Ezker Kultur Gunean izan zen, asteartean, Glenna Cabello (1959, El Furrial, Venezuela), Venezuelako kontsula. Bilbon du egoitza, baina Debagoienean "gustura" ibili da.

**Nola joan da hitzaldia?**

Kulturaren hitzaldi bat egitetik nator, *Venezuela jomugan: egungo egoera ulertzeko gakoak* izenburupean. Kontsulatuak Euskadi osoan hitzaldi eta konferentzietan parte hartzeko duen estrategiaren barruan sartzen da, Venezuelan gertatzen ari denaren benetako errealitateari buruzko eztabaida eta hausnarketak sortzeko.

**Venezuela albiste izan da azken hilabeteotan. Hauteskundeek eztabaida handia sortu zuten, eta gardentasun falta eta emaitzen balizko manipulazioa kritikatu dira. Ze balorazio egiten duzu?**

Gaur egun Venezuelako instituzionaltasuna zalantzan jartzen



Glenna Cabello, asteartean, Ezker Kultur Gunean. L.Z.L.

dutenak eta hauteskunde-prozesua zalantzan jarri nahi dutenak iraganean Venezuelako hauteskunde-prozesu guztiak zalantzan jarri dituzten berberak dira. Azken 25 urteotan nire herrialdean 31 hauteskunde-pro-

zesu egin dira, eta denak jarri dituzte zalantzan. Denak. Azken hauteskunde horietan ez zen gutxiago izango. Horren guztia-zen kezkarriena da iruzur akusazio horiek ekintza oso bortitzekin batera etorri direla,

eta ekintza horietan venezuelarrak hil direla. Kasu horietan guztietan agerian geratu da de-segonkortze-estrategia argia dagoela martxan.

**Horrek guztiak oihartzun handia izan du nazioartean.**

Komunikabide handiek eginkizun erabakigarria izan dute Venezuelako hauteskunde prozesuetan, *gardentasun gutxiko* narratiba horren eraikuntzan. Gainera, manipulaziorako, *fake news*-etarako eta *egia-ostea* delakorako oso gune emankorrak bihurtu diren sare sozialek areagotu egin dute dena.

Nire herrialdeko hauteskundeetan iruzurra izan dela diotenak Juan Guaido *bitarteko presidente* gisa aitortzea erabaki zuten sektore berak dira. Caracasko plaza batean bere burua presidente izendatu zuen diputatu bat babestea erabaki zuen herritar talde batek. Hori guztia erokeria izan zen. Erokeria oso arriskutsua, horrelako gertaera politikoez sor dezaketek aurrekariagatik.

**Zer gertatu zen presidentetzarako azken hautaketan?**

Komunikabide handiek ustezko inkestak argitaratu zituzten, eta agertoki bakarra proiektatzen zuten narratiba bat eraiki zuten: Edmundo Gonzalez Urrutia hautagai opositorearen garaipena. Lerro narratibo bat eraiki zuten, eta hor ez zegoen aukerarik Maduro presidenteak irabaztean. Edo, beste modu batera

esanda, Maduro presidenteak irabaz lezakeen soilik iruzur batekin.

**Nor dago horren atzean?**

Aurretik ondo diseinatutako estrategia izan zen, eta, beti izan den bezala, Venezuelako Gobernuaren aurkakoak izan diren kanpoko sektoreek diseinatu zuten. Venezuelako eskuineko sektore erradikal horiek prest zuten estrategia hori. CNEK uztaillaren 28an emaitza ofizialak iragarri ostean, oposizioak iruzurra argudiatu zuen. Hurrengo orduetan ustezko *akta* batzuk argitaratu zituzten web atari independente batean, oposizioko hautagaiari garaipena ematen ziotenak. Eta ezetz asmatu ustez oposizioko hautagaiak zein portzentajerekin irabazi zuen? Inkestagileek hauteskundeetan aurretik aipatu zituzten kopuru berekin: %66 Edmundo Gonzalez eta %33 Nicolas Madurorentzat. Webguneak ustezko aktekin egin zuena eskandalagarria izan zen. Agerian geratu ziren bikoizketak, inkonsistentzia tekniko eta matematikoak, eta iruzurrezko aktak. Venezuelatik kanpo ez da horren berri eman.

## "HAUTESKUNDEEN IRUZUR AKUSAZIOAK EKINTZA OSO BORTITZEKIN BATERA ETORRI DIRA"

## Egin dituzte Azaroaren 25aren bueltako lehen ekintzak

Indarkeria patriarkalari aurre egiteko neurri kolektiboen premia aldarrikatzen dute aktibista feministek

L.Z.L. ARRASATE

"Pellicot andreak erakutsi digun moduan, bandoz aldatu behar dena ez da beldurra, lotsa baizik". Maitena Monroy aktibista feministaren hitzak dira. Arrasateko Emakume Txokoan izan zen, martitzenean, Guerreras taldeak gonbidatuta. Sonoritatea, ikas-kuntza kolektiboa eta autodefentsa feminista aldarrikatu zituen. "Inguratzen gaituen tesuinguru patriarkala ulertu behar dugu, eta ahalduntzea eragozten duten emozio patriarkalak identifikatu behar ditugu: lotsa,

kulpa, ikara eta pena. Emakumeen aurka egiten den indarkeria gehiena ez da kolpeekin adierazten; gure autoestimua kaltetzea du helburu nagusi".

**Ekintzak bailarako herrietan**

Antzerako saioak izango dira egunotan bailarako herrietan. Eguneroko dinamiketarik burua altxa eta Azaroaren 25eko aldarrikapen bueltan elkartzeko dira eskualdeko eragile feministak. Zapatuan, esaterako, *Pronoia* ikuskizuna egingo du Virginia Imazek, Aramaion. Eguenean,



Maitena Monroy martitzenean Emakume Txokoan egindako saioa. L.Z.L.

berriaz, *Lodifobia zainetan* ikastaroa egingo dute, Aretxabale-tako Jabetze Eskolan, eta *Roten Zora: Frauen bildet banden* dokumentalaren proiektzioa egingo dute, Arrasaten, eta solasaldia ostean. "Gertatzen zaizkigunez

hitz egitea, kolektibizatzea, indarkeriari mugak jartzen hastea da", esan zuen Monroyk. "Indarkeria patriarkala ez da kontatu diguten modukoa; gertukoek eta gutxien espero dugunean eragiten digute".

## Baserrri-jabeendako 'Eraginez piztu' hitzaldia

Debagoiena 2030 lantzen ari den trantsizio energetikoaren ildoaren baitan, baserrietatik norabide horretan eta energia berri-erregeneratzaileak aintzat hartuta jorratu daitezkeen bideak aztertzeke hitzaldia egingo dute egunean, hilak 20, Antzuolan. Efizientzia energetikorako Ekitermik-eko Xabier Lizaurrek gidatuko du saioa, eta norabide horretan baserriendako egon daitezkeen aukerak eta alternatibak azaldu eta aztertuko ditu. Debagoiena 2030ek Antzuolako Udalarekin, Landa Garapen Agentziarekin eta Ekitermikekin elkarlanean antolatutako hitzaldia da. Torresoan izango da, 18:00etan.



Artaldeak Degurixa atzean utzi eta bideari hasiera eman zion unea. ANDONI GOITI BILBAO

# Etxe epeltasunera negua pasatzera

Lur Pagoaga artzainak artaldea Degurixatik Aretxabaletako Areantza auzoko Mitarte Garai baserrira jaitsi du. Hala, udako denboraldiari amaiera eman, eta neguari baserrian aurre egiteko prest dago. Jaitsiera horrek sasoi berriari hasiera ematen dio

**Sara Lanz Azpiazu** ARETXABALETA  
Lur Pagoaga artzainaren artaldea etxera itzuli da. Aizkorri-Aratz parke natural barruan, Zاراia mendilerroan kokatutako Degurixako larreetatik Areantza auzoko Mitarte Garai baserrira jaitsi ditu ardiak, Aretxabaletan. Udako denboraldia Degurixan pasa du artaldeak, larre berdeetan atseden hartzen. Ardiek usaindu dute hotza zertorrela, eta urduri daude jaisten hasi aurretik. Berdin dago *Beltz* txakurra, hesiaren bestaldean artaldeari begirada kendu gabe. Artzainak atea zabaltu eta mar txan jarri da artaldea, txakurraren gidaritzapean. Jaitsiera horrek artzaintzaren mendiko garaiari bukaera ematen dio, eta ziklo berri bati hasiera eman.

Pagoagak azaldu duenez, jaitsiera-data ez da urtero bera izaten, eguraldiak ere eragiten

duelako erabakian. "Azken urteetan, pixka bat atzeratu dut jaitsiera. Normalean, Domu Santu Egunaren bueltan izaten da". Beraz, eguraldia hozten hasten denean hartzen du etxerako bidea artaldeak.

Aretxabaletako artzainak latxa arrazako ardiekin lan egiten du, Euskal Herriko arrazarekin. Latxa ardiak esnetarako eta okelatarako erabiltzen dira. Artaldea bereizmen marka berde baten bitartez ezagutu ahal izaten du urrundik Pagoagak. Horrekin batera, belarrietan hainbat marka dituzte: "Belarrietan

**"ARTZAIN TXAKUR BATEK HIRU PERTSONAK EGIN DEZAKETEN LANA EGIN DEZAKE"**

dituzten markak osasun kontrola eta animalien ongizatean barruan ipintzen den marka dira. Alde batean txipa du eta bestean ardi bakoitzak nortasun agiri moduko bat".

**Txakurra, ezinbestekoa**  
*Beltz* txakurraren laguntzarekin samur eta zuzen jaitsi da artaldea baserrira. Ardiek bidea ondo ezagutzen dute. "Beheranzko sasoiaren euren etxera doaz", dio Pagoagak. Artzain txakurrek eginkizun oso garrantzitsua betetzen dutela dio. "Nahitaezko erreminta" gisa definitu ditu aretxabaletarrak: "Gure lana errazten du, eta ez da lan erraza. *Beltz* da nire laguntzaile nagusia". Pagoagaren esanetan, artzain txakur batek hiru pertsonak besteko lana egin dezake. Artzainak eta txakurrak batera lan eginez,

artaldea gidatzen dute segurtasunez eta ordenan.

## Mendiko lana

Uda sasoiako lana nahiko lasaia izaten dela dio artzainak. Astean bi edo hiru aldiz igo behar izaten dute larretara, artaldea ondo dagoela ziurtatzera. Lehengo garaietan, mendian gazta egiten zenean, guztia desberdina zela azaldu du Pagoagak.

Sasoi batean, artzainek artaldearekin batera pasatzen zuten uda. "Txaboletan bizi ziren eta bertan egiten zuten gazta". Pagoagak azaldu du

**"ETXERA ITZULTZEAREKIN BATERA, NEGURAKO PRESTAKETARI ATEAK ZABALTZEN DIZKIOGU"**

2019an hil zela Degurixako azken artzaina, Joxe Bixente Etxabe. Azken urteetan ez zuen denboraldi osoa bertan egiten. Gaur egun, antzutu ondoren igotzen dute artaldea, behatzeko, eta osasunez ondo daudela ziurtatzeko lana izaten dutela esan du Pagoagak.

## Baserriko lana

"Etxera itzultzearekin batera, negurako prestaketari ateak zabaltzen dizkiogu", adierazi du Pagoagak. Orain, artaldea gertuagotik zaintzea tokatuko dela esan du. Gabonak bueltan hasiko dira arkumeak jaiotzen: arkumeak zaindu, esnea jetzi eta gazta egiteko lanetan oinarrituko da haren egunerokoa.

Gutxi gorabehera, ekainera arte egongo dira etxean ardiak. Eguraldi ona hasi, eta udaberriaren igoko dituzte berriz mendira.

## "Uda garaia lasaia da; neguan pilatzen da lan gehien"

LUR PAGOAGA ARTZAINA

Aretxabaletako Areantza auzoko Lur Pagoaga (Arrasate, 1978) artzaina prest dago neguko denboraldiari aurre egiteko; ardiak Degurixatik baserrira jaitsi ditu, Mitarte Garaira. 100 ardik baino gehiagok osatzen dute ardi latxaz osatutako artaldea. Artzain izateko gogoaren garrantzia azpimarratu duen arren, lehen sektoretik bizitzeak zailtasunak dituela azaldu du.

### Nolako da zure artaldea? Zenbat ardi dituzu eta zein arrazakoak dira?

Galdera hori ez da egiten, baina, tira, erantzungo dizut... 120-130 ardik osatzen dute nire artaldea. Arrazari dagokionez, ardi latxarekin egiten dut lan. Gehiengo burubeltza den arren, badago burugorriren bat.

### Zeintzuk dira ardi latxaren ezaugarriak?

Ardi mota hori esnetarako eta okelatarako erabiltzen da. Bildotsak saltzen dira jateko eta esnearekin gazta egiten da. Lehen, artilea baliabide baliotsua zen, eta artzainek artilearekin

ere etekina ateratzen zuten. Baina, gaur egun, gastu gehigarri bilakatu da.

### Nolako da artzainaren ogibidea?

Artzainaren lanbidea garaiaren arabera egokitzen da. Uda garaia lasaia da. Neguan, ordea, pilatzen da lan gehien. Ziklikoa dela esango nuke, sasoiaren arabera aldatzen den lana.

### Gaur egun, ze egoera bizi duzue artzainek? Zaila da lehen sektoretik bizitzea?

Bai, zaila da lehen sektoretik bizitzea. Ez da erraza; azken batean, ipintzen dituzten prezioak duela 30-40 urte bezala daude, eguneratu gabe. Gainera, burokrazia aldetik zailtasun handiak daude, paper asko bete behar dira. Artzaintzatik bizitzea ez da erraza. Hala ere, gogoia edukiz gero, lehen sektoretik bizitzea posible da.



GONTZAL BELATEGI ZUBIA

# BERGARAKO INSTALAZIOAK BERRITU EGIN DITUGU "ZURE BIDAIA HEMEN HASIKO DA"



EUSKOAUTO

Bezeroarentzako arretaren aldeko apustua egin dugu, eta bezeroa esperientzia paregabe baten benetako erdigunea izango da.

Pantaila digitalak, itzaroteko gune zabal eta erosoak, espazio pribatuak eta markaren azken aurrerapenak bezeroaren eskura daude. Salmenta ondokoa, salmentak, aukerako ibilgailuak... Bezeroak kontzesionarioan gusturago egongo dira, ingurune digitalizatuago eta pertsonalatuago batean.

ZURE IBILGAILUA  
KONTZESIONARIO  
OFIZIALEAN MANTENDU,  
TOYOTA BERMEAREKIN  
ETA SALDU ONDOKO  
ZERBITZURIK  
ONENAREKIN.



## TOYOTA RELAX BERMEA:



Egin zure mantentze-lanak Toyota sare ofizialean urtez urte, eta zure Toyota ibilgailuaren bermea 15 urtera arte luzatu ahal izango duzu. Deskargatu hemen informazio guztia.



## TOYOTA GOLD BERMEA:



Abantaila eksklusiboak 7-15 urteko antzinatasuna duten ibilgailuentzat. Deskargatu hemen informazio guztia.



TOYOTA EUSKOAUTO  
euskoauto.toyota.es

Olabarrena auzoa z.g.  
20570 **Bergara** Gipuzkoa. Tel.: 943 76 23 85



TOYOTA  
EUSKOAUTO  
AUTO OFIZIALA  
VEHICULO OFICIAL



ZABALIK

ARITZ ARRIETA KABIKETA

## Vox eta guztiari gorrotoa

Kanpaina guztietan Vox-en hitzaldiek aukera ematen digute alderdi hori artikulatzen duten elementuak identifikatzen eta aurrean duguna hobeto ulertzen. Eskuin muturreko alderdi baten ezaugarri diren osagai ideologiko guztiak biltzen dituzte: nazionalismoa, kultur aldaketarekiko erreakzioa, natibismoa eta autoritarismoa. Jarraian deskribatuko ditut azken hauteskundeetako bideoetan, elkarrizketetan eta kanpainako mitinetan erabilitako horiek.

Elementurik presenteena Kataluniako *estatu kolpearen* aurkako nazio batasunarena da, zalantzarik gabe. Autonomia-estatua gaitz guztien artean, eta haren desegitea geroko aurrezpen bezala agertzen da, arazo guztien konponbide gisa, beketatik hasi eta pentsioetaraino. Ez dut zuzenean entzun Francoren esamolde ezaguna, baina Trump magoarena moldatuko dut: *Make Spain great again*. Errekonkistaren aipamenek eta alderdiko buruzagiaren irudiek –zaldi gainean, Cid Campeador estiloan– iragan loriatsu bati egiten diote erreferentzia, garai hura buelta dadin.

### IMMIGRAZIOA KRIMINALIZATZEN DUTE ETA MUGAK IXTEA DEFENDATZEN DUTE

Bigarren elementua da hamarkadetan zehar gizarte aurreratuen ezaugarri izan den aldaketa kulturalaren arbuio zorrotza; feminismoaren, sexu berekoen arteko ezkontza eta abortuaren arbuioa. Etengabe hitz egiten dute genero indarkeriaren aurkako legeak dakarren gizonen kriminalizazioaz. Horren ordez, landa- eta erlijio-tradizio herrikoiak goraiatzen dituzte: jaiak eta prozesioak.

Hirugarren elementua natibismoa da; hau da, Espainian lehen mailako herritarrek bizi behar dutela eta kanpotik datozenak mehatxu hutsa direla. Immigrazioa kriminalizatzen dute –batez ere, immigrazio islamikoa–, eta mugak ixtea defendatzen dute. Elementu ideologiko horiekin batera, kexak presionatzeko eta erresumin eta gorroto bihurtzeko gaitasun handia dute. Voxekoek diote herriaren salbatzaileak direla, baina hamazazpi parlamentariak kontrakoa egiteko erabiltzen dituzte: ez dute inolako legerik onartu espainiar guztien mesedetan; beraz, zer espero dezakegu? Faxismoa. Bestalde, aurrerapenean sinesten duen edonoren aurka daude.

den aldaketa kulturalaren arbuio zorrotza; feminismoaren, sexu berekoen arteko ezkontza eta abortuaren arbuioa. Etengabe hitz egiten dute genero indarkeriaren aurkako legeak dakarren gizonen kriminalizazioaz. Horren ordez, landa- eta erlijio-tradizio herrikoiak goraiatzen dituzte: jaiak eta prozesioak.

Hirugarren elementua natibismoa da; hau da, Espainian lehen mailako herritarrek bizi behar dutela eta kanpotik datozenak mehatxu hutsa direla. Immigrazioa kriminalizatzen dute –batez ere, immigrazio islamikoa–, eta mugak ixtea defendatzen dute. Elementu ideologiko horiekin batera, kexak presionatzeko eta erresumin eta gorroto bihurtzeko gaitasun handia dute. Voxekoek diote herriaren salbatzaileak direla, baina hamazazpi parlamentariak kontrakoa egiteko erabiltzen dituzte: ez dute inolako legerik onartu espainiar guztien mesedetan; beraz, zer espero dezakegu? Faxismoa. Bestalde, aurrerapenean sinesten duen edonoren aurka daude.

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Nekez

#### ANER EUZKITZE

'BERRIA'-N ARGITARATUA  
[HTTPS://LABUR.EUS/HKAJM](https://labur.eus/hkajm)

Nekatuta nago. Besoetan sentitzen dut, zintzurrean daukadan aharrasua mehatxati etengabeak seinalatzen dit, belarrietako bero biribil honek, izterretan azkura, oinetan takoiekin parranda egin osteko min hori, biriketetan hondarra, kopetan mukiak. Nekatuta nago eta ez da bukatzen alarrik gabe esnatzen naizenean ere. Nekatuta nago eta nekeak hartzen dit gorputza, desioa, gogoia, errua, beharra, mahai-gaina, aisia, kafea. Kafea ere hartzen dut.

Nekatuta nago. Nekatzen nau nekeari aurre nola egin ez jakiteak. Atsedena da nekearen antonimoa? Eta atsedena hartuta ere nekatuta banago? Zein da nekearen antonimoa? "Indarra" diost batek. Ezin da egon nekatuta eta indartsu aldi berean? Bururatzten zaidan jende indartsu gehiena nekatuta dago indartsu izan beharraz. Zer moduz? Zein da "nekatuta"-ren antonimoa? "Deskantsatuta"? Ez. "Lasai"? "Ondo"? "Ondo" da, benetan, "nekatuta"-ren antonimorik onena? "Ondo"-k ezin du izan denaren antonimo.

Nekatuta nago. Nekatzen nau lan egiteak. Ez dut lanera joan nahi eta ez dut gaixorik egon nahi lanera ez joateko. Oso

gutxi gustatzen zait lan egitea, eta asko nekatzen nau. Alferrak garela esango du inork. Bale ba. Nahiko pozik nago daukadan lanarekin, baina ez zait iruditzen lana kritikaezina denik gustura egiten denean. Bestela bizi ezin duzulako inoren kontura lan egitea kaka bat da beti. Lanaren kultura falta zaigula esango du inork. Bale ba. Niri behintzat ez zait okurrizten ezer txarragorik ordainpeko lana baino. Bueno bai, gauza bat bai: ordaindu gabeko lana. Oharra: ez naiz ari lan militanteaz, maitasuna eta familia ez dira lan militantea, patriarkatuaren militantea ez dira militanteak, gure amak dira gure aiten alde. [...]

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

[www.goiena.eus](http://www.goiena.eus)

**Argitaratzailea**  
 Goiena Komunikazio Taldea  
 Kooperatiba Elkarte  
 Otalora Lizentziaduna 31  
 20500 ARRASATE

**Lehendakaria**  
 Monika Belastegi.  
**Zuzendari nagusia**  
 Iban Arantxabal.  
**Eduki zuzendaria**  
 Eneko Azkarate.  
**Erredakzio batzordea**  
 Eneko Azkarate, Goiatz Arana,  
 Monika Belastegi, Mirari Altube,  
 Larraitz Zeberio.

**Zuzendari komertziala**  
 Mireia Larrañaga.  
**Administrazio zuzendaria**  
 Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**  
 Iñaki Iturbe.  
**Hizkuntza arduraduna**  
 Sergio Azkarate.  
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**  
 Igone Osinaga.

**Sailletako arduradunak**  
 Xabier Urzelai (Kirola),  
 Aitziber Aranburuzabala (Kultura).  
**Maketazioa**  
 Imanol Soriano,  
 Aitor Lagoma,  
 Amaia Martínez de Arenaza.  
**Publikitate**  
 Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,  
 Amaia Mundiñano.

**Administrazioa**  
 Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
 Leire Etxebarria.

**HARPIDETZA**  
 Arrasate 20500  
 Otalora Lizentziaduna 31  
 Tel.: 943 25 05 05  
[harpidetza@goiena.eus](mailto:harpidetza@goiena.eus)

**PUBLIZITATEA**  
 Arrasate 20500  
 Otalora Lizentziaduna 31  
 Tel.: 943 25 05 05  
[publi@goiena.eus](mailto:publi@goiena.eus)  
**EGOITZA NAGUSIA**  
 Arrasate 20500  
 Otalora Lizentziaduna 31  
 132 posta-kutxa  
 Tel.: 943 25 05 05  
 Telegram eta WhatsApp:  
 688 69 00 07  
[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

**Lege Gordailua:** SS-965/2014  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 18.550 ale

**Inprimategia:**  
 Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

## GUTUNAK

**Meaka-Irimo herri-plataformaren urtebetea****JOSEBE BLANCO ETA ARKAITZ KORTABARRIA**

MEAKA-IRIMO HERRI PLATAFORMA ANTZUOLA

Batzuetan, mehatxuek hitz egiten digute dagoenaren garrantziaz. Eta horren tamainaren arabera izaten da balizko erasoari erantzuteko indarra. Konturatzerako, buru-belarri hasten zara galtzekotan dagoena babesteko; babestu ezean, zeu ere galduta zaude. Antzuolan 200 metroko bi aerosorgailu behar izan ditugu Meaka eta Irimo mendien defentsan aktibatzeko.

Urtebete pasa da Udalak bilera informatibo bat deitu zuenetik: udal ordezkariak azaldu zuten CILDA Energy enpresako -Capital Energy taldekoa- ordezkariak esandakoa. Bertan erabaki zuten herritar batzuek taldea osatzea eta Meaka eta Irimo babestearen alde lan egitea.

Jabetu ginen ultramaratoia genuela aurrean. Asko genuen ikasteko, gertatzen ari zenaren dimentsioak jabetzeko. Konturatu ginen aurrean genuen erraldoia ez zela nolanhikoa eta baliabide guztiak zituela eskura, ez guk bezala: dirua, denbora eta erabakiguneen eta negozioaren funtzionamenduen ezagutza.

Eskerrak hasiera hartan Udalak lagundu zigun, eta, ahal zuen neurrian, babestu zituen lehen urrats haiek.

Orain arte egindako bidean, mugarrira izan zen enpresak Jaurlaritzan aurkeztutako proiektuari alegazio epea. Gure ezjakintasuna estaltzeko, eskerrak askoren laguntza ere izan genuen. Orotara, 4.000 sinadura baino gehiago lortu genituen.

Ez dugu Eusko Jaurlaritzaren erantzunik. Komunikabideen arabera, ordea, enpresak urte bukaera arteko epea hartu du *Trekutz* deitu duen proiektua "bideragarria den ala ez" jakiteko. Berriak harritu egin gintuen: nolatan egin inbertsio handiak jakin gabe proiektua bideragarria den ala ez?

Orain arteko bidean, talde honek sortu ditu espazioak energiaren ertzetan arakatzeko. Zalantza ere agertu dira, baina lehen hilabete haietan senari entzundakoa berretsi egin du Antzuolara heldu zaigun informazioak. Formatzen jarraitu nahi dugu datozen hilabeteotan.

Orain benetan bizi dugu mundua ez dela hemen hasi eta bukatzen. Izan ere, Antzuolan egin nahi duten txikizioak lotura zuzena du munduaren beste puntan gertatzen diren bortizkeria mota askorekin.

Urtebetean, elkartu ginenok aldatu egin gara, eta multzo zena lantalde bilakatu da. Nahiko genuke taldea handitzea, horrek aberastasuna ekarriko lukeelako, taldera eta herrira. Asmatuko ote dugu munduan egoteko modua planetaren mugara ekartzen? Posible dela sinetsi behar dugu.

**Geltoki berria****MAITERE LARRAÑAGA**

KONTZEZINO KALEKO BIZILAGUNA ARRASATE

Autobus geltoki berriaren kokapena dela-eta informazio gehiago izateko, Udalak txosten honetara bidaltzen gaitu: *Arrasateko Mugikortasun Jasangarrirako Planaren Eguneratzea*. Txosten mardul honetan, azkenean lortu dut topatzea non aipatzen duen zerbait geltoki berriaren inguruan (4.3.3 atala). Bertan, ahulezia, abantailen eta mehatxuen taulaz gain, esaldi bakar bat topatu dut Laubideko aukeraren kokaguneari buruz: *Beste aukera erdigunean ezartzea da, Laubide plazaren eta Kontzezino, Nafarroa eta Garibai arteko biribilgunearen espazioa erabiliz, kale hori erabat birmoldatuta biribilgune izateari utzi baitio. Jarraian, AMIA matrize bat aurkeztuko dugu (ahuleziak, indarguneak, mehatxuak eta aukerak) bi kokaleku posibleetako bakoitzerako*. Ez krokis bat, ezta marrazki bat, nola geldituko litzatekeen trafikoa, nola geldituko litzatekeen orain berdegune eder bat den lekua... Ezer gehiago ez. Eta horrekin bakarrik jendearen esku lagatzen dute horrelako erabaki garrantzitsu bat aste baten hartzeko? Lotsagarria!

Hirietako erdiguneko trafikoa emisio gutxiko ibilgailuetara mugatzen ari diren garaietan, Arrasaten baldintza horiek betetzen ez dituzten 200 autobus

gehiago erdigunera bideratzea proposatzen gabilta, dauden berdeguneak kenduz. Ekoboulebar berriak egitea baino merkeago izango da dauden berdeguneak konserbatzea, ezta?

**Antzuolan, Espainiako himnorik ez!****MIKEL BARGIELA**

ANTZUOLAKO EH BILDUREN IZENEAN ANTZUOLA

Mairuaren Alardearen inguruan herrian sortzen ari den giroa dela-eta, Antzuolako EH Bilduk zera adierazi nahi du:

Alardea gure herriko ohitura da, gure iraganaren eta izaeraren parte; hortaz, zaindu beharrekoa.

Hala ere, garbi dago Alardea sekula gertatu ez zen ekintza baten antzeppen bat dela. Hau da, antzuolarrak ez ziren inoiz egon Valdejunquerako batailan, ez eta banderarik edo mairuen erregerik ekarri ere.

Asmatutako tradizio bat da, gaurdaino belaunaldiz belaunaldi iritsi dena. Bada garaia herritarrei hori garbi lagatzeko: gurea den zerbait da, baina asmatua.

Alardearen historian aldaketa ugari bizi izan ditugu: asto gainean joatetik zaldi gainean joatera pasa zen mairua; kateatuta eta umiliatua izatetik haren segizio propioarekin joatera; menpeko izatetik antzuolarron jeneralaren pareko izatera; hitz egin eta elkar besarkatzera. Gaztelaniaz

egiten zen diskurtsoa, eta euskaraz egiten da orain. Emakumezkoen parte hartzea eta nabarmentasuna hartzea naturaltasunez egin zen. Sartu ziren dantzak, bukaerako bertsoak, danbor-joleak, arropa aldaketak... eta arazorik ez. Orain, ordea, Udalak Espainiako himnoa den hori kendu eta herrian bertan sortutako beste batekin ordezkatzeko jarri du mahai gainean, eta Alarde Elkartek dio patxada hartu behar ei dela. Zertarako eta zergatik? Alardean jotzen den musika Espainiako himnoa dela jakin ondoren, normala iruditzen al zaio Alarde Elkarteari horri buruzko gogoeta patxadaz egin behar dela esatea?

EH Bilduri ez. Harritu egiten gaitu: nola liteke harrera hori hartzea botoen %85etik gora abertzalea den herri batean? Udaltzako osoa zinegotzi abertzalez osatua dagoen herri batean? Ez zaio axola antzuolarrak urtero Espainiako himnoaren atzetik desfilatzen jartzea? Ezjakinean desfilatzea, tira! Baina jakinda?

Espainiako himnoa, bandera bezala, sinbolo arrotza da guretzat, menpeko bihurtzen gaituen eta euskaldun izateko eskubidea ukatzen digun estatu baten sinboloa. Horregatik, gai honetan, Antzuolako EH Bilduk argi dauka: gaur egun Alardean jotzen den musika aldatu egin behar da, lehenbailehen. Noski, beste aldaketa asko egin diren moduan, naturaltasunez.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

## TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI



**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE Eguaztena zen. 1978ko azaroaren 15a, gaur 46 urte. Arratsalde, Komando Autonomo Antikapitalistetako kideek Aretxabale-tako kuartela metrailatu ostean, Arrasaterantz joan ziren, autoz. Gaur egungo Arrasate pasealekua, Uribarri hiribidea, Erguin kalea eta Zarugalde kalea elkar-tzen dituen biribilgune inguru-ra iritsi ziren, kale jantzita zihoazen hainbat guardia zibil atzetik zituztela.

Puntako ordua izanik, eta Olandixoko tunela oraindik egin barik zegoenez, auto-ilara luzeak zeuden inguru hartan. "Saihesbiderik ez zegoenez, Guardia Zibilaren kuartel paretik pasa behar izaten genuen herrian sartu eta irteteko –gaur egungo Kontzezinoko biribilgune ondoan zegoen kuartela–. Hori dela eta, komandoko kideek bide hura hartu zuten, kuartel paretik ez pasatzearen, eta auto guztiak han pilatu ziren, gure etxe aurrean", adierazi du Inazio Murgiondok (Arrasate, 1950), Emilia Larrearen seme zaharrenak. Nahasmen hartan, Guardia Zibilek tiro egin zieten Komando Autonomo Antikapitalistetako kideei, eta haietako bi hil zituzten –Roberto Aranburu eta Jose Maria Iturrioz–. Beste kide bat, berriz, larri zauritu zuten –Kike Zurutuza–. Era berean, bi oinezko ere zauritu zituzten tiroek, Juana Martin eta Alberto Beltran de Heredia (Ikus eskuineko zatidura).

Minutu gutxira, Arrasateko hainbat guardia zibil agertu ziren bertara, baina, uniformerik gabeko guardia zibilak ezagutu ez, eta tiroka hasi ziren. Bitartean, Larrea baserrian, Emilia Larrea eta Jesus Mari Murgiondo ama-semeak atariko banku batean eserita zeuden, Crescencia Vidaurreta eta Espe Gaztañaga ama-alabekin batera –lagunak ziren bi familiak–. "Gure aita [Jose Murgiondo] etxe barruan zegoen eta ama, berriz, bere onetik kanpo, etxe inguruan, atzera eta aurrera. Esperekin eta Crescenciarekin geunden bankuan eta ni ama lasaitzen saiatzen ari nintzen, oso urduri zegoelako", nabarmendu du Jesus Marik (Arrasate, 1955). Joaquin, seme gazteena, Ceutan zegoen, soldaduska egiten (Arrasate, 1956).

Emilia beldurtuta zegoen, seme zaharrenari zerbait gertatuko



Jesus Mari, Inazio eta Joaquin Murgiondo anaiak, egungo Larrea etxeko egongelan. Atzean, Emilia Larrea amaren eta Jose Murgiondo aitaren erretratuak. E.A.B.

# Bala galdu batek eraman zien ama

1978ko azaroaren 15ean, gaur 46 urte, Emilia Larrea Saez de Adana arrasatearra hil zuen Guardia Zibilaren bala galdu batek; haren hiru semeekin elkartu da GOIENA

ote zitzaion. "Lanetik bueltan nentorren, Garagartzatik, eta sekulako auto-ilarak zeuden. Autobusa gelditu zegoenez eta etxea gertu nuenez, jaitxi eta oinez abiatu nintzen etxerantz".

Halako batean, tiroak Larrea baserriara iritsi ziren; bala batek Emiliaren lepoan jo zuen eta beste batek, Crescenciaren izterrean. "Ama eskuetan hartu nuen eta ikusi nuen gaizki ze-

**"HIRURONTZAT AMA IZAN ARREN, DOLUA BAKOITZAK BERE ERARA PASA DU"**

JESUS MARI MURGIENDO

goela. Gizon batek zentro asistentzialera eraman gintuen autoz, baina, ordurako, konturatu nintzen ama hilda zegoela. Oso azkarra izan zen guztia", dio Jesus Marik. "Emiliaren orduko irudia ondo gogoratzen dut oraindik; ez dut sekula ahaztuko", gehitu du Espe Gaztañagak (Ikus eskuineko zatidura).

**"Hutsune handia" etxean**

Inazio Murgiondok 28 urte zituen orduko hartan; Jesus Marik, 23 urte; eta Joaquinek, 22 urte. Ama nola gogoratzen duten galdetuta, guztiaren gainetik "langilea" zela nabarmendu dute: "Emakume langilea zen oso gure ama; zeukan guztia emateko

zeukan. Gelditu ere ez zen egiten etxean; pentsa, bazkaldu ere zutik egiten zuen batzuetan".

Ama horrela galtzea gogorra izan zela aitortu dute, eta "hutsune handia" utzi zuela etxean. "Hirurontzat ama izan arren, bakoitzak bere erara pasa du dolua. Inaziok zeukan harreman estuena amarekin, eta hark pasatu zuen okerren, baina galera guztientzat izan zen, noski",

**"EMAKUME LANGILEA ZEN GURE AMA; ZEUKAN GUZTIA EMATEKO ZEUKAN"**

INAZIO MURGIENDO

azaldu du Jesus Marik. "Edozein ere, etxean oso gutxi hitz egin izan dugu amaren heriotzaz, oso zaila egiten zaigu horretaz hitz egitea", azpimarratu du.

Galera handia izan arren, amaz harro daudela gehitu du Jesus Marik, eta zorte txarrak eraman zuela: "Esan gura dudana da Guardia Zibilaren helburua ez zela gure ama hiltzea; ni ere izan nintekeen hildakoa. Garbi dago gertatutakoa ez zela gertatu behar, baina ez da gauza bera horrela hiltzea edo Guardia Zibila zuzenean gure ama hiltzera etortzea. Geratzen zaizun sentazioa ez da bera; guk harrotasunez oroitzen dugu ama".

Gertakari haien ondorengo egunetan, herria asko mobilizatu zen, eta, manifestazioez gain, grebak ere egin zituzten, gertatutakoa salatzen. Horretaz harago, baina, herritarren partetik jaso izan duten babesa azpimarratu dute hiru anaiak: "Erakutsi izan diguten babesa eta gertutasuna ikaragarria izan da, eta horrek asko balio du. Izan ere, horrek erakusten du gure ama nolakoa zen, eta hori, guretzat, oso garrantzitsua da".

**Biktima, batzuentzat bakarrik** Espainiako Gobernuak biktima gisa aitortzea ukatu zion Emilia







Mojategi berritua, airetik. Atletismo pista more kolorekoa jarri dute. ANDONI GOITI BILBAO

# Dagoeneko erabilgarri dago Mojategi berritua

Prentsa agerraldia egin dute Mikel San Miguel Kirol zinegotziak eta Kepa Urteaga Obra, Zerbitzu eta Mantentze zinegotziak. Azaldu dutenez, obra ofizialki bukatzeko xehetasun batzuk falta diren arren, azpiegitura guztiak erabilgarri daude dagoeneko

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE Uztailen hasi zituzten Mojategi argiteria eta atletismo pista eraberritzeko lanak, eta dagoeneko amaitutzat eman dituzte, azken ukituen faltan. Udalak 1,1 milioi euroko inbertsioa egin du lan horiek egiteko.

Berrikuntza nabarmenena atletismo pistaren kolorea izan da: morea. "Proiektua definitzeari ekin genionean, Arrasateko bereizgarri den kolore morea atletismo pistari egokitzea pentsatu genuen, eta, kirol elkarte zein teknikariek kontratatuta, bideragarri ikusi genuen. Emaitzarekin oso pozik gaude guztiok", adierazi du Urteagak. Hala, pista bera berritzeaz gain, ekipamendu guztia ere berritu dute: koltxonetak, hesiak, pertikak, luzera-saltoa egiteko eremua eta abar.

San Miguelek zera nabarmendu du: "Kirol elkarteak dagoeneko han entrenatzen ari dira. Atletismo taldea asteburuan sartu zen pista erabiltzera, eta,

jaso ditugun mezuen arabera, oso pozik gaude berrikuntzekin, nahiz eta atzerapenak haserre puntu bat ere eragin dien. Izan ere, ikasturte hasieran, herriko beste instalazio batzuetan aritu dira entrenatzen".

## Argiteria jasangarriagoa

Mojategin dauden zortzi argi-dorreak ere berritu dituzte, "guztietan LED sistema jasangarria" jarrita. Horrek kontsumo energetiko txikiagoa ekarriko du, eta, aldi berean, argindarraren faktura nabarmen gutxituko da, Urteagaren esanetan. "Efizientzia energetiko eta ekonomikoa lortuko dugu, eta uste dugu kontsumoa %50 jaisteko moduan egongo garela. Era berean, sis-

**UDALAK 1,1 MILIOI EUROKO INBERTSIOA EGIN DU MOJATEGIKO BERRITZE-LANAK EGITEKO**

tema berriak aukera emango du bi zelaietan argia erregulatzeko eta erabileraren arabera egokitzeko. Horrekin batera, mantentze-lanak egiteko baliabideak gehitu ditugu argi-dorreetan, langileak dorreetara ahalik eta gutxien igo daitezten".

## "Inbertitzen jarraitu behar da"

San Miguelek azaldu du kirol instalazioak berritu edota mantentzeko diru partida "garrantzitsuak" bideratzen ari direla, etorkizunerako inbertsio gisa ulertuta. "Hasieratik, garbi ikusi genuen kirol azpiegituretan inbertsioak egin behar genituela, horretarako beharra zegoela, eta horretan ari gara. Musakolan, esaterako, Antoñako frontoia konpontzeko lanak abiaraziko dituzte urte amaierarako. Hala ere, jakitun gara oraindik lan handia dagoela kirol instalazio duinak izateko, baina lan horretan ari gara, eta epe ertainean hobekuntzak ikusten joango gara", bukatu du.



NIRE USTEZ

EVA ABUIN BIDEBURU

## Galdeketa eta eredu desberdinak

Lerro hauek irakurtzen dituzun bitartean, Arrasateko lehenengo herri galdeketa azken fasean egongo gara; hau da, bozketan parte hartzeko azken egun eta orduetan. Galdeketa honetan erabakiko da zein kokaleku izango duen gure herriko autobus geltokiak: Zalduspe edo Laubide. Jakin badakigu, legez, galdeketa hauek ez direla lotesleak, baina urriko osoko bilkuran alderdi guztiok -EAJk izan ezik- proposamena babestu genuen; beraz, esan dezakegu galdeketa emaitza politikoki loteslea izango dela osoko bilkuraren gehiengoaren partetik. Deigarria egiten zait, dena dela, EAJk galdeketa aurka bozkatu eta prentsa bidez beste parte-hartze eredu batzuk aldarrikatzea.

EH Bilduk eta Elkarrekin Arrasate osatzen dugun Udal Gobernuaren apustua garbia da: etorkizuneko erabaki estrategikoak herriarekin batera erabakitzea.

Parte-hartzea partida isolatu batera mugatzea baino gehiago, herritarrei egunerokoan hitza eman nahi diegu, eta parte-hartze zuzena eraiki eta aktibatze baliabideak sortzen jarraituko dugu. Beraz, oraindik botatu ez baduzu, ez galdu aukera.

## Txatxilipurdiko kideak bihar hasiko dira jostailuak batzen

Abenduaren 14an egingo dute truke azoka. Azaroaren 16an eta 21ean, Arimazubi plazan batuko dituzte jostailuak; hilaren 22an, Usaetxen; 28an, 29an eta 30ean, Biterin; abenduaren 2an eta 3an, Santa Marinako ludotekan; eta abenduaren 10ean, Euskal Herria plazan -aste barruan 17:00etatik 18:30era eta zapatuetan, berriz, 12:00etatik 13:30era-.

## Osasun mentalari buruzko hitzaldiak, hilaren 27an hasita

Katearen Loturak elkarteak, Ediren Osasun Kooperatibak eta Arrasateko Udalak buru osasunaren inguruko hitzaldi sorta bat antolatu dute: lehena azaroaren 27an izango da, *Adikzioak eta patologia duala* izeneko; eta bigarrena abenduaren 18an, *Psikofarmakoak, Tratamendu bakarra al dira?* izenpean. Biak 18:00etan, Kulturaten.

## OHARRAK

### Gaztaina erreak jango dituzte gaur Biterin

Arrasate Herri Eskolako Guraso Elkarteak antolatuta, festa egingo dute, 16:30ean hasita, musikaz eta dantzaz lagunduta.

### Bertako produktuen azoka bihar

09:00etatik 14:00etara egingo dute, Seber Altuben, eta babarruna izango da produktu izarra. Hala, azokarekin batera, produktu hori dastatzeko aukera izango da, 11:00etan hasita.

### Mondravemberren ekitaldi berezia Amaian

Bihar, zapatua, egingo dute, 19:00etan hasita. Sarrerak *Arrasate*. *eus*-en edo leihatilan erosi ahal izango dira, 15 eurotan.

### Autobus geltokiari buruzko galdeketa

Bihar, zapatua, da botoa emateko azken eguna. Gaur, 18:30ak arte botatu ahal izango da, BAZen. Bihar, berriz, 14:30ak arte.

### 17 Emakume kalean plaka jarriko dute

Domekan 12:00etan egingo dute horretarako ekitalditxoak.

### 1942an jaiotakoekin kintada azaroaren 30ean

Interesa dutenek Izadi belar-dendan eman beharko dute izena.

# Euskal kantagintzaren itsasoan murgiltzera

AEDk 'Hitzen ahairea: zeri kantatzen diogu euskaldunok?' tailer musikatu antolatu du hilaren 28 eta abenduaren 12rako. Gotzon Barandiaranek eta Rafa Ruedak poeta eta kantari euskaldunen arteko harremanetik sortutako kantagintza aztertuko dute

**Hasier Larrea Herrero** ARRASATE

Iaz, 40. urteurrenaren harira gonbidatu zituen AED elkarteak Gotzon Barandiaran idazlea eta Rafa Rueda musikaria, saio musikatu aurkez zezaten. Interes handiarekin bertaratu ziren hainbat lagun, eta, haien eskariz, jarraipena izango du tailer-rak. Izan ere, gogoetaz betetako liburua *-Hitzen ahairea* saiakera- eta 100 kantu baino gehiagoko bilduma daukate osatuta bi sortzaileek. "Hortaz, tailerrek oso moldagarriak dira, eta egokia iruditu zitzaigun beste bi saio antolatzea; hartara, kantagintzaren funtzio sozialaz edota transmisioaren garrantziaz



Rafa Rueda eta Gotzon Barandiaran, tailerra ematen. SUSA

jardungo dugu, patxadaz", azaldu du AEDko Itxaro Artolak.

**Sakontzeko formakuntza**

Ruedak zenbait abeslari eta musika talderen abestiak joko ditu gitarrarekin, eta Barandiaranek edukiz jantziko ditu. Modu horretan azalduko dute euskal musikariaren eta idazleen arteko harremana eta euskaldunen iruditegi kolektiboan dauden kantuen jatorria. "Izan ere, askotan egiten ditugu kantuen irakurketak jatorrizko testu-gurua jakin gabe; beraz, interesgarria da testu horien alde historiko, soziologiko eta literarioa ezagutzea", adierazi du.

Tailerra "euskara eta euskal kultura maite dituen orori" dago zuzenduta, eta, bereziki, haien transmisioan diharduten irakasle, guraso, musikari eta historialariei. Azaroaren 28rako eta abenduaren 12rako 18:00etatik 20:00etara egin dute hitzordua, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan. Izena emateko AEDra jo daiteke, azaroaren 25a baino lehen. Tailerrean parte hartzeko prezioa 30 euro da, eta AEDko bazkide izanez gero, 27 euro.

## Udal Bibliotekako zuzendari Asun Agirianori saria

Kutxa Fundazioak Donostia Literatura sari-banaketa ekitaldia egingo du bihar, Antzoki Zaharrean, eta Asun Agiriano arrasatearrak Ibilbidearen Saria jasoko du, irakurketa eta euskal liburugintzaren alde egindako ibilbideagatik. Agirianok, "pozik eta urduri", taldeari egindako aitortza bezala ikusten du errekonozimendua: "Udal Liburutegian egiten dugun lan itxuraz isila saritzen dutela iruditzen zait. Urteotan asko igarri dut lankideen hauspoa, eta konturatu naiz bidelagunak zaintzea oso garrantzitsua dela. Ekipo on baten parte sentitzen naiz, eta argi daukat bakarrik ezingo nukeela halako errekonozimendurik jaso".

Agiriano irakurketaren sustapenean eta haur eta gazte literaturan nabarmendu da. Haren argitalpenik berriena *Atzamarra* album ilustratua da, 2022koa. Oraindik emateko asko duela aipatu du: "Neure burua gazte ikusten dut eta".

## 80ko hamarkadan galdutako lagunaren omenezko kontzertua

Bihar, zapatua, The Potes, Zero & Gonbidapunkak eta Chuleria, Joder! taldeen zuzeneko ezagutzeko aukera egongo da Arrasateko gaztetxean, 22:00etan hasita. Lagun talde batek antolatu du hitzordua, 80ko hamarkadan galdutako lagunak gogoratzeko: "Bi urtetik behin egiten dugun ekitaldia da, tradizio luzekoa; Jabi Destruye donostiarra hasi

zen kontzertu hori antolatzen hainbat tokitan, hala nola Donostian, Andoainean, Arrasaten... eta ohitura hori mantentzen dugu hemen", adierazi du antolatzaile-taldeko Iker Barandiaranek. Hala, eten baten ostean, Arrasateko The Potes taldea oholtzara itzuliko da.

Gaztetxeko hurrengo kontzertua, bestalde, Kooltur Ekintzaren eskutik etorriko da: Lide Herandok Bele proiektua aurkeztuko du ostegunean, hilak 21, 22:00etan.

## Santa Zezilia gogoan, Bandaren kalejira eta kontzertua domekan

30 urte bete dituen Arrasate Musikalen Bandak musikariaren patrioiari, Santa Zeziliari, keinu egingo dio domeka honetan, hilaren 22an santuaren eguna dela eta. Hitzordu bikoitza antolatu dute: 11:30ean kalejiran irtengo dira erdigunetik eta 12:30ean San Frantzisko elizan egingo dute bost piezaz osatutako doako kontzertua.

## Udazken giroa trikiti doinuekin alaitzera Kulturolan

Gaur, hilak 15, Arrasateko Trikitixa Eskolako ikasleek emandua egingo dute Kulturola eraikineko areto txikian, 19:00etan. *Udazkeneko jaialdia* deitu dioten horretan, adin guztietako trikiti- eta pandero-joleek eskolan lantzen dituzten piezak entzun ahalko dituzte herritarrek. Plan ederra arratsalde-pasa alai egiteko.



# GREMIOAK



**LOREZAINZA**

**MAKAI KOOP. ELKARTEA**

**ARETXABALETA**

Basabe poligonoa  
D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 /  
616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45

**ITURGINTZA**

**EGIA ITURGINTZA**

**ARRASATE**

Gipuzkoa etorbidea 39, behea  
Tel.: 943 77 01 85

**URKO MANTENIMIENTO SL**

**ARETXABALETA**

Basabe industrialdea B-3  
Tel.: 943 77 19 88  
Faxa: 943 79 59 97

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.

# Energia burujabetzan herritarrak ahalduntzen

Goienerek, energia berriztagarrien sorkuntza eta kontsumo kooperatibak, 10 urtetik gora daramatza burujabetzaren alde lan egiten. Herritarrak informatu eta ahalduntzeko, Arrasateko bulegoan aurrez aurreko arreta eskaintzen dute orain

Goienere irabazi asmorik gabeko kontsumo kooperatiba da. 2012an sortua, energia berriztagarriak bultzatzen ditu, tokiko garapena sustatuta eta pertsonen parte hartzea ardatz nagusi hartuta.

## Eskaintzen dituen zerbitzuak

Goieneren zerbitzuen artean, energia 100% berriztagarria sortu eta merkaturatzea dago, tarifa eta potentzien inguruko aholkularitza ematen dute eta auto-kontsumo kolektiboak sustatzen dituzte, besteak beste.

## Herrigintzako proiektua da

30 herritarrek sortutako proiektua da Goienere. 2013an kontratatu zuten lehen pertsona, eta, ordurako, 1.000 bazkide eta beste horrenbeste kontratu zituzten. Ordura arte, lan boluntarioarekin egin zuten aurrera. Herrigintzatik dator, herritarrek sortutakoa baita. Gaur egun, 60 langile, 18.000 bazkide eta 22.000 kontratutik gora maneiatzen dituzte Hego Euskal Herrian. Proiektu sozial bat da; honela deskribatu du Goienereko dinamizatzaile arrasatear Eider Murgoiatik: "Proiektu sozial bat da, herritik sortutakoa, eta ahalbidetzen duena Euskal Herriko energia burujabetzaren bueltan sentsibili-



Goienereko Arrasateko bulegoko lantaldea. IWAN VALLE

zazioa, sorkuntza proiektuak eta pobrezia energetikoaren aholkularitza".

## Energia Komunitateak

Debagoienean dagoeneko Bergaran, Elgetan eta Eskoriatzan sortu dituzte energia komunitateak, Oñatin eta Aramaion sortzen laguntzen dabilta, eta Euskal Herri mailako ia beste 30 herritan dagoeneko sortu dituzte. "Tokian tokiko herritarrak aktibatzen eta ahalduntzen gabilta", adierazi du komunitate energetikoen sustatzaile Oier Etxebarria

aretxabaletarrak, eta hau gaineratu: "Prozesu politikak izaten dira, eta gero, jende hori herriaren dako lanean jartzen da". Bailarako energia komunitateak batzen dituen Ernamuina egiteasmoko bileretan ere parte hartzen dute.

## Bailaran duen oihartzuna

Udalekin elkarlanak sortzeko asmoa dute Goieneren. Merkatuak taldeko kide Leire Astigarraga oñatiarrak adierazi du 2018a ezkerreko Oñatiko Ur Jauzien kudeaketan eta operazioan dihardutela. Oñatiko Ur Jauzien jabe-

tzaren %80 Oñatiko Udalarena da, %10 Energiaren Euskal Erakundearena eta gainerako %10a Goienerrera. Entitate eta Enpresen taldeko kide Josu Pedruzok gasteiztarrek zehaztu du bailarako beste udal batzuekin ere hasi direla harremanetan.

Horrez gain, Ibai-arte merkatarien elkartean bazkide du, eta elkarlan bat hasi dute, merkatariei doako aholkularitza eskaintzeko. "Komunitate horretan presente izatea eta eurekin egotea guretzat garrantzitsua da", esan du Pedruzok.

D2030 egiteasmotan ere parte hartzen dute, energiaren alorrean, hasieratik.

Bailaran ekonomia sozialeko erakundeekin ere badabilta elkarlanean. Esaterako, Ereindajan elkartearekin proiektuak lantzen dabilta, elikadura eta energia burujabetzak uztartzeko bideak aztertzen. Baita Emakume Txokoarekin ere, argindar-faktura tailerrak eta efizientziaren bueltan ahalduntzeak egiten.

Debagoieneko Mankomunitateak aholkularitza bulego bat jartzeko asmoa duela adierazi dute, eta han lanean hasiko den pertsonari formakuntza Goieneren emango diotela gaineratu dute.

Izan ere, eurek badute esperientzia horretan. "2018tik hasita, jubilatuen gana joaten ginen, Antzuolara, baita Aretxabaletara ere, eurei fakturak irakurtzen lagundu eta horiek hobetzen laguntzeko tailerrak eskaintzera", esan du Etxebarriak.

## Bulegoa Arrasaten

Goienereko bulegoak dauzka Euskal Herriko hiriburuetan, Arrasaten eta Ordizian. Eta bailaran aurrez aurreko arreta hori eskaintzen dute Arrasateko Zer-

kaosteta kaleko 15. zenbakian duten bulegoan, 2023a ezkerre.

Arreta taldeko kide Aratz Arregi oñatiarrak hau adierazi du: "Tokiko eta gertuko zerbitzua emateko helburuarekin daukagu bulegoa. Guretzako oso garrantzitsua da zuzeneko arreta eskaintzea, euskaraz. Eta gardentasunarekin azaltzea, adibidez, faktura bateko kontzeptuak, pobrezia energetikoa edota auto-kontsumoa martxan jartzeko eman behar diren pausoei buruz herritarrak informatzea. Bideragarritasun txostenak prestatzen ditugu, instalatzaileak gomendatzen ditugu, kontratuetan energiaren banatzailearekin auto-kontsumoa aktibatzen dugu eta diru-zorroaren zerbitzua eskaintzen dugu... Doako eta konpromiso gabeko zerbitzua eskaintzen dugu gure bulegoetan; edozein etor daiteke gurerara bere fakturarekin, edozein merkaturatzaile duela ere".

Eskaintzen duten gertuko zerbitzu horrekin lotuta, Pedruzok dio euren dako garrantzitsua dela energia sorkuntzarako garabideak ematea, eta auto-kontsumorako ikerketak ere burutzen dituztela azpimarratu du; bai indibidualak, kolektiboak, enpresentzako, etxeko hornidurentzako, edota udal-entzako, esaterako.

Prezio-politikari dagokionez, diote "justua eta gardena" dela dio, prezioak webgunean kontsulta baitaitezke, eta, aldaketak badaude, bazkideei jakinarazten diete.

**BAILARAN ELKARLAN GEROZ ETA GEHIAGO DITUZTE ETA EUREN OIHARTZUNA HANDITUZ DOA**

ekarri zuk ere argindar-faktura gurera



kooperatiboa, bertakoa,  
euskalduna, berriztagarria



Ondare Babeseko Aitziber Gonzalez eta lankideak, Torralden zundaketa-lanak egiten. IDOIA ARANBARRI

# Balorazio-zundaketak egin dituzte Torralden

Iturri idatziek jasotzen dute XIV. mendean gotorleku garrantzitsua zegoela Torralde dorrearen eremuan, eta fauna, elementu militarrek eta eraikuntzako materiala aurkitu dituzte, besteak beste, indusketa-lanetan. Arabako Foru Aldundiak finantzatu ditu

**Amaia Txintxurreta Guridi** ARAMAIO Dokumentu historikoek diote Barajuen auzoan zegoela kokatuta Torralde dorrea edo gaztelua. Ondare Babesak Torralde dorreari buruz egindako sintesi historikoak jasotzen du 1337an aipatzen dela lehen aldiz Barajuengo dorrea iturri idatzietan. Orduetik, mendez mende, hainbat familiaren eskuetan egon zen eraikina, baina, antza, XIX. mendean behin betiko hondatuta geratu zen, 1978an Micaela Portillak argitaratutako ikerketaren arabera. Gaur egun ez da hondakin materialik ikusten Torralde dorrea egon zen eremuan, baina laborpenak jasotzen du 1992an Barajuengo zenbait bizilagunek ahoz emandako testigantzek aipatzen zutela iraganen gainazaleko aztarna arkitektonikoak zeudela. Eta orain, balorazio-zundaketak egin ditu bertan Ondare Babesak, arrasto arkeologikoak bilatzeko.

Aitziber Gonzalez da Ondare Babeseko arkeologoa eta indus-

ketaren zuzendaria, eta bertan egindako lanen berri eman du: "Udalaren ekimenari esker hasi ginen hemen proiektuak planteatzen. Aurretik, auzolana egin genuen, ingurua garbitzeko, eta, morfologia hobeto ikusitakoan, planteatu genuen balorazio-interbentzio bat egitea, zundaketen bidez jakiteko zein den elementu arkeologiko horren potentziala, eta, agian, etorkizunean proiektu gehiago planteatzeko".

## Bi zundaketa egin dituzte

20 metroko luzera eta bi metroko zabalera duten bi zundaketa egin dituzte. "Askotan, zaila da gaztelua suntsitzen edo abandonatzen den momentutik aurrera arrastoak aurkitzea. Izan ere,

## 20 METRO LUZE ETA BI METRO ZABAL DIREN BI ZUNDAKETA EGIN DITUZTE TORRALDEN

bertako jendearendako harrobi moduko bat bihurtzen da eta harria berrerabilteza ohikoa izaten da. Baina bai, aurkitu ditugu arrasto batzuk", adierazi du Gonzalezek. Aurkitu dituzte bai fauna, elementu militarrek eta eraikuntzarako materialak -iltzeak, esaterako-. Nahiz eta egitura askorik ez den kontserbatzen, aurkitutako materialekin kontakizun bat eraikitzen saiatu daitezkeela esan du Gonzalezek, inguruko erabilera zein zen azaltzen lagundu diezaiekitelako aurkitutako objektuek, eta baita datak jartzen ere.

Materialak euren laborategira eraman dituzte: "Gure laborategian garbitu, klasifikatu eta, kontserbazioa behar badute, eman egiten diegu. Gero, inventario eta materialen ikerketa bat egiten da. Informazioa memoria batean jasotzen da eta Gasteizko Bibat museoan gordetzen da", azaldu du. Ondoren, Udalari proposamenak egingo dizkiote, lanekin jarraitu daitekeen baloratzeko.

## Bosgarrenez egingo dute Kopla Txapelketa, gaur, egubakoitza

Zortzi bertsolari izango dira Aramaioko Bertso Eskolak eta Udalak antolatu duten aurtengo Kopla Txapelketan: Durangoko Igor Elortza, Berako Ekhiñe Zapiain, Abadiñoko Aitor Bizkarra, Urretxuko Amaia Iturriotz, Lesakako Erika Lagoma, Añorgako Unai Gaztelumendi, Gasteizko Eli Zaldua eta Lesakako Josu Sanjurjo.

Bi zatitan jokatu da txapelketa: 19:30ean, Goiko Taberna zenaren parean elkartuko dira zortzi bertsolariak, eta lehen ariketak kalean egingo dituzte; bigarren zatia, afalostekoa, Aramaioko Eskolan jokatu da, bertako jangelan afalduko baitute parte-hartzaileek eta bertsozaleek. Musikariek lagunduta, zortzi bertsolariak hasiko dira kantuan, eta bi bertsolari sailkatuko dira buruz burukorako. Bi saioak bertso eskolako kideek aurkeztuko dituzte.

## San Martin pilota txapelketako finalak jokatu dituzte bihar

Irailean hasi zen San Martin pilota txapelketa amaierara iritsiko da bihar, zapatua. 7 eta 16 urte bitarteko 60 bikote ibili dira lehian ordutik, eta zortzi kategoriatako finalak jokatu dituzte kiroldegian, 16:00etan hasita.

Hainbat parte-hartzaile aramaioar izan dira, baina finalera bi iritsi dira: alebin mailako

Oinatz Bailez, Legutioko Mattin Agirre bikotekide duela; eta kadete mailako Markel Beitia, Unax Gonzalez aretxabaletarra bikotekidearekin. Guztiak ere nor baino nor gehiago arituko dira zapatuko finaletan, garai-pena lortzeko.

Antolatzaileek adierazi dute orain arteko txapelketa oso polita eta jendetsua izan dela, eta espero dutela zapatuko finalen egunean kiroldegian herritarrak batzea eta giro onean ematea bukaera txapelketari.

## Abesbatzen topaketa egingo dute Papargorrikoek

Zegamako Orkatz abesbatzarekin batera kontzertua eskainiko du Papargorri abesbatzak, Aramaioko topaketan. Emanaldia bihar izango da, zapatua, kultura etxean, 18:00etan, nahiz eta haiek egun osorako prestatu dituzten ekintzak eta jokoak. Lehenengoz hartuko du parte Papargorri horrelako topaketa batean, eta ilusioz daude.

## Bi ikuskizun egingo dituzte domekan Azkoaga auzoan

Arabako landa-eremuetan egiten den AntzokOH! izeneko egitasmoa Aramaiora iritsiko da asteburu honetan; Azkoaga auzora zehazki. Izan ere, Azkoagako elizan bi ikuskizun eskainiko dituzte egitasmo horren baitan: *Idi begi*, lehenik; eta ondoren, *Gizaunka* ikuskizuna izango da. 12:00etatik aurrera ikusi ahalgo dira biak, Azkoagako elizan.

## Iturzuri Emakume Elkarteak antolatuta, clown ikuskizuna

Azaroaren 25ean ospatuko den Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira, hainbat ekintza egingo dituzte herrian datozen egunotan. Lehena, domekan izango da, Iturzuri Emakume Elkarteak antolatu duen Virginia Imazen clown ikuskizuna: *Pronoia*. Kultura etxean izango da, 18:00etan.

**ION ANDER CASTRO ZABALA**

Era guztietako aukien konponketa  
Zumezko artikuluen salmenta

**TAPIZERIA OROKORREAN**

**943 78 71 65**  
**639 01 69 69**

# "Herri proiektua" izango den plana, aurkeztuta

Agintaldirako prestatu duen plan estrategikoaren berri eman du Udal Gobernuak; lau ildo nagusi izango ditu, eta proiektu eta ekintza sorta luzea iragarri dute, "herri bizia, herritar guztiena, irisgarria eta jasangarria" izan dadin Aretxabaleta

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Gobernantza eredu "hurbila, parte-hartzailea eta gardena" aldarrikatuta eta eragileen eta norbanakoen "partaidetza sustatuta" lan egin gura duen Udal Gobernuak lau lan-ildo dituen plan estrategikoa zehaztu du agintaldirako. Garikoitz Iturbe alkateak eta Gobernu Taldeko gainerako kideek eman zuten horren berri martitzenean, 60 bat herritarren aurrean.

**Herri "bizia eta guztiena"**

"Herri bizia" izanik Aretxabaleta, elkarren arteko loturak ehuntzea eta sinergiak handitzea jarri du helburutzat, batetik. Horretarako, jarduera ekonomikoak babestea da asmoa, kultura jarduera parte-hartzaileak sustatzea, euskararen erabilera pausoak emateko politikak aktibatzea, hezkuntza komunitatea artikulatzea eta kirol eta jarduera osasungarriak bultzatzea. "Instituto berria izateko 4-5 urte barru pausoak emango dira, pilotalekuaren hobekuntza faseari ekingo diogu 2025ean, eta kuartelaren egituraren analisia egingo da, eginbeharrak zehazteko", zioen alkateak.

Bigarren ildoak "guztion herria" izatea du helburu: "Pertsonak erdigunean jarrita, quinta-



Alkatea, Gobernu Taldeko gainerako kideekin –Nerea Zubillaga falta da– . M. ALTUBE

suna bermatuko duten politika publikoak aurrera eramatea, pertsonen aniztasuna kontuan hartuz eta bizitzako etapa ezberdinetako beharretan arreta jarrita". Berdintasunean oinarritutako herria lortzeko ekintzen berri ere eman zuten, besteak beste, Txoko Feminista irekitzea.

Herri irisgarria izan dadin "lanerako gertu" daude hirugarren lan ildoan. Horretarako, herritarren mugikortasun baldintzak hobetzea dute helburu, baita pertsona guztiendako espazio atseginak sortzea ere: "Kale

askok dute asfaltatu beharra, eta horri ekingo diogu".

Azkenik, bizi-ohitura jasangarriak sustatu gura dituzte, eta proposatu zuten ingurune naturalak eraberritzea eta energia kontsumoa murriztea: "Eredu energetikoan jauzi bat eman gura da, eta Ederlanek, Aldundiak eta Udalak elkarlanean jardungo dugu; lantegiak sortzen duen beroa aprobetxatu gura da kiroldegira eramateko", azaldu zuen Iturbek, eta energia sortzeko inbertsioak ere iragarri zituen.

## Anorexia gai duen argazki erakusketa, astelehenean hasita

'Kaiola, anorexia duen bizitza baten atzean' izenarekin, David Arribas madrildarraren bilduma izango da ikusgai

**M.A.** ARETXABALETA

David Arribas (Madril, 1978) argazkilariaren lanak izango dira ikusgai azaroaren 18tik abendua bukatu bitartean Arkupeko erakusketa aretoan. *Kaiola, anorexia duen bizitza*

*baten atzean* izenburuarekin, gertutik jaso gura izan du gaur egun lehen lerroan dagoen buruko gaixotasun hori nolako den eta zein arazo dakartzan familiara, kideetako batek pairatzen duenean.

Arribasek 2017an hasi zuen lana. 21 urte zituen gazte bati argazkiak ateratzen hasi zen, familia inguruan zein medikuari bisitak egiterakoan, eta bi urtean jardun zuen horretan. Hamabost argazki osatzen dute bilduma, baita gaixoaren hainbat idatzik ere, hausnarketarako baliagarriak direnak.

Hainbat sari eskuratutakoa da; 2020an, esaterako, Photo Art Festival lehiaketa irabazi zuen, baita *The Washington post*-en Ohorezko Aipamena jaso ere.

## Ludopatiaren gaineko saioa, martitzenean, gurasoendako

Ludopatiaren edo jokorako zaletasun patologikoaren gaineko prebentzio saioa egingo dute martitzenean, hilaren 19an; Arkupeko bigarren solairuko aretoan izango da, 18:00etan. Udaleko Prebentzio Zerbitzuak antolatuta, Malko Estud Junior Elkarteak gidatuko du.

Eskola-adineko seme-alabak dituzten gurasoei bideratu die-

te bereziki saio hori, eta hainbat gako emango dizkiete, arazoa nola antzeman eta horri nola aurre egin jakin dezaten.

Saioari hasiera emateko eta gaia kokatzeko, datu teoriko batzuk emango dituzte; gero, hainbat galderaren bueltan hausnartuko dute; eta, segidan, go-goeta horiek bateratuko dituzte. Bukatzeko, gaiaren gainean eskarmentua duten elkarteak kideek prebentzio-lana egin ahal izateko jarraibide batzuk eman- go dizkiete elkartutakoei.

## Lan ildoak eta zehaztutako ekintzak

### HERRI BIZIA

- **Jarduera ekonomikoa:** Fideltasuna saritu Ekhilur proiektua abiarazita; lokal hutsak kudeatu; eta belaunaldien arteko erreleboa bermatu.
- **Kultura:** Arkupe azpian postontzi bat jarri, liburuak itzultzeko liburutegira; ikasleek beren kontu ikasteko ikasgela bat egokitu; herriko eragileekin agenda bateratu bat sortu eta aplikazioa eguneratu; kuartelaren egituraren analisia egin.
- **Euskara:** Euskara sustatzeko plana; euskaraz ikasteko dirulaguntzak handitu eta nerabeendako eskolak indartu.
- **Hezkuntza:** Instituto berria eraikitzeko lurren erosketa bukatu eta urbanizatze lanen aurreproiektua egin –Hezkuntza Sailak proiektua esleituko du–; herriko ikastetxeek patioetan aterpeak izateko aukera aztertu.
- **Kirola:** Pilotalekua berriro eta Kurtzebarri eskolako aldagela, lekuz aldatuta, pilotariak erabiltzeko moduan jarri; kiroldegi aurreko berdegunean ur-txorroten gunea eta aisialdirako eremua egokitu –urte hasieran esleitu lanak, udan bukatuta egoteko–; futbol zelaiko aldagelak eta duxtak berriro.

### GUZTION HERRIA

- **Pertsonak erdigunean:** Bakardadearen bueltako proiektu pilotua martxan jarri, talde motor bat eratuta; komentuan autonomia sustatzeko zerbitzua martxan jarri –esleituta dago–, baita jatetxe zerbitzua ere; etxer etxeko arreta zerbitzua indartu, langileen lan-baldintzak hobetuta; otsailean harrera plana egin; gazteen ongizate sozialaren ekintza plana martxan jarri.
- **Berdintasuna:** Txoko Feministaren prozesua amaitu eta lokala ireki; LGTBIAQ+ diagnostikoa bukatu eta plana abiarazi; Berdintasun teknikariaren postua berreskuratu.

### HERRI IRISGARRIA

- **Mugikortasuna:** Aozaratzako zubiaren lanak esleitu; argiteria publikoa konpontzen jarraitu; kaleak asfaltatzeko inbertsioa handitu; Copreci pareko bidegorri zatia egin; sei hilabeterako hartutako igeltseroa brigadako taldean sartu.
- **Espazioak:** Gipuzkoa plaza berriro eta gune estalia sortu; Txarapeko igogailua erosi eta hornitu; udaletxean igogailua jarri; Andramariko kantxa konpondu.

### HERRI JASANGARRIA

- **Inguru naturalak:** Ibaitek espezie inbaditzaileak kendu eta naturalizazioa bultzatu; modu jasangarrian kudeatu basoak, Tantai kooperatibaren bitartez.
- **Energia:** Ederlaneko lantegiak sortutako beroa aprobetxatu kiroldegirako; Arkupen eguzki-plakak jarri eta beste eraikin batzuetan jartzea aztertu; energia bulegoa zabaltu Durana kalean; ur-sarea berrikusi.



Girasoles elkarteak birziklatzaileak, hondakinen artean. HIRUATX GKE

# Hiruatz, birziklatzaileen bidelagun Kolonbian

Herrialdearen ipar-mendebaldean dagoen Nariño probintziako Pasto udalerriko Girasoles elkartearekin dihardu lanean aurten Aretxabaleako gobernuz kanpoko erakundeak; birziklatzaileen lan-baldintzak duintzea da helburua

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Aretxabaleako Hiruatz elkarteak –Mundukide GKEren baitan– hiruzpalau urte daramatza birziklatzaileekin lanean; lehenengo urteak Kolonbian eta iaz Ekuadorren. 2024an Kolonbiara itzuli da eta Nariño probintziako Pasto udalerriko Girasoles elkartearen bidelagun da; helburua da haien lana duintzea. Eta horretara bideratu du Udaletik zein aretxabaletar laguntzaileen bitartez jasotako dirua.

**Emakumeen lanbidea**

"Profesionalizatuta dagoen lanbidea da birziklatzaileena, eta gremioetan antolatuta daude. Emakume edadetuak dira gehien-goia lanbide horretan, lan-baldintza gogorretan dihardutenak. Hain zuzen, horregatik batzen dira elkarteetan, lana duintzeko helburuarekin eta Gobernuaren aurrean indartsuagoak izateko", azaldu du Hiruatzeko kide Aiora Padillak. Girasoles elkarteak 59 bazkidek osatzen dute eta

horietatik 52 dira emakumeak: "Beste diru-sarrerarik ez duten emakumeen lanbidea da sarritan".

Hiruatzaren zeregina bereziki laguntza teknikoa ematea da. Horretarako, teknikari bat bideratu dute bertara, Girasolesen "kudeaketa ahalmena indartzeko". Horrekin batera beste hiru helburu ere badituzte: birziklatze materialak erosteko duten lan-kapital fondoa sendotzea; ekoizpen prozesua indartzea, elkarteak duen ekipamendua mantentzeko eta berritzen joateko; eta produktuen merkaturatzea bideratzea, industri txiki eta handiei saltzeko bezero finakoak eta merkaturatze estrategia bat behar-beharrezkoak direlako. "Azken batean, haien lan-bal-

**HIRUATXEN ZEREGINA LAGUNTZA TEKNIKOA EMATEA DA, ETA TEKNIKARI BAT BIDERATU DUTE**

dintzak hobetuta, profesioa duintzea da helburu nagusia, sostengu ekonomikoa areagotuta", dio Padillak.

Hiruatzek Mundukiderek batera dihardu lanean: "Kolonbiaren aldeko apustua egin du Mundukidek eta urteak daramatza han; guk haien lan egiteko moduarekin bat egiten dugunez, euren bitartez gabilta kudeatzen proiektua".

**30 urtetik gora lanean**

Gobernuz kanpoko erakundeak 30 urtetik gora daramatza herrialde pobretuetan proiektuak bultzatzen eta hango elkarte bidelagun izaten. Asian eta Afrikan –Indian eta Mozambiken, hurrenez hurren– egon ondoren, azken urteetan Hego Amerikan dihardu. Gaur egun, sei lagunek gidatzen dute elkarteak, eta eskerrak eman dizkiete urteotan sostengu izan dituzten laguntzaileei: "Udalari zein norbanakoei esker, gogoz jarraitzen dugu lanean".



BASOTXOKO KANTU TALDEA

## Basotxo, abesbatzen topaketan

Gipuzkoako jubilatuzentzako federazioak (Agjiupens) Mutrikun antolatutako 2024ko Abesbatzen Topaketan izan da Basotxoko kantu taldea. Jose Ramon Quintanilla zuzendariaren esanetara, bost kantu abestu zituzten; besteak beste, *Xalbadorren heriotzean*, *Errota zaharra* eta *Elurra mara-mara*. "Pozik" itzuli ziren, eta hurrengo irteerarako "gogotsu" daude.

## Oinarrizko gaitasun digitalak hobetzeko ikastaroak ALEn

Urriari hasita, informatika ikastaroak egiten dabilta Aretxabaleta Lanbide Eskolan, doan, oinarrizko gaitasun digitalak hobetzeko. Egunerokoan erabilgarriak diren ezagutzak erakutsiko dituzte, hala nola administrazio publikoarekin Internet bidez tramiteak egiteko ziurtagiri digitalen erabilera, Internet bidez erosketak egiteko aholkuak eta gailu elektronikoak ahalik eta gehien aprobetxatzeko gomendioak.

Ikastaroek zortzi ordu irauten dute, hiru saiotan banatuta, eta izena emateko interesa dutenek honako telefono-zenbaki hauek deitu dezakete: 943 32 28 08 eta 688 74 52 38.

## 'Nork agintzen du?' izeneko hitzaldia, Joxe Mari Agirretxerekin

Haurren eta Nerabeen Eskubideen Nazioarteko Eguna ospatzen da azaroaren 20an, eta, hori aitzakia hartuta, Joxe Mari Agirretxe gonbidatu dute Aretxabaleako Udaleko Haur eta Nerabe Zerbitzuek. *Nork agintzen du?* galderaren bueltan jardungo du martitzenean, hilaren 19an, 18:30ean, Arkupen.

Katxiporretak argitaratutako ipuin-bilduman jasotzen diren ideien inguruan egingo du berba. Eta haren elkarrizketazailer gisa arituko da Eneko Barberena idazlea eta euskara teknikaria.

Gurasoei eta hezitzaileei bideratutako hitzaldia da, baina kuriositatea duen edonork izango ditu ateak zabalik.

## Kuadrillen arteko futbol txapelketa deitu du GuGeuk

Azaroaren 24an Athletic eta Real futbol taldeek jokatu duten derbia aitzakia hartuta, kuadrillen arteko areto futbol txapelketa antolatu du GuGeu Atxabaltak; Arlutzeko kantuan jokatzeko asmoa dute, 11:00etan hasita. Izena emateko epea zabalik dago eta zabaldu duten formulario bidez egin behar da; azken eguna hilaren 17a da.



Durana 15  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETA



Leire Zubizarreta, Eneritz Zubizarreta eta Isuri Rivas eskoriatzarrak. SAN PEDRO ETA INTXAURTUETA AUZOETAKO BIZILAGUNEN ELKARTEA

## 'Emakumeak enpresan' saioa herritarren eskutik

San Pedro eta Intxaurtxueta auzoetako bizilagunen elkarteak antolatutako hitzaldia izango da gaur, egubakoitza, Ibarraundi museoan, 18:00etan. Hitzlariak Leire Zubizarreta, Eneritz Zubizarreta eta Isuri Rivas izango dira; saioa gaztelez izango da

**Imanol Beloki Unamuno** ESKORIATZA Azaroaren 8an, San Pedro eta Intxaurtxueta auzoetako bizilagunen elkarteko kideak bildu ziren, Ibarraundi museoan, urteko batzarra egiteko. Bertan, Udako Jaiaren, iraileko San Pedro Txiki jaien eta bestelako ekintzen balantzea egin zuten, eta aurrera begira prestatuta dituzten ekintzak ere izan zituzten hizpide; besteak beste, gaurko saioa edo *Ongi etorri, Gabonak* egitasmoa.

### Elkartea indartu nahian

"Jardueren balantze positiboa egin genuen batzarrean. Bertan, boluntarioen lanari balioa eman zitzaion eta kontsultarako gune bat ireki genuen, informazioa eman, eskatu, ideiak partekatu eta galderak egiteko eta, bide batez, 2025erako jardueretan pentsatzeko. Elkarteari bultzada bat eman nahi diogu eta hainbat jarduera egin nahi ditugu, hala nola hitzaldiak, irteerak, ikastaroa, auzolana... Elkarteari eman

nahi zaion bultzada horren arrerapen gisa, *Emakumeak enpresan* izaneko mahai-ingurua izango da hurrengo hitzordua", adierazi du San Pedro eta Intxaurtxueta auzo-elkarteko kide den eta mahai-ingurua gidatuko duen Antonio Regañok.

### Hiru emakume eskoriatzar

Gaur egingo duten mahai-inguruan, hainbat enpresatan arrakasta izan duten hiru emakumeren esperientziak ezagutzeko aukera izango dute Ibarraundi-ra joaten direnek. "Hiru emakume horiek eskoriatzarrak dira, eta San Pedrokoak edo Intxaurtxuetakoak. Enpresetan izan duten esperientzia kontatuko digute, eta, euren kasuak

**HIRU EMAKUME ESKORIATZAR IZANGO DIRA HIZLARI ARITUKO DIRENAK, IBARRAUNDIN**

azaltzeaz batera, enpresetako berdintasunaren ikuspegia eman go digute. Gaur egun bereziki gizonenak diren lan-eremuetan sartzera animatuko dituzte emakume gazteak".

### Emakume ahaldunduak

Gaur izango den hizlarietako bat Leire Zubizarreta da. Kimikan doktorea da, eta I+G lerroko arduraduna Energiaren Institutu Teknologikoan (Valentzia). Eneritz Zubizarreta, berriz, informatika-ingeniarria da, eta Software Kalitatearen Arloko zuzendaria da Izertis (Gasteiz) enpresan. Azkenik, Isuri Rivas ere informatika-ingeniarria da, eta *team coach*-a da Swisscom-en (Suitza).

Laugarren hizlari bat ere egotekoa zen, Maria Jara, baina ezin izango da bertan egon. Ekintzailletza eta Enpresa Berrikuntzan (LEINN) lizentziatua da Jara, eta Smallops (Don Benito, Badajoz) enpresaren sortzaileetako bat.

### Esparru isolatua egiteko lanak gaur amaituko dituzte

Bibliotekan egokitzapen-lanak egiten izan dira eguaztenetik gaur arte, eta ordutik gaur arte itxita izan da, goizeko ordutegian. Arratsaldez ohiko ordutegian izan da irekita, 16:15etik 20:00ak bitartean.

Helduen esparrua, irakurtzeko eta ikasteko erabiltzen dena, kristalezko pareta batekin itxiko dute, aproposagoa izan dadin erabiltzaileentzako. Lehenengo fase horretan, kristalari eutsiko dion pladurra jarriko dute. "Bibliotekaren eremu hori itxeko erabakia hartu dugu, kontsulta bat egin edo ikasten ari den jendeak esparru isil eta isolatua izan dezan", azaldu du Eskoriatzako Udalak.

### OHARRAK

#### Dantzaldia

Imanol eta Larrañaga bikoteak eskainita, rantxerak, pasodobleak, tangoak eta abar, bihar, zapatua, 18:30ean, Zaldibar antzokian.

#### Argiztapen neurriak

Argiztatu egin dute, Intxaurtxueta auzotik bidegorrira artean, zubira iritsi aurreko eremua.

#### Berbaldia

EH Bilduren III. Kongresuaren harira, azaroaren 19an, martitzena, Ander Goikoetxea Gasteizko legebiltzarkidea izango da Eskoriatzan, kultura etxean, 18:30ean.



SARE ESKORIATZA

## Marixolen aldeko mendi martxa

Sare Eskoriatzak eta Atxorrotx Kultura Elkarteak antolatuta, *20 urte kartzelan, Marixol Etxera!* mendi martxa egin zuten joan den zapatuan. Bi ibilbideko martxa izan zen: luzea hamabi kilometrokoa eta ibilbide motza, berriz, sei kilometrokoa. Martxari amaiera emateko, 12:00etan parte hartzaile guztiek talde-argazkia atera zuten Mazmela elizatean.







San Milixan Egunean, herritarrak Leintz Gatzagako frontoian artisauek postuak ikusten. GOIENA

## Hiru hamarkada bete ditu San Milixan azokak

Hogei postu jarri zituzten Leintz Gatzagako San Milixan azokan izandako artisauek. Horien artean, Sorginak Emakume Taldekoak taloak prestatzen izan ziren, urtero moduan, eta bisita gidatu bereziak egin zituzten, besteak beste

### Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Joan den domekan ospatu zuten San Milixan azoka, eta Euskal Herriko hainbat herritatik etorritako artisauek batu ziren Gatzagan; baita bertakoak ere. Izan ere, hainbat postuak bete zuten San Migel plaza eta frontoia, eta eguraldi ona izan zuten lagun gatzagarrek zein bertara goiza pasatzera joan zirenek.

### 30. edizioa, borobila

San Milixan azokaren hogeita hamargarren edizioa izan da aurtengoa, eta, beste urte batez, herriko txistulariek izan zuten herritarrak esnatzeko ardura. Kalez kale aritu ziren, eta azoka ere jendez betetzen hasi zen. Honako produktu hauek izan ziren salgai: poltsak, arropak, bitxiak, ilustrazioak eta abar.

Gatz Museoko produktuen postua ere jarri dute aurtengoa, lehengoz; Gurel Guraso Elkarteak gaztaina erretekin egin zituzten, eta kalabazaren pisua asmatzeko jokoak ere jarri zuten. Gatz City Krew gazte taldekoek tonbola jarri zuten aurtengo edizioan.

Gatzagako Udal ordezkariak balorazio positiboa egin dute

azokak aurtengoa emandakoaz: "Sorginak Emakume Taldekoek dena saldu zuten; gainontzeko postuetan, berriz, pozik geratu ziren artisauek, eta bertaratu zuten jende kopurua handia izan zela esan zuten, nahiz eta hainbatek esan ez zutelana nahi beste saldu. Piper erretekin postua ere izan da aurtengoa, eta jende asko erakarri zuten euren postuak. Orokorrean, oso pozik gaude azokak emandakoarekin", adierazi du Aiora Elkorobarrutiak, Gatzagako Udaleko Kultura zinegotziak.

### Bisita gidatu arrakastatsuen

Leintz Gatzagako hiribilduaren historiaren bitxikeriaz gehiago jakiteko, Aitor Larrañaga Gatz Museoko teknikariaren gidaritzapean bisita gidatuak izan ziren, beste urte batez, eta interes handia piztu zuten.

### GATZAGAKO UDAL ORDEZKARIEK AURTENGO AZOKAREN BALORAZIO POSITIBOA EGIN DUTE

## Mathieu van der Poel ziklistaren maillota, Dorletako museoan

Afizionatu mailako txirrindularien, taldeetako ordezkarien eta babesleen bisita izan dute

### I.B. LEINTZ GATZAGA

Joan den egubakoitzean, Dorletan bisitan izan ziren Maria Modenes (Bertako Igogailuak), graveleko 23 urte azpiko Espainiako txapelduna; Diego Ruiz de Arkaute (Caja Rural), errepideko 23 urtez

azpiko Euskadiko txapelduna; Xabier Bermejo (RPK), emakumezkoen taldeko zuzendari teknikoa; eta Arkaitz Larrazkueta, Zuiakoko lehendakaria eta Calas Espainiako ordezkaria. Azken horrek Mathieu van der Poel

txirrindulariaren maillota eraman zuten Dorletako Santutegiko Mailloten Museoan, bertan uzteko. Azkenik, Segurola Eraikuntzako nagusi Nikolas Segurola ere izan zen bisitan, eta sorpresaz sarri joaten den Oier Lazkano txirrindularia ere bai. Dorletako Ama Elkarteko Alberto Altube lehendakaria omentzeko tartea ere hartu zuten egun hartan, 40 urtez lanean ziklismoaren alde ibili ondoren. Argazkiak atera, eta afaltzera joan ziren gero, Toki Eder elkartera.



Korrika joandako hainbaten erretratua Dorletan. ZORDANBIDEETAN ANTIXINTXIKA

### 'Zordanbideetan antxintxika'

Zordanbideetan antxintxika ekimenaren bederatzigarren ibilaldia egin zuten joan den domekan; inoizko jendetsuena.

San Milixan Egunez Arrasateetik Gatzagarra lasterka joateko dei egin zuten lagun kuadrilla batek, beste urte batez, eta aurtengoa sekula baino jende gehiagok egin du bat haiekin, 30 inguruk. 10:30ean abiatu ziren, Arrasateko Errementari plazatik, eta lehenengo kuadrillatxo hari lagunak batzen joan zitzaizkion, aurrera egin ahala. Aretxabaletako gaztelekuko hainbat kide, esaterako, goiz-pasa gaztainak batzera irtendakoak, haiekin iritsi ziren Gatzagaraino. Behin iritsita, Dorleta Santutegitik pasatu eta 13:00 bueltan herrian ziren guztiak, gastronomia elkartearen prestatutako mokadu galanta jateko gertu. Ondoren, herriko jai giroan murgildu ziren.



Dorletako Santutegira, Mailloten museoan bisitan joandakoak. JOXERRA AGIRREURRETA

# Herri Eskolako ikasleen %4,63k dute telefonoa

Altxa Burua taldeak egin du ikerketa, Lehen Hezkuntzako ikasleen gurasoei galdetegi bat pasata. Erloju adimendunak ere gogoan izan dituzte, eta ohartarazi kezkatat dutela gailu horien kopurua, hamar ikasletik ia lauk baitute. Adostasunean jarri dute arreta

**Amaia Ramirez de Okariz**

**Kortabarria** ANTZUOLA

Lehen Hezkuntzako ikasleen %4,63k dute eskuko telefonoa Antzuola Herri Eskolan, Altxa Burua taldeko kideek ohartarazi dutenez. "Ikasturte hasierako irakasleen aurkezpen-ekitaldiak aprobetxatu genituen galdeketa egiteko, bildutako seme-alabek eskuko telefonoak edo erloju adimendunak dituzten jakiteko, datu horien berri izateko asmoz, eta, emaitzak jaso ondoren, balorazio positiboa egiten dugu", adierazi du Ion Gurutz Biterik, Altxa Burua taldeko kideak.

Hain zuzen ere, Lehen Hezkuntzako lehenengo mailatik hasi eta seigarrenera arteko ikasleen gurasoei pasatu diete galdetegiak, eta 108 erantzun jaso dituzte guztira. Hala, asmoa da urtero galdetegi bera pasatzea, urtez urteko bilakaera ikusi ahal izateko. "Emaitza horiek guztiak, gainera, Pausokaren -guraso elkarte da- bitartez eskolako guraso guztiekin partekatuko dira".

Mailaz mailako datuei erreparatu gero, bosgarren mailako ikasleek dituzte eskuko telefono gehienak: zehazki, 21 galdetegi bete dituzte maila horretan, eta horretatik bik dute sakelakoa: alegia, %9,52k. Hirugarren mailakoak (%5,56), seigarrenekoak (%4,35) eta laugarrenekoak (%3,83) daude, hurrenez hurren.

**Erloju adimenduna, %37,96k**

*Smartwatch*-ak, eskumuturreko erloju adimenduak, ere gogoan izan dituzte galdetegi horretan, eta ondorioztatu dute ikasleen %37,96k -zehazki, 108tik 41ek- dutela horrelako erloju bat; batik bat, laugarren mailakoek. Hain justu ere, maila horretan jasotako 26 erantzunetatik 17k dute bat; edo, beste modu batera esanez gero,



Haur bat izara artean eskuko telefonoari begira. PEXELS

## GURASOEN %56,48K USTE DUTE GUTXIENEZ 16 URTERA ITXARON BEHAR DELA ESKUKO TELEFONOA EMATEKO

hamarretik seik -%65,38, guttira- baino gehiagok.

Bosgarren mailako zenbatekoei dagokienez, ikasleen %38,10ek dute erloju adimendun bat, eta seigarrenekoak %37,49k: are gehiago, bigarren (%18,18k) eta hirugarren (%33,33k) mailako ikasle batzuek ere badute horrelako bat. "Uste dugu hobetzeko artean dagoen puntuetako bat dela erloju adimenduna", erantsi du Biterik.

**Adostasuna eta atzeratzea**

Bateko edo besteko gailuen kopuruaz harago, galdetegian beste bi galdera txertatu dituzte taldekideek: alde batetik, galde dute ea gurasoak prest egongo lirakeen, beste familia batzuekin elkarlanean arituz, eskuko telefonoaren erabilera atzeratu eta adosteko, eta baiezkoa erantzun dute %94,44k: hau da, 108tik 102 guraso ados daude puntu horrekin. Horrez gainera, seme-alabei telefonoa emateko adin egokiena zein den ere galdetu diete gurasoei, eta ondorioztatu dute %56,48k uste dutela gutxienez 16 urtera arte itxaron beharko litzatekeela horretarako.

## Zenbatak dute gailuren bat?

Ikasleen eskuko telefonoen eta erloju adimendunen kopuruak, mailaz maila.

**Eskuko telefonoa**

- **LH1.** Ez du inork.
- **LH2.** Ez du inork.
- **LH3.** 18tik 1ek du.
- **LH4.** 26tik 1ek du.
- **LH5.** 21etik 2k dute.
- **LH6.** 23tik 1ek du.

**Erloju adimenduna**

- **LH1.** Ez du inork.
- **LH2.** 11tik 2k dute.
- **LH3.** 18tik 6k dute.
- **LH4.** 26tik 17k dute.
- **LH5.** 21etik 8k dute.
- **LH6.** 23tik 8k dute.

## 140 kilo gaztaina erreko dituzte bihar, herritarrei banatzeko

Udalak antolatuta, Gaztaina Erre Eguna ospatuko dute bihar, 19:00etan hasita, Herriko Plazan; erreko aldietan ez bezala, zapatara lekualdatu dute eguna. "Domeketan egin izan da orain arte, baina sormen batzordean baloratu zen ez ote zen hobe izango zapatu batean egitea, jende gehiago ibili zitekeela-koan-eta kalean", adierazi du Jone Larrañagak, Udaleko Kultur teknikariak. Haren esanetan, horretarako, prest dituzte dagoeneko 140 kilo gaztaina: "100 kilo egin izan ditugu orain arte, baina segituan gastatzen dira, eta, gainera, aurten zapatua izanda...".

Anelkar Elkartasun Taldeko kideak ere han izango dira gaztainak banatzen, eta herritarrek elkartari laguntzeko diru-ekarpena egiteko aukera izango dute, elkarrekin esku artean dituen proiektuetara bidera dezan bildutako diru hori. Horretarako, kutxa batzuk izango dituzte jarri mahaian gaitan.

## 'Harritzearen abilezia' ikuskizuna izango da bihar

Hodei magoaren eskutik, *Harritzearen abilezia* ikuskizunaz gozatzeko aukera izango da bihar, 17:00etan hasita, Torresoroan. Magia emanaldi bat da, eta, Udalak azpimarratu duenez, ez da umeendako bakarrik, baizik eta adin guztietako jendearendako. 5 euroko prezioa du sarrerak, eta aurrez hartu behar dira: [labur.eus/4pwPB](http://labur.eus/4pwPB).

## Kike Amonarrizek hitzaldia egingo du eguenean Oларanen

*Euskara, gure ondarea; etorkizunerako giltza* izenpean, hainbat ekintza egingo dituzte datozen egunetan, Euskararen Egunaren harira -abenduaren 3an da-, eta hilaren 21ean izango da horietako bat, eguenean, *Nola aktibatu hiztunak Antzuolan?* hitzaldia egingo baitu Kike Amonarrizek; 18:30ean izango da, Oларan kultur etxean.

## OHARRAK

### Sambamaña batukada

Arrasateko Sambamaña batukada taldeak kalejira egingo du gaur, 19:15ean hasita, herriko kaleetan zehar.

### 'Go!azen' telesaila

*Go!azen* telesailaren hamaikagarren denboraldiaren lehen kapituluaren aurrestreinaldia izango da domekan, 18:00etan, Torresoroan. Sarrera doakoa da.

### 'Eraginez piztu' saioa

Baserrietan energia berriztagarriak jartzeko aukerez jardungo dute hilaren 20an, eguaztena, 18:00etan, Torresoroan, D2030ek eta Antzuolako Udalak antolatuta.

**LARREA**

**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

**MUJKA HARATEGIA**



Berezitasunak:  
Etxean hazitako  
zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren 1  
ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 64 34

# ETXEBIZITZA, ERAIKUNTZA ETA DEKORAZIOA



## Etxebizitza erosoak eta efizienteak

- Azken etxebizitzaren promozioak
- Eraginkortasun energetikoa
- Kalitatezko produktuak
- Profesional espezializatuak
- Azken belaunaldiko diseinuak



# ION

ZORUAK  
LEIHOAK  
ATEAK  
HORMA ARMAIRUAK

leihoak



## THERMOFLOC®

Sistemas de aislamientos inteligentes

ARRASATE • Telleria kalea 4 \* Pab. 11 \* • 943 79 11 35  
www.ventaion.com • arrasate@ventaion.com



### KONTSULTATU GURE ESKAINTZA BEREZIAK!

Zure neurrira egindako  
finantzaketarekin

# Argitasun handiko etxebizitzak Lorentxokon

Grupo Eibarrek Lorentxoko promozioko azken faseko etxebizitzak dauzka salgai Bergaran, Ernai kalean. Bi eta hiru gelako hemezortzi etxebizitza dituzte; zoru erradiatzailearekin, elektrotresnekin eta horma-armairuekin jantzita daude

Sektorean esperientzia handia eta 50 urteko ibilbidea daukan Grupo Eibar Lorentxoko promozioko azken faseko lanekin dabil Bergarako Ernai kalean.

Azken blokea izango dena hasiko dira eraikitzen laster, eta bloke horrek bi atari izango ditu. Hain justu ere, azkenengo bloke horrekin, Ernai kaleko etxebizitzak bukatuko dituzte, eta orain, lehenengo atariko etxebizitzak ari dira komertzializatzen. Guztira, hemezortzi etxebizitza izango dira, bi eta hiru gela izango dituzte, eta atiko duplexak ere badituzte tartean. Dagoeneko egin dituzte salmenta batzuk.

## Etxebizitzen ezaugarriak

Hasiera-hasieratik etxebizitzak nahiko jantzita joango dira; izan ere, alde batetik, zoru erradiatzaileak izango dituzte guztiek. Horrez gain, sukalde guztietan etxetresna elektrikoak jarrita egongo dira. Eta, gainera, geletan horma-armairuak ere sartuta egongo dira. Etxebizitza guztiek bi komun dituzte. Baita terraza dotoreak ere.

Tamainari dagokionez, bi edo hiru logelako etxebizitzak dira. Gainera, badaude baita ere beheko solairu batzuk, azpian espazio handia daukatenak argiarekin eta aireztapenarekin, eta toki horiek askotariko dis-

tribuzio aukerak ematen dituzte, gainera.

## Garaje aukera

Garajeei dagokionez, egongo dira ohiko marradunak, garaje itxiak, marra edota garaje itxi bikoitzak eta trastelekuak. Etxebizitzen azpian bertan, atarian, egongo dira trastelekuak, eta behean, garaje eta trasteleku gehiago ere bai, igogailuarekin etxebizitzara konektatuta egongo direnak.

## Argitasun handia

Etxebizitza batzuetara hiru aldetatik sartuko da argitasuna, eta orientazio aldetik, oso egokiak



Grupo Eibarren Lorentxoko promozioko.

dira. Eguzki eta argitasun askoko etxebizitzak izango dira, egunerokotasunerako aproposak.

## Kalitate handiko etxebizitzak

Kalitateari eta prezioari begiratuz gero, maila handiko etxebizitzak dira Grupo Eibarrek Lorentxokon eskaintzen dituenak. Bergarako merkatuko etxebizitzarik ikusgarrienak eskaintzen dituzte: pertsonalizatuak, kalitatezko detaileekin eta talde handi baten bermearrekin.

*Grupoeibar.com* webgunean etxebizitzen plano guztiak des-

karga daitezke, ikusteko. Informazio gehiago nahi izanez gero, Grupo Eibarrera deitu, 618 61 45 41 telefono-zenbakira, edo, bestela, bulegotik pasatzeko hitzordua eskatu lasai.

Aurretik ere Lorentxokon Grupo Eibarrek egindako etxebizitzak daude Bergarako Ernai kalean. Gipuzkoan eta Bizkaian etxebizitza ugari ere egin dituzte urte hauetan guztietan, eta, esperientzia handiko enpresa denez, bezeroei beti bezala onena eskaintzeko lanean jarraitzen dute.

# Kalitate handiko etxebizitzak Antzuolan

Ortuzal Promociones SL enpresak Antzuolako Kalebarren 18an hiru logelako hamaika etxebizitza dauzka; balkoi zabal, sukalde ekipatu eta zoru erradiatzaile eta freskagarriarekin. Kalitate goreneko materialekin egindakoak dira, gainera

Antzuolako Kalebarren 18an kokatuta dauden etxebizitzen promozioaren komertzializazioarekin dabil Ortuzal Promociones SL, sektorean esperientzia handia duen enpresa.

## Kalitate handikoak

Hiru logelako hamaika etxebizitza eskaintzen dituzte Kalebarren, eta hauek dira haien ezaugarri nagusiak: balkoi zabalak, sukalde hornituak, garajeak, trastelekuak eta aeroterminia-instalazioa dituzten kalitatezko etxebizitzak direla. Detalle bakoitza zaintzeaz arduratzen dira Ortuzal Promociones SL enpresakoak, izan ere, bezero

bakoitzak bere ametsetako etxea izan dezan lan egiten dute.

Material onekin egindakoak dira. Ortuzal Promociones SL enpresak, haren sustapenean, ingurumenaren eta bezeroaren aurrezkiaren aldeko apustua egiten du, eta, horregatik, aeroterminia bidez lortutako ur beroa eta zoru erradiatzaile eta freskagarriak dauzkate etxebizitzek.

Diseinu moderno eta selektiboarekin ikus daitezke gune komunitarioak ere, eta oso erakargarri jantzita daude, gainera.

Sukaldeak guztiz hornituta daude, izan ere, etxetresna guztiekin hornituta dator. Etxe guztiek bi komun dituzte, eta

logela bateko armairua ere jarrita dator.

Gainera, trastelekua ere badute etxebizitzek, goiko aldean, eta igogailuarekin konektatuta egongo dira, bezeroen erosotasunerako.

## Ingurune paregabean

Ingurua ere primerakoa da; izan ere, Kalebarrengo musika kiosko berriko plazara ematen dute etxebizitzek, eta bista egokiak dituzte. Antzuolako erdigunean dago, gainera, ibaiaren ondoan eta alde zaharretik oso gertu.

Paisaia menditsu batean egoiteak edertasun natural handiko parajeak ezagutzeko aukera



Ortuzal Promociones SL enpresaren Antzuolako promozioko.

eskaintzen du, eta Kalebarrengo etxebizitza horiek berri-berriak dira eta estreinatzeaz daude.

## Kontaktua

Ortuzal Promociones SL enpresan duten esperientziarekin,

modu profesionalen lanean jarraitzen dute, bezero bakoitzak bere ametsetako etxea izan dezan. Informazio gehiago behar izanez gero, deitu 943 76 11 18ra edo kontsultatu *Grupooortuibar.com* webgunea.

# Puntako etxebizitzak San Andres auzoan

Bestelako etxebizitza eredu bat eskaintzen du Neinor Homes-ek, Arrasaten dagoen San Andres Homes sustapenarekin. Pertsonen beharretara egokitzen diren etxebizitzak dira, denen bizi-kalitatea bermatzeko beharrezko zerbitzu guztiekin

Arrasateko hiri-bizitzan mugari den etxebizitza proiektua da Neinor Homes-ek Araba etorbideko 0 zenbakian egin duen San Andres Homes. Eraikin moderno batean integratutako 120 etxebizitza ditu sustapenak, sei ataritan banatuta.

Pertsonen nahietara egokitutako proiektua da. Horrenbestez, etxebizitzak bi, hiru edo lau logelakoak izan daitezke, beharren arabera. Ohiko pisuez gain, etxabeak eta atikoak ere eskuratu daitezke, hala nahi izanez gero. Gainera, etxebizitza guztiek dituzte terraza zabalak, jabeek kanpo-espazio paregabea izan dezaten.



San Andres Homes etxebizitzak, Arrasaten.

## Ezaugarri hobezinak

Urbanizazio itxia du San Andres Homesek; bizilagunendako lasaitasuna eta espazio zabalak bermatzen ditu. Gainera, bizikletak uzteko eremu propioa du, bizi estilo jasangarri eta osasuntsua sustatzeko. Etxeko txiki-entzako gozamenarako, berriz, haurrentzako gune bat ere badu etxebizitza proiektuak, haiek lasaitasun osoz jolastu daitezten.

Bizilagunek erabilera esklusiboko gourmet-gela bat eta gimnasioa ere izango dituzte eskuragarri, bizi-maila paregabea bermatuta izan dezaten. Horrez gain, 240 garaje-plaza ditu San Andres Homesek, bi plazako itxiak zein irekiak aukeran. Sotoan kokatutako trastelekua ere izango dute eskuragarri etxejabeek.

## Amaituta daude

San Andres Homesek duen beste abantailetakoa bat da erabat amaituta dauden etxeak direla, erosi ahalaz bat bertan bizitzeko prest daudenak. Erosleek giltza eskura jasoko dute, zuzenean haien kalitatezko akaberaz, espazio argitsuaz, terrazaz eta

zerbitzuez inolako itxaronaldirik gabe gozatu ahal izan dezaten.

Neinor Coverliving aseguruaren onuraduna da sustapen hori. Aseguru horrek hipoteka-kuota ordaintzea bermatzen du, enplegu galtze, aldi baterako ezintasun edo ospitaleratze kasuetan norberak etxeaz inolako kezkarik gabe gozatu ahal izan dezan.

## Pilotua bisitatzeko aukera

Pisu pilotu bat ere instalatu du Neinor Homesek, interesa duen edonork etorkizunean izango duen etxebizitza ikusteko aukera izan dezan. Erabat prestatutako etxebizitza da ikusgai dagoena, egoiliarrek aurrerantzean izango duten etxearen kalitatea konprobatu dezaten.

## Kontaktua

Neinor Homesekin harremanetan jarri edo informazio gehiago eskuratu nahi duenak hainbat bide ditu eskura: alde batetik, 900 11 00 22 telefonora deitu daiteke, edo [neinorhomes.com](http://neinorhomes.com) atariaren bidez kontaktatu. Bestalde, Maalako Errabala Aldeko 33. zenbakian dagoen Neinor Store-ra ere joan daiteke.

## Etxebizitza efiziente, eroso eta osasungarriak

## Barandiaran

• berrikuntzak | • materialak | • berriztagarriak



# Bezeroen beharretara egokitutako diseinuak

Ugarte Aroztegiak Bergarako Ikerleku kalean dauka denda, eta aldaketa handia egin dute bertan: argiztapena, altzariak eta pintura aldatu dituzte. Gaur egungo altzari berriak izango dituzte ikusgai dendan, bezeroei diseinu aproposenak erakusteko

Etxea dekoratzeko altzarien eta bestelakoen bila dabilenak Bergarako Ugarte Aroztegiara joan besterik ez du, bezeroen beharretara egokitutako diseinu pertsonalizatuak egiten baituzte bertan.

## Denda guztiz berritua

Ikerleku kalean daukaten denda goitik behera berritu dute. Uztailean hasi ziren lanak, eta laster izango dute prest erakusleiho guztiz berritua. Horren helburua izan da hemendik aurrera ere bezeroei duten eskaintza onena erakusten jarraitzea. Horretarako, esaterako, dendako argiztapena eta pintu-

ra berritu egin dituzte. Eta, gainera, altzari berriak jarri dituzte bertan ikusgai, gaur egungo joerak kontuan hartuta, bezeroek zuzen-zuzenean horiek ikusi eta ukitzeko aukera izan dezaten.

Gainera, bezeroekin harreman zuzena eta gertukoa eskainiko dute, orain arte bezala.

## Diseinu pertsonalizatuak

Ugarte Aroztegiaren bezeroekin duten aurrez aurreko harreman horrek dakar kontuan hartzen dituztela bezeroen beharrak, eta, horren arabera, duten jakintzarekin eta esperientziarekin, proposamen egokienak

egiten dizkiotela bezero bakoitzari, norberaren gustu eta beharrak kontuan hartuta.

Bezeroek eskura dituzten espazio guztiak aprobetxatzen dituzte, zentimetro bakoitza baliatuz eta uneko joera berriei arreta berezia jarrita, hala nola materialei, koloreei, ehundurei eta dekorazioari dagokienez.

Horretarako, esan bezala, aurrez aurreko harremana dute bezeroekin, dituzten nahiak ahalik eta ondoen ezagutzeko. Altzariak bete beharreko lekua, neurriak, betebeharrak eta eskura duten aurrekontua ere aztertzen dituzte, jarraibide estetiko batzuk jarraitzearekin



Dekorazio-proiektu pertsonalizatuak egiten dituzte; argazkikoa, adibidez.

batera, azken emaitza ahalik eta egokiena izan dadin.

## Aroztegiaren eginkoak

Aroztegiaren berriz, neurriaren egindako altzarietaz gain, beste lan batzuk ere egiten dituzte:

lurzoruak, ateak, leihoak eta armairuak, esaterako. Hain zuzen, bezeroen eskakizunetan oinarritzen diren produktuetan eta neurriaren egindako altzari eta lanetan datza Ugarte Aroztegiaren berezitasuna.

**Gure loretxoko**  
bizigune berria

**Prezioak 240.000 €-tik aurrera**  
(BEZ gabe)

**TERRAZAK MENDEBALDEAN ETXEBIZITZA GUZTIETAN**

**SERIEKO LURZORU ERRADIATZAILEA**

Irudi birtual ez-lotesleak

BERGARA
[www.lorentxoko.com](http://www.lorentxoko.com)
**Amaiara bikaina**

**grupo eibar**  
inmobiliario  
[www.grupoeibar.com](http://www.grupoeibar.com)

Posta elektronikoa: [comercial@grupoeibar.com](mailto:comercial@grupoeibar.com)

**GRUPO EIBAR-EN BULEGOA: 943 31 66 11**

**Email 1 • 20570 BERGARA. 618 61 45 41**

# GILTZA ESKUAN

Estreinatuz zure etxea eta gozatu zure  
bizitza berriaz lehen egunetik



**BISITATU PISU PILOTUA**

Bizikleta-aparkalekuak • Jolasguneak • Gourmet aretoa • Gimnasioa

**EZOHIKOA ZURE - ZUREA**



**Neinor Store:** Maalako Arrabala, 33 (Arrasate)

**900 11 00 22 • [neinorhomes.com](https://neinorhomes.com)**

# Etxebizitzen eta baserrien berritze integralak

Pisuen, familia bakarreko etxeen eta baserrien eraberritze integralak egiten ditu Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunean dagoen Ekitermik kooperatibak, eta obrako prozesu guztiaz arduratzen da. Bezeroak ez dezan ezertaz kezkatu behar, *giltza eskura* zerbitzua da Ekitermiken berezitasunetako bat. Proposamen bat egiten diote bezeroari, eta, onartu ostean, gainontzeko urratsez arduratzen dira, hala nola proiektuak egiteaz, dirulaguntzak eskatzeaz eta gremioak kudeatzeaz. Bezeroak dekorazioa

hautatu behar izaten du, baina, osterantzean, ez du zereginenez arduratu beharrik.

## Eraginkortasun energetikoa

Ekitermikerek helburu du bezeroen etxebizitzak berritzea, horretarako efizientzia energetikoa tresnatzat hartuta. Egiten dituzten proiektu guztietan beti hartzen dute kontuan eraikinaren alderdi energetikoa; etxebizitzak egunerokotasunean ahalik eta energia gutxien kontsumitu dezan soluzioak ematen ditu lanaldeak. Alegia, eskaintzan beti

dute etxebizitzaren eraginkortasun energetikoa hobetzeko neurrien proposamen bat. Askotariko instalazioak, elementuak eta materialak eskaintzen dituzte, hori baita eurek duten lan egiteko modua, azken hitza bezeroak badu ere.

## Instalazioak

Instalazioei dagokienez, etxebizitza pasiboetan dute jarria arreta azkenaldian. Askotarikoak dira energia aurrezteko moduak, hala nola leihoak eta isolamendua, baina badira



Ekitermiken proiektuetako bat.

gehiago ere; esate baterako, aerotermia instalazioak egiten dituzte, zoru erradiatzailearekin konbinatuz. Alabaina, orain, beste lamina bat jartzen hasiak dira etxebizitzetan, hermetikoagoak izan daitezten. Era

horretan, kontsumoa jaitea dute helburu, berogailuarena ia nulua izateraino. Orain arte, familia bakarreko etxebizitzetan jarraitu izan dute prozesu hori, baina orain, pisuetan ere hasiak dira lanean.

# Aukera oro, askotariko osagarri eta akaberekin

Ion Ateak eta Leihoak ingurumenarekin erabat konprometitu dagoen enpresa bat da, eta, horregatik, erabiltzen dituzten produktuak kalitate eta eraginkortasun estandar gorenen barruan daude.

1994an sortu zen enpresa, eta beti egin dute lan lehen mailako markekin eta produktuekin. Hala, esperientzia zabala dute aluminiozko arotzeriaren sektorean, eta soluzioen aukera sorta zabala eskaintzen dute, gainera. Batez ere, arotzeria lanetan, egituretan eta itxiture-



Ion Ateak eta Leihoak-en lanetako bat.

tan euren soluzioak prestatzen dituzte bezeroentzat, Arrasaten duten dendan.

## Merkatuan hedatzen

Aluminiozko, PVCzko eta poliuretanozko leihoen fabrikazioa eta instalazioa izan ziren euren hastapenak, eta orduz geroztik euren bezeroen konforta eta energia aurrezteko hobetzeko lanean aritu dira. Hedatzen ere joan dira, eta zur-arotzeriako atal bat ere ezarri dute. Ateekin, zoruekin eta armairuekin hasi ziren, hala, bezeroak askoz errazago izan zezan bere etxea berritzea; euren eskaintzen artean, merkatuan une bakoitzean dauden aukeren artean aukeratzen ematen diete. Horren baitan, arreta profesional pertsonalatu eskaintzen dute, eta tratua eta aholku onak; izan ere, haien

beharrei erantzuten saiatzen dira.

## Ekologikoaren alde

Erabiltzen duten materiala askotarikoa da, eta guztiak dira homologatuak eta lehen mailakoak. Ematen duten zerbitzu aukera ere zabala da, eta kalitate eta prezio erlazio egokia eskaini dezakete, euren bezero guztien poltsikoen onurarako.

Klima aldaketak pentsarazten die zer ekarpen egin dezaketen enpresa gisa, etxebizitzaren emisioak are gehiago murrizten laguntzeko, eta, horretarako, proiektu bati ekin zioten. Proiektu horren helburua da etxebizitzak produktu erabat ekologikoekin isolatzeko modu ekonomiko baina eraginkorra lortzea, eta bakoitzari irtenbide egokia ematea, premiaren arabera.

**UGARTE**  
AROTZEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak  
Horma-Armairuak  
Altzariak neurria  
Ateak · Eskailerak ·  
Leihoak · Tarimak ·  
Egur lanak

**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 03 46 30

**AROTZEGIA**  
San Juan 1a  
Tel.: 943 76 54 91

**BERGARA**  
aroztegia@ugartearoztegia.com





# SALTOKI HOME

Sukaldea | Zeramika  
Altzariak | Komuna  
Argiztapena



# Arkitekturaren eta barne diseinuaren aldeko hautua

Sukaldeko tresnerian eta haien eraberritzean oinarrituta, 1989an sortu zen Iker Sukaldeak enpresa, Arrasaten. Urte batzuen buruan, Urretxu eta Oñatira hedatu zen enpresa, eta, orduetik, sektorean indarra duen enpresa bilakatu da. Fagorrek eskaintzen zituen sukaldeko altzariekin lan egiten zuten hasieran, baina orain DICA Errioxako enpresa da euren banatzailea. Aldaketa hori baliatu zuten etxe osoko altzariekin lanean hasteko, eta gaur egun ere horretan dihardute. Enpresako arduradunek

diotenez, "bezeroa asebetetzea" da euren helburu nagusia, eta, horretarako, eskura dute "produktuen katalogo zabal bat, non sukaldeko altzarietaz gain, gainontzeko espazioak hornitzeko era guztietako altzariak" dauden ikusgai.

## Arrasaten eboluzioa

35 urtean zehar sukaldeko altzarietan adituak izan ostean, 2024an ideia berrieekin lanean hastea erabaki du Ikerrek. Oñatiko eta Urretxuko egoitzean orain arteko ildo beretik

jarraituko badute ere, Arrasaten bilakaera bat izan dute bertan eskaintzen dituzten zerbitzuek; izan ere, ohiko sukaldeen, armairuetan eta etxe altzarietaz gain, arkitekturaren eta barne diseinuan oinarritutako zerbitzua eskaintzen dute.

Eskaintza hori bermatzeko, arkitekto eta barne diseinatzailez osatutako lantalde berria sortu dute, eta etxebizitzaz haratagoko lanak eskaintzen dituzte; besteak beste, etxebizitza edo lokalen zaharberritze integralak eta era guztietako erabe-



Dica espazioa.

erbitzuek. Hala ere, ez da ahaztu behar sukaldeko altzarietan, armairuetan eta etxe gainontzeko altzarietan adituak izaten jarraitzen dutela, ideia berrieekin osatutako zerbitzuak eskainiko dituzten arren.

Ikerren eboluzioaren ametsa dute sostengu, eta hazten jarraitzeko apustua egin dute. Zerbitzu integralak, obrak, gremioen koordinazioak eta proiektu konpletoagoak daude euren lanen artean.

# Etxebizitza efiziente, eroso eta osasungarriak

Barandiaran Berrikuntzak Goierriko enpresa bat da, etxebizitzaren eta lokalen eraberritze-lanetan 40 urte baino gehiagoko esperientzia duena. Espezialistak dira etxebizitza efiziente, eroso eta osasungarriak berritzen.

## Prozesu osoko zerbitzua

Berrikuntza prozesu osoa eskaintzen dute, hasieratik bukarara, eta pertsonal aditua dute: iturgintzako, gaseko, ACSko eta berogailuko instalatzaile baimenduak, arkitekto teknikoa, barne diseinatzailea, gremioen



Barandiaran Berrikuntzak enpresak berritutako egongela bat.

koordinatzaileak eta bezeroen arreta emateko taldea, hain zuzen. Bezeroen beharrak asetzeko konpromisoa eta motibazioa duen talde profesionala da. Gainera, erakusketa handi bat dute, non material guztiak aukeratu daitezkeen.

Erantzukizunean eta kalitatean oinarrituta, bide luzea egin dute etxebizitzaren eraberritzean. Etxebizitza efiziente, eroso eta osasungarriak berritzen dituzte, kontsumo ia hutsekoak. Horretarako, Passive Haus institutu ofizialak kreditatutako pertsona dute.

## Passiv Haus etxebizitzak

Kontsumo ia hutseko etxebizitza horiek klima-baldintzarik onenak mantentzeko sortuak dira, eta %70 eta %90 arteko energia-aurrezkiak eskaintzen dituzte, ohi-

ko etxebizitzaren aldean. Etxe pasibo horiek ez dira onak ekonomia-arloan soilik; izan ere, gizarte- eta ingurumen-arloan ere onurak dakartzate; izan ere, euren joera energia berriztagarrietara doa. Azterlan askok baieztatzen dute etxe mota horietan bizi direnek osasunean izaten duten onura; material naturalak, eguzkiaren argia eta aire-berriztapena erabiltzeagatik. Etxebizitza horiek oinarritzko bost baldintza bete behar dituzte: isolamendu termikoa, zubi termikoak ezabatu, iragazgaitasuna, aireztapen mekanikoa eta leiho eraginkorrak.

Barandiaran Berrikuntzak enpresan beharrezko baliabide guztiak dituzte baldintza horiek betetzeko, baita tresna eta erreminta egokiak ere, eraikuntza-prozesu osoa egiaztatzeko.

**eki** termik  
efizientzia energetikoa

Eskatu aurrekontua  
konpromisorik gabe!

**ETXEBIZITZA BERRIZTU BEHAR AL DUZU?**

Efizientzia energetikoa hobetzeko esku-hartzeetan espezializatutako lan taldea

**BASERRI ZEIN ETXEBIZITZA ERREFORMA INTEGRALAK**



# ANTZUOLA

## Ezagutu zure etxe berria

**%100**  
Aeroterminia

Kalitate handiko akaberrak, 3 logela eta kokapen pribilegiatua, Errota-Berriko gure etxebizitzak zain dituzu.

Berokuntza eraginkorra zoru erradiatzaile eta hozgarriarekin, eskura dauden zerbitzu guztiekin. Trastelekuak barne.

**ORTUZAL PROMOCIONES S.L.**  
GRUPO ORTUIBAR



+info T. 943 761 118  
[www.grupoortuibar.com](http://www.grupoortuibar.com)

Saltoki Home enpresako *showroom*-ean dagoen sukalde bat.*Showroom*-eko bainugela-diseinu bat.

# Saltoki Home: barruko diseinua eta abangoardia

Promotoreei, eraikitzaileei, barne-diseinatzaileei eta partikularrei zuzendutako zerbitzua eskaintzen du Saltoki Home enpresak. 'Showroom'-aren bitartez, azken belaunaldiko kalitatezko diseinuak dituen espazio abangoardista eskaintzen dute

Saltoki Home enpresan modu paregabean bizi dute interiorismoa; diseinuaren abangoardiaren eta berrikuntzaren alde egiten dute. Euren *showroom*-a Kataide industrialdean dago, eta inspirazioa eta kalitate handiko konponbideak gura dituztenentzat pentsatuta dago. Interiorismoa lehen pertsonan senti daiteke, promotorea edo

eraikitzailea, barne-diseinatzaile profesionala edo partikularra izan. Euren taldeak gidatu eta aholkatuko zaitu, irtenbiderik onena emateko. Euren *showroom*-ean inspirazio-iturri izateko aukera dago, norbere ideia eta proiektu integralei bizia emateko. Bertan aurkitu daitezkeen sukaldea, bainugela, Hönnun markako eta nazioarteko disei-

natzaile ospetsuenetako altzari garaikideak, zoladurak, estaldurak, armairuak eta edozein interiorismo-proiektu arrakastaz osatzeko argiztapen teknikoko zein dekoratiboko soluzio sorta oso bat.

## Hönnun bilduma oinarri

Sukaldea etxeko erdigunetzat hartzen dute, sormena eta fun-

tzionaltasuna uztartzeko gune gisa. Saltoki Homeko Hönnun bildumak neurrira egindako altzariak eskaintzen ditu, sukaldaritza propioa eta nortasun handikoa diseinatzeko. *Showroom*-etan norbere proiektueta-rako inspirazioa jaso ahal izango da, produktu eta marka esklusibo eta abangoardistei esker. Bainuaren ideia da, funtsean, une lasaigarriak eta erosoak bizitzeko. Hortik sortu zen Saltoki Homen Hönnun bainu-bilduma. Funtsezko espazio batez gozatzeko giro harmoniatsuak. Espazio intimoak, zaintzakoak, pertsonalak; labur esanda, ongizatearen ideia bat bilatzen du.

## Bezero mota guztiei zuzenduta

Promotorea izanez gero, Saltoki Homerren esperientzia eskura dago eraikuntzaren arlo guztietan. Zerbitzu integrala eskaintzen dute, ahalik eta eraginkortasun eta pertsonalizazio handiena bermatzeko. Elementu guztiak kontrolatzen dituzte, materialen akaberatik eta interiorismotik hasita aurrealde aireztatuetara eta sistema modularretara, eta instalazio bikaina ziurtatzen dute. Asmo handiko proiektuak

gauzatzen dituzte. Jarduteko ekintza-eremua interiorismo profesionala bada, *showroom*-etan behar horiei erantzun dieten langileak daude, eta euren espazioak eta profesionalak eskura egongo dira, ideiak arrakastaz gauzatu daitezten. Bainugelaren, sukaldearen, zeramikaren, altzari garaikideen eta argiztapenaren diseinua eta abangoardia. Proiektu bakoitza bakarra den jakitun dira, eta Saltoki Homen hori gauzatzeko beharrezko guztia dago. Aprobetxatu euren *showroom*-ak eta babestu euren profesional taldean. Partikularra izanez gero, proiektuei bizia ematen laguntzen dute. Badago euren *showroom*-etan inspiratzeko aukera; baita euren profesionaletan babesteko ere, norbere ideien kontzeptiotik azken xehetasuneraino lagundu ahalko baitute. Proiektu bakoitza aparteko zerbitzu sortzeko aukera bat da, eta norbere proiektuaren parte izan nahi dute. Proiektu bakoitza zerbitzu bakarra sortzeko aukera gisa ulertzen du Saltoki Homek, eta, proiektu horiek gauzatzeko, euren *showroom*-a bisitatzeko proposamena egiten dute.

## Arkitektura eta barne diseinua



Obrak eta erreformak  
Gremioen koordinazioa  
Sukaldea, armairuak, etxea

Arrasate / Urretxu / Oñati

distribuidor **dica**

943 79 00 43 / 605 772 370

# iker

@ikersukaldeak

Aiiii... ze ondo... azkenian!  
Bueno, eta oin,  
zeiñek lagunduko dosta  
hau dana txukun  
eta polit jarten?



DESKARGATU  
Play Store-n

DESKARGATU  
APP Store-n

**goienaOkmgida**

Debagoiengan baldin badago,  
hemen dago.



Goiena  
Okm Gidaren  
eskaintza osoa.



## Eskuratu **DOAN** goienakideek dituzten abantaila guztiak

Ordaindu orain 2025eko kuota, 65 euro, eta  
DOAN izango dituzu abantailak abendura arte



### Gai biziz betetako aldizkaria

*Puntua* aldizkaria, zure buzoian,  
egubakoitzero



### Otordu onenak

Debagoieneko jatetxeetan bi  
lagunendako otordua irabazteko  
aukera astero.



### Futbola bertatik bertara

Realaren partidua Reale Arena  
futbol zelaiko premium gunetik  
ikusteko zozketa jardunaldi  
guztietan.



### Hileroko zozketa bereziak

Teknologia-gailuak, jaki-otarreak,  
ikuskizunetarako sarrerak eta askoz  
gehiago! 2024an, dagoeneko 100  
goienakideek baino gehiagok jaso dute  
sari bat.



### Poltsikorako abantailak

Deskontuak Debagoieneko hainbat  
komertziotan eta Arrasateko Avia  
gasolindegian.



### Deskontuak Goienako zerbitzuetan

Eskelak, iragarki sailkatuak...



### Lehentasuna aldizkarietan

Inork baino goizago, *Goiena* eta  
*Puntua* aldizkariak, eguenetan,  
00:00etarako irakurtzeko aukera  
aplikazioan.



### Kalitate onena

Goienako argazki-galeriak eta  
bideoak kalitate handian eta  
ur-marka barik deskargatzeko  
aukera.



### Eta, gainera, onura fiskalak

Errenta aitortpenean, Goienarena  
lehentasunezko jarduera delako,  
%30eko hobaria.

goiena<sup>™</sup>  
kide

Okm: batzen gaituen distantzia

Egin zaitez  
goienakide:  
943 25 05 05

Deitu eta  
eman izena!



INFORMAZIO GEHIAGO

# Pintxo eskaintza berezia izango da domekan

Aspaldiko urteetan, Pintxo Domeka egiten dute Elgetan, eta aurten herriko bost tabernek hartuko dute parte. Jainaga eta Narbaiza trikitilariak eta argazki lehiaketa ere izango dira. Ozkarbi elkarteak, aurretik, mendi irteera egingo du, Egoarbitzara

## Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Pintxoia miniaturazko sukaldaritza da, eta Elgetako bost tabernek ahalegin handia egingo dute bezeroei ahalik eta pintxo berezien eskaintzeko domekan. Hala, 12:00etan hasita, pintxo ibilbide gastronomikoa egiteko aukera izango da herrian; izan ere, gutxienez pintxo berezi bana eskainiko dute Bolatokiko, Hai-zeako, Janelako, Lolako eta Maialdeko ostalariek.

Bost geldialdikoa izango da, hortaz, aurtengo Pintxo Domekako ibilbidea. Badago jakin-mina herriko ostalariek aurten egingo dituzten berrikuntzak eta asmatuko dituzten pintxo maila ikusteko.



lazio Pintxo Domekako pintxo bat. IMANOL SORIANO

## Pintxoak, 2 eurotan

Pintxo salmenta prezioa 2 eurokoa izango da, eta bezeroei pintxo bakoitzaren osagai guztiak zeintzuk diren asmatzeko erronka jarriko zaie aurten ere. Asmatzen dutenen artean bost sari zozketatuko dira; bat taberna bakoitzeko. Garrantzitsua da, beraz, pintxo bakoitza dastatu ostean osagaien zerranda osatzea. Saria, herriko ostatuetan erabilgarri izango diren 20 euroko bost txartel.

Eguerdiko txikiteoa alaitzeko eta Pintxo Domeka girotzeko,

## 20 EUROKO BOST TXARTEL BANATUKO DITUZTE PINTXOEN OSAGIAK ASMATZEN DITUZTENEN ARTEAN

trikiti doinuak iragarri ditu Udalak. Herrian aski ezagunak diren Adolfo Jainaga eta Unai Narbaiza ibiliko dira tabernaz taberna. Plazan emango diote hasiera Pintxo Domekako kalejirari, eta, bata bestearen atzetik,

herriko bost tabernetan eskainiko dituzte hainbat pieza.

## Ozkarbi mendi irteera

Pintxoetarako gosea egiteko, aukera ona da mendi buelta batean parte hartzea. Ozkarbi elkarteak Egoarbitzarako txangoa antolatu du, domeka goize-rako, azaroko egitarau bereziaren baitan. Ozkarbi bazkide gazteendako ekintza da. Taldea 10:00etan elkartuko da, plazan, eta elkarrekin egingo dute ton-torrerainoko joan-etorria. Ez dago zertan izena eman.

## Bakarkako lehen diskoarekin dator Xabier Badiola Ozkarbira

Folk doinuak izango dira nagusi gaur musikari eibartarrak 19:30ean egingo duen kontzertuan

## L.Z.L. ELGETA

Goibekok eta Ozkarbi gonbidatuta, *GH-32ILP* diskoa aurkeztuko du Badiolak Elgetan. Eibartarra rock psikodeliko eta progresibo anglosaxoniarrereko talde elektrikoetan aritu izan da orain arte; tartean, Bilboko Sotomonte bandan. Pandemiaren etenak, ordea, kantu propioak sortzeko abagunea eskaini zion. Hala, kalean du euskaraz abestutako hamar kantuz osaturiko lana. Etxean grabatu, nahastu eta masterizatutakoa da, eta Gaztelupeko Hotsak zigilupean ateratakoa. "Doinu xuxurlari eta pittin bat psikodelikoak gitarra soil batez interpretatzen dituen artista baten aurrean gaude", azaldu dute diskoetxeek.

"Bakarka aurkezteak errespetua ematen du", dio Badiolak, baina pozik da jasotako lehen harrerarekin. Oso gustuko du 60ko hamarkadako revival folka, eta antzeman egiten da diskoan. Nick Drake eta Mikel Laboa musikarien eragina sumatzen da bertan.

Kontzertua 19:30ean hasiko da. Sarreraren prezioa 5 euro da -3 euro Goibeko elkarte bazkideendako-.



Xabier Badiola. ENEKO P. ARNAIZ

## Garuna lantzeko tailerrerako izen-ematea zabalik dago

Ikasturte honetan ere, garuna aktibo mantentzeko eta garapen pertsonala lantzeko tailerra antolatu du Elgetako Udalak. Adimen kognitiboa estimulatu nahi duten adineko pertsonendako tailerra dela azaldu du gizarte laguntzaile Ainara Gabilondok. "Beste urte batzuetan izan duen arrakasta ikusita, aurten ere antolatzea erabaki du Gizarte Ongizate Sailak", esan du. Azaroaren 20tik otsailaren 5era bitartean izango da tailerra, eguaztenetan, 10:30etik 12:00etara, kultura etxean. Hamar saio izango dira, zerbitzua doan da eta interesatuek udaletxera jo behar dute izena emateko. 943 76 80 22 da zenbakia.

## OHARRAK

### Ipuinen Ordua gaur

Liburutegian, 17:30ean hasita, umeendako hiru saio, kontulari boluntario taldearen eskutik.

### Podologoa

Azaroko kontsulta astelehenean izango da. Txanda hartzeko: 653 74 19 64 (Uri Gallego).

### 'Hil arte bizi' saioa

Heriotzari buruzko saioa, Nere Erkiagarekin. Hilaren 21ean, 18:30ean, liburutegian.

### Irteera eta baba-jana

Kantsatzekek antolatuta, hilaren 24an, mendi irteera eta baba-jana. Izen-ematea zabalik, hilaren 21era arte.

## Argazki lehiaketa berriz jokoan

Pintxo Domekarekin lotuta joango da argazki lehiaketa aurten ere. Udazken koloreak hartuta daude inguruak, eta Elgetako Udalak lau gai proposatuko ditu parte hartzaileek argazkiak atera ditzaten. Argazki lehiaketan parte hartu nahi dutenek 11:45etik aurrera eman beharko dute izena, plazan.

Udalak 12:00etan emango du lehiaketarako aukeratutako gaien berri, eta argazkilariek lau orduko tartea izango dute argazkiak atera, aukeraketa egin eta lauko sorta aurkezteko; argazki bat gai bakoitzeko. 16:00etarako aurkeztu beharko dira.

Sari bakarra egongo da jokoan: 50 euroko balioa duen txartela Elgetako komertzioetan erabiltzeko. Hala, sorta onenari emango dio saria epaimahaiak.

## Domekako ekintzak

- **10:00** Mendi irteera Egoarbitzara, plazatik abiatuta.
- **12:00** Pintxo bereziak 2 eurotan, eta Jainaga eta Narbaiza trikitilariak tabernaz taberna.
- **12:00-16:00** Argazki lehiaketa. Izen-ematea: 11:45ean, plazan.



Barrenkalea, San Martin plazatik begiratuta. GOIENA

# 1,6 milioi euro eta hamar hilabete Barrenkalea kalea urbanizatzeko

Barrenkaleko lanak 2025aren hasieran hasia aurreikusten da eta Bergarako Udalak kale hori urbanizatzeko lanen lizitazioa lehiaketara atera du; interesatuta dauden enpresek azaroaren 18ra arte aurkeztu ahal izango dituzte euren proposamenak

**Idoia Aranbarri Arzuaga** BERGARA Goenkalerekin hasi ziren Bergarako alde zaharra urbanizatzeko lanak. 2005ean egin zituzten Arruriaga eta Artekalea kaleak urbanizatzeko lanak. 2008an, berriz, San Pedro kalea; eta datozen hilabeteetan egingo dituzte Barrenkalea, San Martin plaza eta Bidekurutzeta urbanizatzeko lanak. Bergarako Udal Gobernuaren 2027ra arteko helburuen artean proiektu garrantzitsuenetako bat da Barrenkalekoa, eta badirudi hilabete gutxi barru hasiko direla lanean. "Proiektu hau lotuta dago erabat komertzioa eta alde zaharra biziberritzeko helburuarekin. Ez da kasualitatea plazaren eta Barrenkaleren berritzea planteatzea orain, alde zaharra suspertzea estrategiko ikusten badugu baditugulako aurrez egin beharreko etxerako lanak;

horregatik, agintaldi hasieran ekingo diogu obra horri, agintaldiko bigarren partean ekimenak antolatu ditzagun; Bidekurutzetako esku-hartzeak aurrerago etorri beharko luke", zioen Bergarako alkate Gorka Artolak, martxoan, Goiena telebistako *Harira* saioan.

**Lanen lizitazioa martxan da** Bergarako Udalak dagoeneko lehiaketara atera du Barrenkalea urbanizatzeko lanen lizitazioa, eta interesatuta dauden enpresek azaroaren 18ra arte izango dute aukera euren proposamenak

**BEB ARKITEKTOEK 2017AN IDATZITAKO PROIEKTUAN OINARRITUTA EGINGO DIRA BERRITZE-LANAK**

aurkezteko. 1.600.570,26 euroko exekuzio-aurrekontua du -BEZA barne- eta lanak 2025eko urte hasieran hasia aurreikusten da. Obrak egiteko epea lanak hasi eta hamar hilabetera amaituko da, lizitazioaren pleguan jasota dagoenaren arabera.

Bergarako BEB Arkitektoak SLk 2017an idatzitako proiektuan oinarrituta egingo dituzte berritze lanak, San Martin plazatik hasi eta Masterreka kalearekin elkartzeko den arte, hiru zatitan banatuta. Lehen zatian Barrenkalea hartzen du, Irizar kalearekin eta Arrese kantoiarekin bat egiten duenetik Masterrekaraino; bigarrena, San Martin plazatik Irizarrekin bat egiten duen tokira; eta hirugarrena Egin Mallea eraikinaren plaza eta Irizar jauregiko lorategiarekin duen lotura hartzen ditu.



Vaumm Arkitekturak diseinatutako San Martin plazaren proposamena. VA

## Plazaren proposamena, hautatuta

2019ko martxoan San Martin plaza eraberritzeko proposamenak jendaurrean aztertu, eta Bergarako eragile nahiz herritarrek ekarpenak egin zituzten. Proposamen haietatik, Vaumm Arkitektura enpresak diseinatutakoa hautatu zuten. Plazari berrantolaketa berria egin eta espazioak hobeto erabilteko proposatu zuten, guztia altuera berean jarriz eta alde zahararekin erabat ezkonduz; gainera, plaza inguratuz herriko historiari buruzko aipamenak gehituta. "Herritarrek eta eragileek ez dute gaur egungo plaza askorik aldatzea nahi; eta bat egin dute plazari bizitasun eta argitasun handiagoko ematearekin; autoen presentzia murriztearekin eta ondare gisa zaindu eta erabiltzearekin", zioen orduko Udal Gobernuak (EAJ). Vaummek GOIENARI adierazi dio 2022an entregatu ziola Bergarako Udalari San Martin plazaren exekuzio-proiektua.

### Irigarritasuna hobetzea

Bergarako Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Berezia zehaztutako diseinu-irizpideei jarraituz egingo dira urbanizazio lanak. Artekalearen antzeko itxura izango du eta koskarik gabeko kalea izatea planteatzen dute BEB Arkitektoek. Kalearen alde bakoitzean espaloia markatuko da, erdian galtzada izanda.

Gainera, gaur egun Barrenkaleko atarietako eta komertzioetako sarreretan dauden desnibelak "ezabatzea edo, behintzat, gutxitzea" da asmoa. Egin Mallea plazan ere gauza bera egitea aurreikusten da. "Plaza horretako merkataritza-lokale-tara sartzeko mailak kendu dira, eta, horretarako, harmaila berriak sortu dira, eta lokal horien aurrean eta Irizar jauregiko lorategietatik gertu dauden eremuetan urbanizazio-kotak aldatu dira. Horiek ere egokitu egin

behar dira. Barrenkalea kalearen eta Egin Mallea plazaren arteko desnibela kendu da", jasotzen du proiektuak. Egin Mallea plazara sartzeko koskak ere kentzea proposatzen dute, eta Barrenkaleko azpiegitura-sareak berritzea.

Halaber, materialari dagokionez, nahiz eta hasierako proiektuan lurreko harlosak kareharritzkoak izatea planteatu, 2014ko urriaren 14ko aurrekontu eguneratuan jasotzen da granitoa erabiliko dutela. Horri beste bi proposamen gehitu dizkiote: "San Martin plazatik hasita Arrese kantoiraino, gutxienez, DN800eko euri-uren hodia jartzea proposatzen da. Haren hasierako kota San Martin plazatik etorriko den hodiarekin konektatzeko prestatuta utziko da. Arrese kantoitik Boluko ubideraino, gutxienez, DN800eko euri-uren hodia jartzea proposatzen da, Koldo Eleizaldetik eta Artekaletik etortzen diren euri-urak batzen direlako".

Hala, Bergarako Udalak adierazi du Barrenkaleko bizilagunekin datorren martitzenean bilduko dela, proiektuari buruzko xehetasunak emateko.

**BARRENKALEREN OSTEAN, SAN MARTIN PLAZA ETA BIDEKURUTZETA BERRITUKO DITUZTE**



# "Prostata azterketak egitea osasun sexuala da"

**LOLA DACOSTA NAZIOARTEKO 'SEX COACH'-A**

Gizonezkoek prostatako azterketak egiteari beldur diotela adierazi du Dacostak, "ahultasunaren markagatik gizentasuna bertan behera" geratzen dela uste baitute

**Idoia Aranbarri Arzuaga** BERGARA

Jabekuntza Eskoletan Lola Dacosta (Galdakao, 1978) dinamizatzailea den *Open sex* ikastaroak gizonengan ere piztu du interesa, eta, horregatik, *Sexualitatea prostatako minbizia sendatzean* tailerra eman zien atzo Irizar jauregian elkartu ziren hogeitabat gizonezkoari, Movember Gara ekimenaren barruan.

**Gizonezkoekin gutxi egiten da sexuaz; hori iruditzen zaizu?**

Ahoskatzea behar dute. Ordubeteko tailerrean, prostata zer den eta hiru arazo, *gaixotasun* azaldu dizkiet: hiperplasia, prostatita eta prostatako minbizia. Zoru pelbikoa hobetzeko mugimendua egiten erakutsi eta prostatako jolasez hitz egin dugu. Horrekin batera, ulertarazi nahi izan diet oso garrantzitsua dela osasun azterketa egitea. Gizonezko askok ez dituzte azterketak egiten eta ez dakite zeintzuk diren arrisku-faktoreak.

**Zeintzuk dira arrisku-faktore horiek?**

Adina -50 urtetik gorakoak-, diabetikoak eta sedentarisismoa. Gizon euskaldunari, sinesmen heteronormatiboak dituenari, atzerakada ematen dio takatu prostatikoaren osasun azterketa egiteak. Galdakaoko eta Gurutzetako ospitaleekin egiten dut lan, eta asko kostatzen zaie



Lola Dacosta. L.D.

horri buruz hitz egitea. Zenbait mediku kezkatuta daude, eta minbizia izan duten horiek ahalik eta ondoen sendatu nahi dute, sexu harremanak eta erektioak izan ditzaten. Gizonezkoendako arazorik handiena sexua galtze horretan dago. Askori ez zaie axola *minbizia* hitza; baizik eta sexua galtzea. **Diozu gizonezkoak beldur izaten direla prostata azterketa egiteko; noiz egin beharko lukete?**

Osakidetzak bidaltzen ditu azterketak egiteko gutunak, baina %10ek egiten du proba. Gizon

heterosexualek ez dute nahi ipurditik ezer sartzerik -proban hartza sartzen du medikuak-. Ahultasun marka daukate eta uste dute proba eginda gizentasuna bertan behera geratzen dela.

**Zer gomendio egingo zenieke zure elkarrizketa irakurtzen ari diren gizonezko horiei?**

Normalizatu dezatela; prostata azterketa egiteak ez duela esan nahi gay bihurtuko direnik, edo antzerako ezer. Osasun sexuala da. Prostataren zaintza garrantzitsua da; ugalketarekin eta gerneru-sistemarekin dauka zerikusia.

## GOGOAN

### Juan Luis Bikuña kazetari bergararra zendu da

Bikuñaren aldeko hileta elizkizuna gaur izango da, arratsaldeko zazpitan, Santa Marina parrokiari

**I.A.A. BERGARA**

Eguaztenean hil zen Juan Luis Bikuña Agirre kazetaria (Bergara, 1946), 78 urterekin. Euskal Telebistako aurpegi ezagunetakoa izan zen sasoi batean; izan ere, 1983tik 2006an erretiroa hartu zuen arte, ETBko albistegietako eta saioretako aurkezlea eta zuzendaria izan zen.



Juan Luis Bikuña zena. GOIENA

**Kazetaritza ibilbide luzea**

Kazetaritza ibilbidea *La voz de España* egunkarian hasi zuen, korrespontsal, eta, ondoren, besteak beste, *El correo* eta *Deia* egunkarietako kazetaria izan zen. Hala, 1983an ETBra egin zuen salto, eta *Teleberri*-k izan zuen lehenengo aurkezlea izan zen -lehen aldiz 1983ko abenduaren 17an aurkeztu zuen-.

ETBn eman zituen 20 urte baino gehiagotan telebista publikoko albistegietako burua izan zen, eta, hark aurkeztu eta zuzendu zituen saioren artean, esanguratsuenak dira *Punto de encuentro* eta *El punto*. Azken programa horretan, 1.400 elkarrizketa baino gehiago egin zituen. Zezenzalea ere bazen, eta *El txoko taurino* saioko aurkezlea izan zen; hura izan zen euskaraz eta gaztelaniaz zezenketak telebistan eman zituen lehen kazetaria.

**Idazlea ere bai**

Kazetaria izateaz gain, beste zenbait fazeta zituen, eta jaiote-

rrian utzi du ondarea. Herriko Ernai antzerki taldeko kidea izan zen, eta hainbat liburu idatzi zituen: politikaz, baina baita musikari eta tauromakiari buruzkoak ere. Horren adibide da, adibidez, 2003an idatzi zuen *Iriaun, frantsesen urrea eta Elo-su* liburua -aizoko adinekoei egindako elkarrizketekin, auzoan barrena ibilbidea egiten du-.

Bergarako Batzokiaren mendeurrenean, 2004an, idatzi zuen *Bergarako Batzokia 100 urte abertzaletasunaren bideak jorratzen* liburua, eta 2007an ondu zuen *Historia baten notak*; Bergarako Musika Bandaren 175. urteurreneko liburua. BKEren liburua ere idatzi zuen, elkarrearen 50. urteurrenean.

Bikuñaren aldeko hileta elizkizuna gaur izango da, arratsaldeko zazpitan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

## Movember Gararen azaroko egitaraua

Egitarauaren barruan, spinning rock saioa egingo dute gaur, Agorrosinen. Hilaren 22an, Maddik eta Irenek emanaldia egingo dute, Ventin, 18:30ean, eta gero, bertsolariak arituko dira, Pol-Polen. Azaroaren 29an, berriz, Brilet taldeak kontzertua emango du, Ventin, 18:30ean, eta 30ean, mendi buelta, bazkaria eta bibote enkantea egingo dituzte 11:30ean hasita.



Movember Gararen egitarauaren baitan egiten duten bibote mozketa. GOIENA

## OHARRAK

### 1957an jaiotako kintada azaroaren 30ean

10:00etan abiatuko dira Santa Marinatik Eibarrera, eta hamaiketako, bisita, poteoa eta bazkaria egingo dituzte. Itzulera 20:00etan. Izen ematea: ES88 3035 0189 31 1891038659; 90 euro.

### Aisialdiko begiraleendako dirulaguntzak

2024an Eusko Jaurlaritzak homologatutako *Haur eta Gazteen Aisialdirako Begirale zein Zuzendari titulua* euskaraz lortu dutenendako laguntza azaroaren 30era aste eskatu daiteke.

### 'Arg(h)itzen' dokumentala egunean

Manu Gomezek bere proiektua aurkeztuko du, 19:00etan, Seminarixoa, Oloso Dorreak eta Gure Arterak antolatuta.

# Harro daude "munduko talde onenekoak" izateaz

Bergarako Athleticzaleen lagunartek 25 urte bete dituela ospatzeko, ekitaldia egin zuten eguazten iluntzean, Artatse elkartearen; bertan izan ziren Leire Baños, Ane Elexpuru, Adama Boiro eta Alex Padilla jokalariek, eta Andoni Goikoetxea jokalaria ohia

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA 1999ko maiatzean sortu zen ofizialki Bergarako Athleticzaleak batzen dituen lagunartea. *Peña mahonera* moduan izendatu nahi zuten ofizialki, baina, izen hori hartuta zegoenez, *Los gabareros* moduan dago jasota ofizialki. Izenak izen, baina, izana da garrantzitsuena; Athleticetikiko sentitzen duten pasioa, alegia. 60 bat lagunekin abiatu zuten lagunartea eta gaur egun 130 bat bazkide dira.

## Goikoetxea eta Maradona

Athletic pasioz bizi dutela argi geratu zen lagunartearen 25. urteurrena ospatzeko Artatse elkartearen egindako ekitaldian. Bergarako eta bailarako hainbat zale zurigorri bertaratu ziren, ume zein heldu, euren bihotzeko taldeko ordezkariak harrera egin eta berotasuna adierazteko. Umeek zein helduek baliatu zuten aukera euren erreferente direnei sinadurak eta argazkiak eskatzeko. Gaur egun lehen taldeetako jokalariek Leire Baños, Ane Elexpuru, Adama Boiro eta Alex Padilla jokalariek etorri ziren, baita klubaren ordezkari instituzionala den eta 1980eko hamarkadan jokalaria izan zen Andoni Goikoetxea ere.




Juan Carlos Rivero, Andoni Goikoetxea eta Alex Padilla, eguaztenean, Artatsen. J.B.L.

## 1999KO MAIATZEAN SORTU ZUTEN PEÑA, 60 BAT KIDEREKIN; GAUR EGUN, 130 BAZKIDE INGURU DIRA


Maradona lesionatu zuela 40 urte pasatu berri direla gogoratu zioten Goikoetxeari, eta garra bat oparitu zioten. Goikoetxeak esker onez jaso zuen oparia, eta Athleticen filosofia berezia izan zuen hizpide; besteak

beste, "munduko talde onena" dela esan zuen. Eguazteneko ekitaldian, gogoan izan zituzten hildako bazkideak, eta behin eta berriz ere aipatu zuten Bergara txuri-urdina izanik eremu oldarkorra dela Athleticzaleentzat, baina gogora ekarri zuten Gipuzkoan hemeretzi direla Athleticetik dituen lagunartek. Hain zuzen ere, egoera hori bizi du lagunarteko kide Mikel Gomezek, familiarik hasita: "Athleticzale bakarra naiz familia osoan, ardi beltza. Baina oso harro eta pozik nago zuri-gorri izateaz".



**ALEX PADILLA** ATHLETICEKO TALDE NAGUSIKO ATEZAINA

"Berezia da Bergarara etortzea, nire aita eta aiton-amonak hemengoak dira-eta. Gipuzkoan ere hainbat Athletic zale gaude, oso harro gaude gure koloreez".



**LEIRE BAÑOS** ATHLETICEKO TALDE NAGUSIKO JOKALARIA

"Oso polita da zaleekin zuzeneko harremana izatea. Lehen urtea da niretzat Athletic-en, eta oso gustura nago; talde ezberdina da, xarma berezi bat duena".



**JOSE MARI MAIZTEGI** PEÑAKO SORTZAILLETAKO BAT

"Bodegoian partiduak ikusten genituen batzuk elkartu eta peña sortu genuen. Kide asko gaude oraindik, poztekoa da. Athletic bihotza da niretzat, %100ean".



NIRE USTEZ

MAITE TOLEDO

## Lurraldebuseko karrakak

08:15. Bergarako autobus geltokia. Euria zarra-zarra. Autobusa berandu dator. Jendea aterkipean eta mela-mela. Donostiara goaz. Gehienak lanera. Halako batean iritsi da. Ordu erdi berandu. Denok eseri orduko abiatu da bariantzerantz, Fitipaldi baten antzera. Zentraletik deitu diote txoferrari. Esku librean dihardute. Besteok, azti: "Zergatik zabilta hain berandu? Erreklamazio pila ari gara jasotzen". Txoferra intzidentziak zerrendatzen hasi da: "Ezkerreko haizetako ez zebilen; eskerrak aliketa bat neukala; eskumakoa jarri dut". "Eta nola zoaz bakarrarekin?", beste aldekoak. "Moldatzen naiz", txoferrak. Zerrenda luzea da: maletategia ezin da zabaldu, irteera-atea ere ez... Gerrako armetan inbertitzen dute; autobusak mantentzen ez, ordea! Oihuka, bidaiari batek, haserre. Zerbitzu publikoak esku pribatuetan jartzearen sekuentzia tamalgarri baten ondorioak...

Nago zergak ordaintzen ditugula kalitatezko zerbitzuak izateko, eta ez, besteak beste, Lurraldebuseko karraketan bidaiatzeko.



IMANOL SORIANO

## Derbia irabazi ostean, bigarren

Ohorezko Erregional Mailako taldeak oso ondo hasi du denboraldia; bigarren dira sailkapenean (17 puntu), oraindik partidurik galdu ez duen Zarautzen (23) atzetik. Joan den asteburuan, mahoneroek 3-0 menperatu zuten Mondra, oso entretenigarria izan zen derbian –argazkian–. Bergararrek kanpoan jokatu dute hurrengo lehia, Hernaniren aurka –Zubipe futbol zelaia, zapatua, 17:30–.

## Antxintxika egiteko emakume taldearen hurrengo zita, etzi

Hankaluze Trail taldeko Maria Sanchezek gidatuta eta Udalaren laguntzarekin, emakume bergararrei dei egiten zaie domekan, hilak 7, antxintxika egiteko hitzordura batu daitezen; Ibargarai kaleko palmondoaren biribilgurenean ondoan elkartuko dira, 09:30ean. Ekimena hasi zen abenduaren 31ko San Silvestre Trail probara begira emakumezkoen

presentzia areagotzeko, baina, Sanchezen arabera, "aitzakia bat" da urteko azken eguneko lasterketa: "Maila ezberdinak daude taldean, baina denok batera joaten gara; hau da, alde aurretik zehaztutako leku batera, nor bere erritmoan, baina leku horretara ailegatutakoan geratu, eta atzetik datozenei itxaron egiten diegu. Helburua da denok batera egitea ibilbidearen zati handiena; atek zabalik ditugu erabat". Taldera batzeko, domekan agertzearekin nahikoa izango da.



Lau emanaldietan, txalo zaparradak.



Seminarixoa aretoa Hamelin bihurtu zuten BAMEkoek. ARGAZKIAK: IMANOL SORIANO

# BAMekoen lanaren lilura, Hamelinen txirulaz bustia

Bergarako Antzerki Musikala (BAM) elkartearen 'Hamelingo txirularia' ikuskizunak oso harrera ona izan zuen joan den asteburuan, Seminarixoko lau emanaldietan. Orain, ikuskizuna Bergaratik kanpo programatzeko ahalegina egingo dutela adierazi dute

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA Bergarako Antzerki Musikala (BAM) elkartearen hamahirugarren ikuskizuna izan da *Hamelingo txirularia* obraren egokitzea. Azaroaren 9an eta 10ean bina emanaldi egin zituzten, Seminarixoan; BAMEkoek euren ikuskizunetan ohikoa duten atrezzo, jantzi, antzeppen eta abeslarien maila handiarekin aho bete hortz utzi zuten ikusle bat baino gehiago. Izan ere, Bergarako bereizgarri izaten jarraitzen du antzerki musikalak, eta frontoitik Seminarixora igarotzeak dakarren aldaketari ezin hobeto egokitzen jakin dute. Argi

geratu zen hori asteburuko lau emanaldietan –lehen emanaldian sarrerak agortzetik gertu egon ziren, eta gainerakoetan *sold out*-a lortu zuten–, Seminarixoa Hamelin bihurtu zuten eta.

Grimm anaien kondaira oinarri eta Iñigo Casali musikagilearen egokitzea ardatz, ikuskizun aparta eman zuten; emanaldi guztien amaieran jasotako txalo zaparrada luzeak dira horren adierazle.

**"Esfortzu berezia" egiten dute** Azken obra horren berezitasunetako bat izan da orain arteko eszena-zuzendari izateko ardura

izan duen Valen Moñuxek Ander Arrutirekin partekatu duela ardura –aldez aurretik, Oihan Vega ere aritu izan da zeregin horretan Moñuxekin batera–. Bi zuzendariak azpimarratu zuten ikuskizunak izan duen "harrera ona". Moñux "oso pozik" zegoen: "Heldu zaiguna da jendea gustatu zaiola, eta, beraz, gu oso pozik gaude. Ezin dugu ahaztu dekoratua, jantziak eta gainerako elementuak guk geuk egiten ditugula; esango nuke lantaldeak baduela meritua". Harago joanda, "betikoa" ekarri du gogora Moñuxek: "Egokiak diren azpiegiturak izan barik,

entseatzeko jarraitzen dugu; esfortzu berezia egiten dugu, baina, emaitza ikusita, esfortzu horrek merezi du".

## Erronketako bat, abestiak

Lehen aldian izan da Ander Arrutirentzat eszena-zuzendari: "Esperientzia polita izan da. Orain arte egiten nuen lan antzerkora egin behar izan dut, baina ardura handiagoarekin. Gauza asko hartu behar dira aintzat; ezin da ahaztu ekoizpen guztia guk egiten dugula: diseinua, muntaketa-lan guztia... Emanaldiek oso harrera ona izan dute publikoarengandik, eta lantaldekoek oso sententzio onak bizi izan ditugu".

Bestalde, Arratoitzarraren paperean aritu zen Argiñe Agirrezabalek gogora ekarri zuen Seminarixora heldu arteko bi-

## "ESFORTZU BEREZIA EGITEN DUGU, BAINA, EMAITZA IKUSITA, MEREZI DU"

VALEN MOÑUX, ESZENA-ZUZENDARIA



Hamelingo txirularia (Karlos Etxaniz).

dean lan handia egin zutela: "Asteburuetan eta eguaztenetan elkartu izan gara entseatzeko, eta egin ditugu saio batzuk. Abestiak oso azkarrak dira, eta horietan hitzak ondo sartu eta horiek interpretatzea ez da lan erraza izan".

Hemendik aurrera ikuskizuna kanpoan ere saltzen saiatuko dira. "Orain arte ia beti egin izan dugu beste emanaldiren bat Bergaratik kanpo; espero dugu oraingoan ere hala izatea", dio Valen Moñuxek.

## Koldo Eizmendiren argazkien erakusketa, gaurtik, Aroztegin

Azpeitian jaio eta Bergaran bizi den Koldo Eizmendi Nazabal argazkilariak *Kriston burrun-daie* da izen artistikoa– erakusketa irekiko du gaur, hilak 15, Aroztegi aretoan (19:00), eta abenduaren 1era arte egongo da ikusgai, ohiko ordutegian. Kontzertuetako argazkiak dira protagonista erakusketan; gehienak, Euskal Herriko rock taldeenak.



The Clayton, 2022ko Danbakan. K. EIZMENDI

## Santa Zezilia: Orkestra Sinfonikoak joko du, Mariaren Lagundian

Santa Zeziliaren omenezko kontzertua eskainiko du Orkestra Sinfonikoak bihar, hilak 16, Mariaren Lagundiko elizan (19:30). Sarrera doakoa izango da, eta, Enrike Txurruka zuzendariaren arabera, egitaraua "bariatua" izango da. Lau pieza eskainiko dituzte, doinu alaiak zein dramatikokoak direnak tartekatuta.

## 'Euskelelea'-z gozatu ahal da bihar, Seminarixoan (18:00)

*Euskelelea* ipuin musikatuaz gozatu ahal da bihar, hilak 16, Seminarixoan (18:00). 3 urtetik gorako umeei zuzendutako familia-ikuskizuna da; Enrique Solinisek sortutako instrumentuan eta Juan Kruz Igerabide poetaren hitzetan oinarritua. Bergarako Musika Eskolako hasiberrien abesbatzak eta dantza taldeak ere hartuko dute parte.

## Sagarpera eta Gure Ametsara, Okinaren lanak ikustera

Miguel Okina margolaria jaio zela 100 urte betetzen direla-eta, Beart elkarteko batzordeak bisita antolatuko du biharko, azaroak 16, Sagarpe (11:00) eta Gure Ametsa elkartetara (12:00). Bi elkarte gastronomiko horietan dauden Okinaren artelanak ikusiko dituzte, eta antolatzaileek eskatu dute aldez aurretik izena emateko: 613 44 82 17.



Emakume bat Kale Zaharrea behean oinez. O.E.G.

## Plana egingo dute, alde zaharra biziberritzeko

Hirigintza ikuspegitik ez ezik, sozioekonomiatik ere landuko dute gaia, eta etxebizitzak, komertzioak, biztanleak, argiteria eta gune berdeak dira kontuan hartuko dituzten irizpideetako batzuk. Eremua zehaztuko dute eta diagnostia egiten hasiko dira

### Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Herriko alde zaharra biziberritzeko eta berroneratzeko plana egiten hasi da Oñatiko Udala. Alde zahararen egungo egoera aztertze, diagnostia egingo dute lehen fase honetan: etxebizitzak, komertzioak, eraikinak zein biztanleak hartuko dituzte kontutan, besteak beste.

### Etxebizitza hutsak ere bai

HAPOK herriko hirigune osoa hartzen du –landa eremuak, erdigunea eta lur zoru ez urbanizagarriak–, eta berroneratze planak alde zaharra hartzen du. Udal bakoitzak erabakitzen du zer sartzen den eremu horretan; Oñatiren kasuan, Kale Zaharrekin batera baita Kale Barria, Atzeko kalea, Portu, Kantonoste eta Ramon Irizar, adibidez, baina zehaztu egin behar dute. Plan horrekin legediak laguntzen du eremu barruko lizentziak edo birgaitzeak Aldunditik pasa barik tramitatzen, adibidez, baina hortik harago joango da Oña-

tin egingo dute plan integrala, Udaleko Hirigintza batzordeburu Iñigo Ruiz Barronek azaldu duenez: "Etxebizitza eta komertzio hutsen gaia landuko da eta kapa asko izango dituen proiektua izango da: arkitektura, irisgarritasuna, hirigintza, zer-nolako pertsonak bizi diren, zenbat gune berde dauden, zerbitzu aldetik zer behar dituen...". Lan-keta zehatz bat aipatzearen, etxebizitzaren arazoa landuko dute plan horretan. Etxebizitza huts asko daude herriko alde zaharreko eremuan; horietako asko, hutsik eta zaharkituta dauden eraikinetan. Plan horrekin, egungo arau subsidiarioetan dauden mugak malgutu ditza-keten edo ez aztertuko dute,

### PARTE-HARTZE PROZESU BIDEZ, BIZILAGUNEKIN ETA DENDARIEKIN LANDUKO DUTE GAIA

egoera horretan dagoen etxebizitza bat erosteko edo konpontzeko kostua txikiagoa izan dadin saiatzeko.

### Sozioekonomiatik

Alde zaharra berroneratzeko, biziberritzeko, planeko lehen fasea hasi du dagoeneko Udalak. Enpresa batek egingo du egungo egoeraren diagnostia, baina ez bakarrik hirigintza ikuspegitik: "Aprobetxatu gura dugu momentu hau sozioekonomiatik ere aztertze, adibidez. Ikusi gura dugu dendariak eta ostalariak nola bizi duten arazoa eta zein konponbide eman dakioken. Oinordetza transmisioa ere landu gura da, esaterako".

Lana epe luzekoa izango dela aurreratu du Ruizek. Datorren urtean lehen fasea egiten ibiliko dira. Lanak teknikariek gidatuko dituzten arren, parte-hartze prozesu bidez bizilagunekin eta dendariekin landuko dute gaia. Bigarren fasea ekintza planetan sartzea izango da.

## Zaharberritu egingo dute trenaren lurrin-lokomotora

Gidariaren kabina, tximinia eta ur-biltegiaren barrena konponduko dituzte lehen fasean; bigarrean, margotu

### O.E.G. OÑATI

Postetxe ondoan dagoen trenaren lurrin-lokomotoran zaharberritze-lanak egingo ditu Udalak, hondatzen ari dela ikusita. Bi fasetan egitea aurreikusten du: lehenengoan, apurtutako txapak konpondu edo ordezkatu egingo dituzte; eta bigarrean, margotzea aurreikusten dute, jatorrian zituen kolore beltza eta gorria mantenduta.

Datorren astean gura dituzte lanak hasi, eta, lehen fasekoen barruan, lokomotoraren egitura metalikoan egingo dira. Hain zuzen ere, gidariaren kabinaren

zatiak, ikaztegiak, ur-biltegiak eta ke-kaxaren zatiak. Tximinia konpondu egingo dute eta ur-biltegiaren barrena, hodiak eta kabinaren zoru berregin egingo dituzte. Era berean, zur matxin-bratuzko estalki berria egingo diote eta gidatzeko kabina muntatuko. Herreria Mitxel enpresak egingo ditu lanak, 18.000 eurotan.

Burdinbidearen Euskal Museoko zuzendari Juanjo Olaizolarengana jo du Udalak lanak egiteko. Vasco-Navarro trenbidearen Euskadiko zatia babes bereziko kultura ondare izendatuta dago.



Postetxe ondoan dagoen lurrin-lokomotora. O.E.G.

### Alfabetatze digitalaren formakuntza saioak gurasoendako

DBH-1 eta DBH-2 mailetako ikasleek gurasoendako alfabetatze digitalaren gaineko formakuntza saioak antolatu ditu Udaleko Ongizate Zerbitzuak, Agipad elkartearekin batera. Landuko da gurasoek seme-alabei nola lagundu, haiek pixkanaka emantzipazio digitala eskuratu arte.

Saioak abenduaren 4an eta 11n eta urtarrilaren 8an eta 15ean izango dira, Euskaldun Berria gelan, 18:00etatik 20:00etara. Agipad elkartearen prebentzio zerbitzuko arduradun Pakita Mateosek gidatuko ditu. Joateko, izena eman behar da aurrez, azaroaren 29a aurretik. Horretarako bideak dira: 943 03 77 00 edo [ongizatea@onati.eus](mailto:ongizatea@onati.eus).

### Hamar odol-emaile omenduko dituzte gaurko ekitaldian

Gaur, egubakoitza, izango da azaroko odol-emaile eguna, eta, horrekin batera, Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak odol-emaileak aitortzeko ekitaldia egingo du, urtero moduan. Joan den urtean odol-ateratze jakin batzuetara heldu ziren hamar odol-emaile omenduko dituzte ekitaldi horretan: odola 25 aldiz eman duten lau herritar, 40 aldiz eman duten bi eta 50, 60, 75 eta 100 bider emandako bana. Fideltasunari eta eskuzabaltasunari esker ona adieraziko zaie, 18:00etan, Enpresagintza Fakultatean.

Odola emateko, bestalde, aurrez hartu behar da txanda, telefono honetan: **943 00 78 84**.



Martitzen arratsaldean Santa Ana antzokiko harreran banatu zizkieten txostenak lehen zatiko lur-jabeei. GONTZAL BELATEGI

# Dagoeneko digitalizatu dituzte lehen mugarriak

Herriko lursailak identifikatu, mugarriak zehaztu, adostu eta euren koordinada zehatzak digitalizatzeko lanak ari da egiten Udala, katastroaren eguneraketa zehatza egiteko. Proiektuaren lehen zatiko lur-jabeek aste honetan jaso dituzte txostenak

## Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Herriko lurak digitalizatzen dabil Oñatiko Udala, eta lehen lur-jabeei dagozkien txostenak aste honetan eman dizkiete, Santa Ana antzokiaren harreran. Katastroaren eguneraketa zehatza egitea da asmoa, lursailen informazioa digitalizatuta gordeta. Geograma enpresak eraman du aurrera proiektua, eta haiek, herritarrek esandakoaren arabera, lursailen koordinadak atera dituzte, mugak ahalik eta gehien zehazteko.

## Liskarrak ekiditeko

Digitalizazio hori egitearen arrazoia etorkizuneko liskarrak ekiditea da. Landa Garapeneko udal batzordeburu Xabier Igarutasko adierazi duenez, lur-jabe asko adinean gora doaz, eta, zenbait kasutan, haien ondorengoek ez dute lursailen inguruko jakintzarik. Sistema horren bidez, jabetzak zeintzuk diren modu egokian jakin dezakete etorkizuneko jabeek. "Herritarrei ja-

kinarazi zaie euren partzelak zeintzuk diren, baita euren mugakideak ere. Saiatu da adosten eta mugarriak zein puntutan zeuden jakiten. Geograma enpresak egin ditu lan horiek, eta euren GPS edo posizionamenduko erreminta bereziekin koordinada zehatzak hartu dira. Helburua izango da katastroaren eguneraketa egitea datu zehatzekin".

## Zatika egingo dute

Oñati 28 poligonotan banatu dute, eta lehen hirurak digitalizatu dituzte. Oraingoan, 1.131 partzela digitalizatu dituzte. Hori 513,36 kilometroko perimetroa eta 1.329,35 hektareako azalera da. Proiektuaren lehen

**OÑATI 28  
POLIGONOTAN BANATU  
DUTE ETA LEHEN  
HIRURAK EGIN  
DITUZTE**

zati horretan, osotara, 331 lur-jabek hartu dute parte, eta katastroa digitalizatzeko proiektuarekin jarraitzea da Udalaren asmoa, baina zatika, urteka, egingo du. Datorren urtean beste bi poligono digitalizatuko ditu, laugarrena eta bosgarrena. Digitalizazio berri horretarako lizitazioa dagoeneko martxan jarri du. Lursailak identifikatu, jabeekin harremanetan jarri eta mugakideen arteko akordioa lortu beharko du lanen esleipena lortzen duen enpresak, eta mugak digitalki jaso.

Udalak 116.030 euro ordaindu ditu proiektua aurrera eramateko. Horri lotuta, Igartua kexu da Foru Aldundiarekin, proiektuaren erdia diruz laguntzeko konpromisoa hartu arren 25.000 euroko laguntza soilik eman duelako; hau da, %21,6. "Hurrengo zatiaren lana 99.161 eurotan dago baloratuta. Proiektu horretarako ere Foru Aldundiak %20ko laguntza soilik eman du".



Zozketan parte hartzeko dendetan jarritako kutxetako bat. O.E.G.

## Egun bakarrean gastatzeko diru sariak ditu Txandak azarorako

500 euroko lau sari zozketatuko ditu azaroaren 20a bitartean erosketak egiten dituzten bezeroen artean


## O.E.G. OÑATI

Txanda elkarteak 500 euroko lau sari emango ditu azaroaren 20a bitartean erosketak herrian egiten dituztenen artean: 2.000 euro guztira. Sariak 50 euroko erosketa-txarteletan emango dituzte eta herriko lau komertziotan, gutxienez, erabili beharko ditu irabazle izan den bezeroak. Hori, baina, egun bakarrean egin beharko du; hau da, egun bakar batean gastatu beharko ditu zozketa bidez irabazitako 500 euroak.

Zozketan parte hartzeko, erosketen txartelak Txandak dende-

tan jarri dituen kutxetan sartu beharko dituzte bezeroek, euren izen-abizenak eta telefono-zenbakia jarrita. Parte hartzeko azken eguna azaroaren 20a izango da eta zozketa hurrengo egunean egingo dute. Horrela, hilaren 21ean, irabazleek dei bat jasoko dute Txanda elkartetik, sarituak izan direla jakinarazteko. Sari banaketa eta irabazitako dirua gastatzeko eguna azaroaren 23a izango da, 09:30ean, plazan. Herriko dendetan egin beharreko erosketa horiek Algaraz ikuskizun elkarteko lagunekin egingo dituzte irabazleek.

## GORA ETA BEHERA



## Basurdeek egindako kalteak Arantzazu auzoan

Basurdeek egindako kalteekin minduta agertu da Arantzazuko auzotar bat, eta kexu da: "Foru Aldundiak debekatuta du ehiza Gipuzkoan; zer egin dezakegu guk?".



Fraka Motzak Onenak Dia taldeko kideak, joan den urteko OLR egunean parte hartzen. GOIENA

## Hamabosgarren film laburren rallya bihar

Goizeko zortzietan hasiko dute eguna aurkeztu diren taldeek, eta orduan jakingo dituzte landu beharreko gaia, genero zinematografikoa eta erabili beharreko objektua. Proiekzioak eta sari banaketa Santa Ana antzokian izango dira, 22:00etan

### Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Bihar, zapatua, egingo dute aurtengo Oñatiko film laburren rallya; hamabosgarrena izango da –lehen urtean bi egin zituzten–. Hogei taldeko muga jarri dute aurten ere parte-hartzaileei begira, eta bigarren egunerako, martitzenerako, hemezortzik zuten izena emanda; talde beterrano askok, tartean.

### 'Mak' gogoan

Lau lagun daude egun antolaketan, eta, aurreko urteetan beste batzuk ere ibili diren arren, bigarren urtetik horretan ari direnak daude laukotean. Aurtengo edizioa iragartzeko ageri den Aitor Perosterena, adibidez, hasieratik dago. *El Padrino* filma gogora ekartzen duen eszena batean agertzen da kartelean. Besoetan, baina, karta beharrean, Don Ramon katu kosmikoa du, uztailean hil zen Aritz Oianguren Martinez *Mak* gogoan. Hainbatetan hartu zuen hark ere parte film laburren

rallyan, eta keinu egin gura izan diote antolatzaileek, Dwingi Dwingi taldeak duela bi urteko lehiaketan egin zuen *Katu Mc-Kosmikoa* filmean *Mak*-ek hartu zuen paperarekin jolastuta.

### Hiru minutuko filmazioak

Udazkeneko kultur egitarauan erabat egonkortuta dagoen hitzordua da Oñatiko film laburren rallya. Aurten ere, urtero moduan, goizeko zortzietan hasiko dute eguna, baldintzak jakinaz: zein den gaia, zein landu beharreko genero zinematografikoa, baita nahitaez erabili beharreko objektua ere. Antolakuntzak emandako hamahiru tokietako bi irudietan azaltzea beharrezkoa izango da, eta lanen

**RALLYAK BEREZKOA  
DUenez, LANEK  
OÑATIN ETA  
EUSKARAZ EGINAK  
IZAN BEHARKO DUTE**

iraupenak gutxienez minutu batekoa eta gehienez hirukoa izan beharko du, antolakuntzak ematen duen hiru segundoko plano eta kredituak barne.

### Emanaldia zuzenean

Gidoiak egin eta grabaketak egin ostean, 19:00etarako entregatu beharko dituzte lanak, antolatzaileek goizean taldeei emango dieten USBan. Orduan hasiko dira epaimahaikideak film laburrak ikusten eta baloratzen, hain preziatuak diren Txankamuak banatzeko. Lehen hiru lan onenen sariak eta aktore onenarena emango ditu epaimahaia, eta bana publikoak eta antolakuntzak.

Santa Ana antzokian 22:00etan hasiko den ekitaldiaren barruan izango da hori guztia. Aurretik, 21:30ean, taldeen *photocall*-a egingo dute. Aurten ere jasotako lanak emango dituzte gaueko ekitaldian, eta streaming bidez emango dituzte, OLRk Youtuben duen kanalean.

## Patxo Telleriaren eta Mikel Martinezen bakarrizketak

Udal liburutegiak gonbidatuta datoz aktore biak eguaztenean zinema-aretoa, 19:00etan

### O.E.G. OÑATI

Antzerki laburren saio bat antolatu du liburutegiak datorren eguaztenerako. Patxo Telleria eta Mikel Martinez aktore eza-gunek antzeztuko dituzte; bakarrizketa saio bana egingo dute.

*Txizatoki bat eszenatokian* du izena Telleriaren lanak, hark idatzi eta antzeztutakoa. Mikel Martinezek egingo duena, berriz, 2022an Cafe Bilbao antzerki saria irabazi zuen Lutxo Egiaren *Hamalau* antzezlana da. Umoretik landutako gaiak agertzen dira bietan, liburutegiko ardu-

radun Arantzazu Ibarrondok adierazi duenez: "Jarduera hori antolatzean, liburutegiaren helburua gure programazioan literatur genero bat sartzea da; antzerkia, hain zuzen ere. Genero hori liburutegiko bilduman dago, baina askok ez dute aintzat hartzen. Patxok eta Mikelek antzezlana argitaratu dituzte eta sorkuntza eta eszenaratze prozesu osoa ezagutzen dute. Antzeztuko diren obrek gauza asko birplantatzera garamatzaite. Beti umoretik, baina begirada kritikoarekin.

## Parapente eta kayak abenturak dakartza Mendi Hamabostaldia

Baltoro glaziarra eta Colorado ibaia nola zeharkatu zituzten kontatuko dute egileek zinema-aretoan

### O.E.G. OÑATI

Mendi Hamabostaldia ari da ospatzen Aloña Mendiko mendi saila, eta datorren astean bi ikus-entzunezko proiektatuko dituzte zinema-aretoan. Gainera, abentura hori bizi izan duten alpinistak, gidariak eta parapentelariak etorriko dira emaldien ostean herritarrekin berba egiteko.

Martitzenean, hilak 19, *Baltoro. Oinez & Hegan* dokumentala emango dute, eta Mattin Iñiguez eta Jose Ramon Agirre *Marron* zinema-aretoan izango

dira. Bigarren ikus-entzunezkoa egubakoitzean emango dute, 22an: *Colorado*. Erreka horren jaitsiera kayakean nola egin zuen azalduko du Suam del Cerro Goñi Iruñeko rafting-gidariak, proiektzioaren ostean. Biak izango dira 19:00etan. Bide batez, hilaren 22ra arte egongo da zabalik euskal mendizaletasunaren historia biltzen duen *Mendian gora* erakusketa, kultura etxean. Mendi sailak Aloña Mendiren 75. urteurrenaren barruan sartu gura izan du aurtengo hamabostaldia.

## Posta elektronikoz tramitatu daitezke federatuen txartelak

Mendiko federatuen txartelak kudeatzen ari da hilabete honetan Aloña Mendiko mendi saila. Altak, bajak eta txartel aldaketak eskatzeko, posta elektronikoz egin daiteke eskaera, mezua hona bidalita, hilaren 24aurretik: [alonamendi.mendi@gmail.com](mailto:alonamendi.mendi@gmail.com). Txartel fiskoa desagertu egingo da; digitala erabiliko da aurrerantzean.

## Iñaki Palacios txistularia Musikegunak barruan

Iñaki Palacios txistulari gasteiztarak egingo du Musikegunak programako hirugarren kontzertua. Txistularia da, baina instrumentu horrekin batera egon ez diren elementu eta erritmoak uztartzen ditu. *Argizaiola* izeneko lana aurkeztuko du Oñatin. Domekan izango da, 19:00etan, Santa Ana antzokian.

# ETEN LOW COST DELUXE REBEL NOISE K-PO

Bergarako  
Seminarixoa  
Azaroak 15  
21:30

**Chill out gunea**  
20:00etatik aurrera  
San Martin plazan  
**DJ CHICABEAT**

Sarrera arrunta **5 €**  
Goiena aplikazioan alta emanda **2 €**  
Goiena txartela erakutsita **0 €**

**3. kontzertua**  
**AZAROAK 29**

DEL VAL  
HENKO  
TXERRIKUMEAK  
KARENA

**4. kontzertua**  
**ABENDUAK 13**

BANANA SHAKE  
ONDARE  
721-GOGOR GABILTZA  
MAIDER MIMI

**Finala**  
**URTARRILAK 17**



Begarako Udala



**GIPUZKOA**  
Kultura



**SEIN**  
Lanbide, Enpresa, Enplegu  
Kontseilua

**goiena**  
KOMUNIKAZIOTALDEA




# Behobiako azkarrenak maratoira begira daude

**ATLETISMOA** Andoni Gomez bergararra (1.07.56) eta Nerea Arregi arrasatearra (1.21.58) izan dira Behobia-Donostian ibarreko atleta azkarrenak; aste barruan GOIENari aitortu diote maratoia prestatzeko baliatu zutela lasterketa

## Xabier Urtzelai Atxa ARRASATE

Azken bi urteotan Mikel Velasco eta Ainhoa Aranburu arrasatearrak izan dira Behobia-Donostian ibarreko ordezkari azkarrenak, eta domekan Andoni Gomezek eta Nere Arregik hartu zieten erreleboa. Eta biek aitortu dute Behobia-Donostia-entrenatzera joan zirela, buruan maratoia daukate eta. Hasteko, domekan ez zituzten 21 kilometro egin, gehiago izan ziren. Gomezek lasterketa hasi aurretik hamalau kilometro egin zituen, haren kontura. "Beroketa moduan baliatu nituen kilometro haiek, eta ondoren, Behobia-Donostiako lehenengo hamabi kilometroak ere maratoiko erritmoan egin nituen. Azken batean, entrenamendu-saio luze bat egitea zen helburua. Baina, Behobia-Donostian askotan gertatzen den moduan, berotu egin nintzen", dio, barrez, bergararrak.

Nere Arregi ere helburu berberekin joan zen goizean goiz Behobiarantz, eta sei kilometro egin zituen lasterketa aurretik. "Pentsa, bi egun lehenago Facebook bidez erosi nuen Behobia-Donostiako dortsala. Bi aste barru izango den Donostiako maratoia daukat buruan, eta domekan distantzia luzea egin behar nuen korrika. Bada, ez



Andoni Gomez helmugara sartzen. I. S.



Nere Arregi, helmuga pasata. I. B.

nuen bakarrik entrenatu gura, eta halaxe joan nintzen Behobia-Donostiara".

## Lasai hasi, eta berotu

Bistan da domekan gozatu ederra hartu zutela. Gomezek dio marka pertsonala ontzea ez zela hasierako asmoa. "Lasterketa erdia eginda neukanean konturatu nintzen nire marka hobetu nezakeela. Iaztik 1.08 pasatxoko marka neukan, eta orduan erabaki nuen estutzea (1.07.56). Ikusteko dago esfortzu horiek ondorioak izango dituzten edo

ez; izan ere, azken hiru asteotan kilometro asko egin ditut korrika, eta orain karga jaisten joateko ordua da. Hiru aste geratzen dira Valentziako maratoirako".

Arregik ez zuen espero halako sentazio onik izatea. "Duela urte batzuk, buru-belarri ibili nintzen atletismoan, horretarako bizi nintzen. Entrenamendu zorrotzak, elikadura zaindu, apenas nuen bizitza sozialik... Behobia-Donostiara etortzen nintzen dena ematera, asfaltora begira egiten nituen 21 kilometroak. Domekan, berriz, ikusleei

bostekoa ematen ibili nintzen; izugarri gozatu nuen. Ez dut kalitatezko entrenamendurik egin, lanean eta ikasten nabilenez egunak ez du-eta gehiagorako ematen, eta, hala ere, atletismoan buru-belarri ibili nintzen sasoiko marka egin dut (1.21.58). Eta galdetzen diot neure buruari: zertan demontre nenbilen lehen?", dio, barrez. "Halakoetan konturatzen zara ze garrantzitsua den kirolaren eta bizitzako gainontzeko arloen artean oreka izatea; badirudi batzuetan gorputzak eskertu egiten duela garagardo batekin hidratatzea [Barre]".

## Maratoia, aurki

Arregik 2017a ezker darama maratoi distantzian lehiatu barik. "2018an, asfaltoko 100 kilometroko ultra distantzia egin nuen, eta badirudi hori egin duenarendako 42 kilometro ez direla ezer, baina... Abuztuaren, Santanderren egin nuen 40 kilometroko lasterketa, eta, federatuta nagoenez, Donostiako maratoirako dortsala eskuratu nuen. Maratoian zuhurrago ibili beharko dut, baina ez dakit ze erritmotan irtengo naizen. Pentsa, maratoia lau ordu eta erdian egindakoa naiz, baita 2.54an ere".

Gomezek, berriz, ez dauka garbi Valentziako maratoia egingo duen. "Uholdeak gertatu aurreko asteburuan Valentzian nengoan, maratoi erdia egiten. Eta domekan jada euri dezente egin zigun, ur-putzuak genituen ibilbidean. Orain, mezu bat jaso dugu antolakuntzatik, esanez datozen egunotan erabakiko dutela maratoia egingo duten edo ez. Hala, badaezpada, Donostiako maratoian eman dut izena, hiru hilabete egin ditut-eta distantzia hori prestatzen".

## Behobiako azkarrenak, herrika

### ANTZUOLA

- Aimar Larrea (1.12.53).
- Ainize Lizarralde (1.32.49).

### ARAMAIO

- Jonathan Rincon (1.22.10).

### ARETXABALETA

- Iker Agirregabiria (1.12.29).
- Maria Martinez (1.42.32).

### ARRASATE

- Andoni Elduaen (1.09.23).
- Nere Arregi (1.21.57).

### BERGARA

- Andoni Gomez (1.07.56).
- Maria Jose Zafra (1.37.10).

### ELGETA

- Milfred Anguinzones (1.45.39).

### ESKORIATZA

- Iñaki Salaberria (1.15.41).
- Lorea Legazpia (1.53.02).

### OÑATI

- Imanol Molinero (1.16.45).
- Saioa Arkonada (1.26.26).

## DANBAKAST

JOKIN BEREZIARTUAK GIDATUTAKO BIDEOPODCASTA

AZAROAREN 21EAN, EGUENA, 20:00ETAN ETA 22:00ETAN

GONBIDATUA: AITOR ALDANONDO

TERTULIAKIDEAK: LARRAITZ ARRIOLABENGOA ETA UNAI ETXENAUZIA



DESKARGATU  
GOIENA  
APLIKAZIOA

goiena  
Zu hemen zaude.





# Liderra mendean hartzeko testuinguru ezin hobea

**ARETO FUTBOLA** Antiguoko taldea jasoko du Eskoriatzak zapatuan, 18:30ean, Manuel Muñoz kiroldegian. Saillapenaren erdialdean dago Eskoriatzako taldea; hala, denboraldi hasieran ezarritako helburua guztiz betetzen ari dira Mikel Alkaiderenak

**Julen Murua Mesonero** **ESKORIATZA** Azkenengo jardunaldian Usan-solo taldeari 7-8 irabazita, garaipenaren bidetik jarraitu nahi du Eskoriatzak. Mikel Alkaideren taldeak ez du partidurik galdu etxean, baina asteburuan aurkari benetan gogorra izango dute aurrean: Antiguoko. Liderra da Donostiako taldea, eta jokaturako partidu guztiak irabazi ditu.

**Etxean gogor** Eskoriatzak ez daki, oraingoz, zer den etxean galtzea, eta Alkaiderek dio "oso pozik" dagoela taldeak egin duen liga hasierarekin eta etxean lortutako emaitzekin, denboraldia hasierako egoera kontuan hartuta: "Aurreko urtetik hona, lau jokalaririk utzi dute taldea, eta oso jokalaria gazteekin ordezkatu behar izan ditugu". Hala ere, "ilusio

handiarekin" hasi dute denboraldia eskoriatzarrek; iazkoa "oso gogorra" izan zela aitortu du entrenatzaileak, "bai emaitzei dagokienez, baita talde barruko giroagatik ere", eta aurten ezarri duten helburuetako bat izan da "talde barruan ahalik eta giro onena izatea", bazekitelako "oso talde gaztea" izango zutela.

## Aurtengo helburua

Taldeak izan dituen aldaketak kontuan izanda, hasierako helburua maila mantentzea dela argi du Alkaiderek: "Iaztik, guztiz aldatu da helburua. Aurreko urteetan goiko postuetan egon nahi genuen, baina, gaur egun egoera ikusita, jokalariei esan genien helburuak mailari eustea izan behar duela, nahiz eta gauzak aldatu egin daitezkeen".

## Gainontzeko neurketak

Hirugarren Mailan, Mondratek Donipariren bisita jasoko du, Musakolan, zapatuan, 17:30ean. Garaipena lortuz gero Pasai Donibaneko taldea aurreratuko lukete Aitor Cortizasenek. Gipuzkoako Lehenengo Mailan, berriz, Coinbroker Aloñak Makax taldearen kantxan jokatu du, seigarren garaipena lortu eta lider jarraitzeko helburuarekin.



Eskoriatzako jokalaria, iazko denboraldian sartutako gol bat ospatzen. IMANOL SORIANO

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

RFEF 3. MAILA

**UDA-Lagun Onak**  
Dom. 16:30. Ibarra.

GIZ. OHOR. ERREG.

**Elgoibar-Aloña Mendi**  
Zap. 16:00. Mintxeta.

**Mondra-Urola**  
Zap. 16:30. Mojategi.

**Hernani-Bergara**  
Zap. 17:30. Zubipe.

EMAK. OHOR. ERREG.

**Bergara-Zumaia**  
Dom. 14:30. Agorrosin.

GIZ. GORENGO MAILA

**UDA B-Lagun Onak B**  
Zap. 18:30. Ibarra.

MAILA

**D. Bailara-Orioko**  
Zap. 16:30. Ibarra.

**Mondra-Goierri Gorri**  
Zap. 18:30. Mojategi.

GIZ. 1. ERREGIONALA

**Urki B-Antzuola**  
Zap. 15:30. Unbe.

**Aloña B-Mondra B**  
Dom. 16:30. Azkoagain.

**Elgoibar-UDA C**  
Dom. 18:00. Mintxeta.

GAZTEAK MAILA NAZ.

**Bergara-Tolosa**  
Zap. 12:00. Agorrosin.

GAZTEAK EUSKAL LIGA

**Loiola Indautxu-UDA**  
Dom. 19:30. Aitzarte.

OHOREZKO GAZTEAK

**Intxurre-Mondra**  
Zap. 17:00. Elorri.

**ARETO FUTBOLA**

HIRUGARREN MAILA

**Mondrate-Donipari**  
Zap. 17:30. Musakola.

**Eskoriatza-Antiguoko**  
Zap. 18:30. M. Muñoz.

GIPUZKOAKO 1. MAILA

**Makax-Coinb. Aloña**  
Dom. 12:30. Altza kirol.

GIPUZKOAKO 2. MAILA

**Eskoriatza B-Ostiko**  
Ost. 21:30. M. Muñoz.

ESKUBALOIA

GIZ. GIPUZ. SENIOR.

**Mugarri I.-Ordizia**  
Zap. 15:45. Iturripe.

**Soraluce BKE-Urola**  
Zap. 16:45. Labegarai.

**Eibar-Fagor Profes.**  
Zap. 16:30. Ipurua kirol.

EMAK. GIPUZ. SENIOR

**C.U. Aloña-Usurbil**  
Zap. 16:00. Zubikoa.

**Munttarpe-Bergara**  
Zap. 17:45. Bekoerrotta.

SASKIBALOA

LIGA FEMENINA 2

**MU-Cortegada**  
Zap. 18:30. Iturripe.

EBA

**C.B. Solares-MU**  
Dom. 18:00. M. del Corro.

EUSK. LEHEN. GIZ.

**Ardoi-MU**  
Dom. 18:00. Zizur mayor.

EUSK. BIG. GIZ.

**Bergara-Getxo**  
Dom. 18:00. Labegarai.

GIP. SENIOR GIZ.

**Biotz Aloña-Mundarro**  
Zap. 18:00. Zubikoa.

GIP. SENIOR. EMAK.

**Bergara-Eskoriatza**  
Ost. 20:45. Labegarai.

ERRUGBIA

SENIOR GIZONEZKOAK

**Elorrio-Kanpanzar ART**  
Zap. 16:00. San Roke.

SENIOR EMAKUMEZK.

**Gaztedi-AGT-ERT**  
Zap. 16:00. Gamarra.

## PADELA Santamasetako padel txapelketako izen-ematea, irekita

Azaroaren 18ra arte egongo da izena emateko aukera, eta 32 bikotera mugatuko dute txapelketa. "Beraz, izen-ematea azkar egitera animatzen zaituztegu, plazarik gabe ez geratzeko. Txapelketa printzipalaz gain, kontsolamendu txapelketa ere egongo da lehenengo partiduetako kanporatuentzat", azaldu dute Arrasate Kirol Elkarteko kideek.

Txapelketa azaroaren 22ko asteburuan hasiko da, eta partiduak aste bukaeretan jokatu dituzte -ordutegiak eta egunak koa droa osatutakoan jarriko dituzte-. Finalak abenduaren 21ean jokatu dituzte, zapatua. Izena emateko, bikotekide bakoitzaren izen-abizenak, posta elektronikoa eta telefono-zenbakia bidali beharko dira, [ake.padel@gmail.com](mailto:ake.padel@gmail.com) helbidera mezu bat idatzita. Prezioari dagokionez, bikote bakoitzak hamar euro ordaindu beharko du izen-ematea.



Realaren eta Betisen arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

### GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Real-Betis norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuek eta zuek aukeratutako beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik. Partidua abenduaren 25. asteburuan izango da. Parte hartzeko azken eguna: azaroaren 25a.

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!



1. Aplikazioa deskargatu.

2. Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

Gertu. Zorte on!



Egin Goienakide eta Reala ikusteko aukera izango duzue!

goiena" kide

Okm: batzen gaituen distantzia

## DANBAKA ))))



Bergarako Low Cost Deluxe taldeak zabalduko du bigarren gauko lehiaketa. L.C.D.



Aretxabaletako Eten hirukote gaztea izango da lehiatzen bigarrena. ETEN



Bergarako Chadi Ayastui K-PO izango da gaurko hirugarren lehiakidea. K-PO



Arrasateko Rebel Noise boskoteak borobilduko du Danbakako bigarren gaua. A.A.

# Lau musika kolpe berri emateko gogotsu, danbaka jarraitzeko

Bergarako Low Cost Deluxe eta K-PO, Aretxabaletako Eten hirukotea eta Arrasateko Rebel Noise boskotea izango dira, 21:30ean hasita, Seminarixo barruan lehiatzen, eta Arrasaten bizi den Karen Caceresek –'DJ Chicabeat'– girotuko du chill out gunea

## Aitziber Aranburuzabala Juldain BERGARA

Urriaren 25ean hasita, abian da seigarren Danbaka Musika Lehiaketa. Hamasei musika proposamen lehiatuko dira aurten eta dagoeneko lau taldek izan dute euren eskaintza erakusteko aukera –Korda Rota, Ktarsia, Sotoalde eta Malko–. Bada, gaur, egubakoitza, beste lau parte hartzaileen txanda izango da. Sarrerak leihatilan izango dira eskuragarri.

## Beteranoen eta gazteen rocka

Katabatik eta Buddha Warriors taldeetan ibilitako kideek 2015ean abiarazi zuten Bergarako Low Cost Deluxe laukoteak zabalduko du bigarren gauko lehiaketa. Gaur egun, Bergarako Ander Uribesalgo eta Gorka Gonzalez bergararrek eta Arrasateko Ivan Rodrigezek eta Azkoitiko Unai

Garmendiak osatzen dute taldea, eta diote "gogotsu daudela" Danbakan parte hartzeko. "Musikazaleak izan gara betidanik eta gure sormena kanporatzeko eta lagun artean gozatzeko helburuarekin elkartu ginen. Orain arte egin ditugun kontzertuak txikiak izan dira, tabernetan; beraz, gaurko bizipena zoragarria izango da; abesti berriak egin ditugu, eta aukera polita da horiek publikoarekin probatzeko".

Aretxabaletako Markel Peña-koba, Aritz Lizarriturri eta Laida Diaz gazteek hartuko die oholtzaren gainean lekukoa.

**SARRERA ARRUNTA, BOST EURO; 'GOIENA' 'APP'-AREKIN, BI EURO; ETA GOIENAKIDEEK, DOAN**

Rocka du Eten taldeak ere oinarri. "Orain dela bi urte hasi ginen kantuak konposatzen eta udan argitaratu genuen bost kantuko bilduma. Etxetik jaso dugu musikazaletasuna eta gustura jarduten dugu entsegu-lokalean. Ditugun 30 minutuak ondo zukutzen saiatuko gara, lehenengo minututik hasita, eta gozatu dugula uste dugu", azaldu dute Eten taldekoek.

## Urbanoa eta punk-rocka

Atsedenaldirik txikia baten ostean, K-PO –Chadi Ayastui– izango da Seminarixoko agertokira

**GOIENA TELEBISTAN, 'DANBAKA.EUS'-EN ETA 'GOIENA.EUS'-EN EMANGO DIRA KONTZERTU GUZTIAK**

igoko den hirugarren lehiakidea. Rapa egiten hasi zen, orain dela hiruzpalau urte, eta, hortik harago, musika urbanoaren itsaso zabalean aurkitu du tokia: "Estilo ezberdinak nahasten ditut; esaterako, housea, funk brasildarra eta reggaetona. Danbakaren bitartez nire musikarekin jende gehiagorengana heltzea da nire asmoa".

Gaurko lehiakideen zerrenda 2019an sortutako Arrasateko Rebel Noise taldeak borobilduko du. Punk-rock doinuak ditu oinarri Andoni Agirrek, Aimar Iturricastillok, Unax Iñarrak, Oihan Azkaratek eta Manex Bakerok osatzen duten boskoteak. "Etxetik eta txikitatik jaso dugu musika zaletasuna guk ere, eta hala hasi ginen entsegu-lokalean eta gozatzen. Dagoeneko hainbat kontzertu egin ditugu, baina gaurkoa oso berezia izango da guretako ere. Gure onena ematen saiatuko gara, baina gogoz gaude taularen gainean izango diren beste artistak ere ezagutzeko".

## Chill out gunean, 'Chicabeat'

Seminarixo kanpoan, 20:00etan hasita, DJ Chicabeat –Karen Caceres– izango da protagonista. "Musikazale amorratua da, eta, besteak beste, punk, new wave, rock-and-roll, reggae eta ska doinuen artean mugitzen da. Eta ahaztu barik bertan izango dela gaur ere Sanprubusa", gaineratu du Danbakako koordinatzaile Jokin Bereziartuak.

## Publikoaren Sariaren sailkapena

- 1 MALKO**  
Oñati  
Botoen %17,8
- 2 SOTOALDE**  
Bergara  
Botoen %14,5
- 3 KARENA**  
Antzuola eta Hernani  
Botoen %13,5
- 4 KORDA ROTA**  
Arrasate  
Botoen %12,6
- 5 K-PO**  
Bergara  
Botoen %9,3
- 6 ETEN**  
Aretxabaleta  
Botoen %7,2
- 7 TXERRIKUMEA**  
Aretxabaleta  
Botoen %6
- 8 HENKO**  
Oñati  
Botoen %5,1
- 9 KTARSIA**  
Bergara  
Botoen %4,2
- 10 721-GOGOR GABILTZA**  
Aretxabaleta  
Botoen %3,7
- 11 BANANA SHAKE**  
Arrasate  
Botoen %3,4
- 12 REBEL NOISE**  
Arrasate  
Botoen %1,8
- 13 ONDARE**  
Arrasate  
Botoen %0,6
- 14 DEL VAL**  
Arrasate  
Botoen %0,1
- 15 LOW COST DELUXE**  
Bergara  
Botoen %0,1
- 16 MAIDER MIMI**  
Aretxabaleta  
Botoen %0,1

## BOTOA EMATEKO

Danbaka.eus webgunean edo Goiena.eus webgunearen Danbaka izeneko kanalean eman daiteke botoa, 2025eko urtarrilaren 14ra bitartean.



'Danbakast' bideo podcasta ikusteko, eskaneatu QR kodea telefonoarekin.

# "Kantu ezagun asko eta une hunkigarriak ditu"

**MERTXE SALABERRI** IZASKUN MURGIA ELKARTE LIRIKOKO ESZENA-LAGUNTZAILEA 'El huésped del sevillano' zarzuela azaroaren 22an 20:00etan eta azaroaren 23an eta 24an 19:30ean, Amaia antzokian, Izaskun Murgia Elkarte Lirikoaren eskutik

## A. Aranburuzabala ARRASATE

Orain dela 20 urte egin zuten *El huésped del sevillano* (Jacinto Guerrero) zarzuelaren beste bertsio bat egingo du Arrasateko Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak; estreinaldirako aste bete falta da, eta Mertxe Salaberri (Arrasate, 1964) eszena-zuzendariarekin elkartu da GOIENA. **2004an egin zenuten estreinakoz.** Oso ezaguna da, eta, orokorrean, asko gustatzen zaio publikoari, baita elkarterko kideei ere; amodiozko eta desamodiozko istorio bitxiak ditu honek ere. Bi ordu irauten du, hamabost minutuko atsedena ere kontuan hartuta. Urtarrilean egin genuen *Antología de la zarzuela* ikus-kizunean pieza batzuk kantatu genituen, baina gogotsu gaude berriez osorik erakusteko. **Berrikuntzak dakartzazue, ezta?** Hala da; bakarlariei edo pertsonaia nagusiei dagokienez, adibidez, Mikel Izurrategi izango da errepikatuko duen bakarra, eta alboan izango ditu Susana Vazquez, Lander Oyanguren, Maria Izaga eta Ion Aranbarri. Dekoratuak ere berriak dira, eta jantzi gehienak ere bai. **Zelako doinuak entzungo ditugu?** Erromantza edo kantu ezagun asko ditu; esaterako, *Fiel espada triunfadora* eta *Las Lagarteranas*.



Mertxe Salaberri. A.A.

Cristina Cubillo eta Eduardo Arzamendi dira musika-zuzendariak, eta euren lana izan da, bereziki, bakarlariak eta abesbatza prestatzea. Bakarlarientzako kantu oso konplikatuak daude, eta gogor egin dute lan. Abesbatzarentzako samurragoa da, eta publikoarentzako, oso erraz ulertzekoa eta gozagarria; une hunkigarri asko ditu. **Zer diozu eszenografiari buruz?** Dekoratu guztiak berriak dira, ohi moduan, Javier Burgosen eta Cristina Gonzalezen ardurapean. Bi zatitan dago banatu-

ta obra; bada, bi gune ikusiko dituzue: Toledoko plaza iturri batekin eta sevillarraren ostaturia. Jantziei dagokienez, aurreko aldikoaren bidetik doaz: garaiko aberatsen traje dotoreak eta herritarren xumeagoak. Aurreko alditik berreskuratu eta moldatu egin ditugu batzuk, eta berriak sortu ere bai. Nire ardua izaten da ideia berriak asmatzea, eta hastapenetatik ari den jostunen taldea izan dut alboan.

## Lantalde handia oraingoan ere taularen gainean eta atzean.

Kantuan eta antzezten 60 lagunetik gora izango gara, eskarmentua dugunak eta kide berriagoak, Iker Olazabalek zuzentzen duen Arrasate Musikaleko Orkestra gurekin izango dela ahaztu barik. Atzeko lanetan ere lagun asko: aurrez aipatutako jostunak eta dekoratu-egileak, makillatzaileak eta ile-apaintzaileak... Horien artean boluntario asko daude; bada, eskerririk asko denoi zuen ezinbesteko laguntzagatik!

## Sarrera salmentarekin pozik?

Bai; oso pozik, baina oraindik ere emanaldi guztietarako daude; beraz, animatu! Amaia antzokiko leihatilan eta *Arrasate.eus* atarian dituzue, hoguei eurotan eskuragarri.

## Euskal Herriko Dantza Solte Txapelketa domekan Bergaran

Gipuzkoako dantzari gazteek osatutako zortzi bikote lehiatuko dira etzi, Seminarixuan, 12:00etan

## A. Aranburuzabala BERGARA

Begarako Musika Eskolak antolatuta, eta Bergarako Udalaren eta Gipuzkoako Euskal Dantzarien Biltzarren laguntzarekin, bikote dantzari gazteentzako 46. sariketa egingo dute etzi Berga-

ran. Ateak guztiontzako zabalik daude, eta ez da sarrerarik ordaindu beharrik izango.

Gipuzkoako hainbat herritako zortzi bikotek jardungo dute lehian, baina ez da eskualdeko ordezkariarik izango. Bergarako

Txistulari Bandaren doinuekin, sei pausoko fandangoa dantzatuko dute, baita sei pausoko arin-arina ere, Edurne Iturbe eta Aitziber Estanga trikitilarien doinuekin lagunduta.

## Ikasleen erakustaldia

Epaimahaikideek erabakia hartu bitartean, Bergarako Musika Eskolako 8 eta 10 urte bitarteko hamazortzi ikaslek Julen Alonsoren *Trakatan* eta Neomak taldearen *Ilargi berria* kantuen koreografiak egingo dituzte.

## Goienakideen txokoa

### AZAROKO SARIAK

#### Errigorako saskia

Parte hartzeko sariaren izena: errigora

ERRIGORA



#### Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ  
ONATIKO O B A K

#### Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harremandenda.org  
Bidezko Merkataritzako produktuak

#### PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: [goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus) Whatsapp: GOIENAKIDE

"sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.

'goiena app'-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: [goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus)

## Irabazi bi lagunendako sarrerak

Izaskun Murgia Elkarte Lirikoari esker

Zarzuelarako sarrerak ditugu.

Arrasate | Amaia Antzokia | Azaroak 23 eta 24

#### PARTE HARTZEKO:

E-postaz: [goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus) WhatsApp: GOIENAKIDE "Zarzuela"

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.

'goiena app'-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.


Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: [goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus)

## Irabazi bi pertsonarendako otordua

UXARTE JATETXEARI ESKER

Begiratu *Puntua* aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte!

Parte hartzeko azken eguna: azaroak 19



943 25 05 05



[goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus)



'Goiena app'-a / zozketa atalean.



GOIENAKIDE Jatetxea

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailak gozatzeko...

Ordaindu 2025eko kuota, 65€, eta abantailak DOAN aurtengo abendura arte  
Deitu: 943 25 05 05 • [goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus)



DESKARGATU GOIENA  
APLIKAZIOA!

goiena  
kide

Okm: batzen gaituen distantzia.

## IRAGARKI SAILKATUAK

## 1. ETXEBIZITZAK

## 101. SALDU

**Arrasateko Garagartza auzoa.** Etxebizitza unifamiliarra saltzen da Arrasateko Garagartza auzoan. Interesatuak deitu 943 58 42 13 telefono zenbakira. Arratsaldean (20:00etatik aurrera), mesedez.

## 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate edo Oñati.** Etxea errentan hartuko genuke. 661 63 78 98 (Sebastian) edo 603 45 54 92 (Lina).

**Arrasate edo Oñati.** Hiru logela dituen etxebizitza errentan hartuko nuke. Interesatuak deitu 603 45 54 93 telefonora.

**Arrasate.** Hiru logela duen etxebizitza bila dabilen familia gara. Deitu 633 68 35 76 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Hiru logeladun etxebizitza errentan hartuko genuke. Legezko agiriak ditugu eta lan-kontratu mugagabea. Deitu 611 34 50 25 edo 631 19 75 84 telefono zenbakira.

**Oñati edo Arrasate.** Etxea errentan hartuko genuke. Bi seme-alaba dituen bikotea gara. Lan egonkorra dugu. Telefonoa: 665 99 67 42.

## 2. GARAJEAK

## 204. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Garajea errentan hartu nahi dut Arrasateko erdigunean. Deitu 605 90 11 10 telefono zenbakira.

**Garajea Arrasaten.** Garaje bat errentan hartu nahi dut Arrasaten. Erdigunean edo inguruan (Zarugalde, Uribe, Larrea, Olarte). Deitu 616 30 81 22 telefono zenbakira.

## 4. LANA

## 401. ESKAINTZAK

**Debagoiena.** Lan bila nabil. Hainbat lan egiteko gertu: adinekoak zaindu, garbiketa lanak, animaliak paseatu, eraikuntzan, iturgintzan, errementari lanetan edota soldatzaile gisa. Deitu 625 90 55 45 telefono zenbakira.

**Ume txikia zaindu Arrasaten.** Emakume euskalduna behar da ume txiki bat zaintzeko Arrasaten. Ez da ordutegi finkoa eskeintzen, beharren arabera. Telefonoa: 653 72 31 71.

## 402. ESKAERAK

**Arrasate eta inguruak.** Garbiketa lanetan edo pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Esperientzia dut. Legezko agiriak ditut. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egiteko gertu. Telefonoa: 608 80 53 59.

**Arrasate.** Larunbatetan, orduka, garbiketa lanak egingo nitzuke. Telefonoa: 612 51 42 99.

**Arrasate.** Zaintza lanak egingo nitzuke lanaldi erdian. Soziosanitario titulua eta legezko agiriak ditut. Esperientzia dut. Telefonoa: 685 46 91 11.

**Bergara eta inguruak.** Neska euskalduna naiz, haurrak zaintzeko prest. Haur hezkuntzako gradua eta goi mailako zikloak ditut. Esperientzia daukat haurrak zaintzen. Edozein galdereko egiteko deitu edo idatzi lasai asko. Telefonoa: 634 42 85 11.

**Bergara, Arrasate eta Oñati.** Sukaldari edo garbiketa lanak egin edota umeak zein nagusiak zaintzeko gertu dagoen emakumea. garbitzeko, umeak eta jende nagusia zaintzeko. 613 33 09 38 (Maria Rosa Ruiz).

**Debagoiena.** Asteburutan zerbitzari lanak egiteko prest dagoen emakume euskalduna. Esperientzia daukat. 650 67 16 91.

**Debagoiena.** Astelehenerdik ostiralera arratsaldeetan edo gauetan eta aste bukaeretan edozein ordutegitan lan egingo nuke. Adinekoen zaintzan edo garbiketa-lanetan orduka lan egiteko prest. Esperientzia dut. Telefonoa: 691 28 53 25.

**Debagoiena.** Astelehenerdik ostiralera, egun osoan zehar, adinekoak zaintzen edo garbiketa-lanetan orduka. Telefonoa: 642 37 01 92.

**Debagoiena.** Emakumea lan egiteko prest. Pertsona nagusiak zaintzen edota garbiketa lanetan. Bestelako lanak egiteko aukera. Maltasun osoa dut. 632 54 45 86 (Lise Romero).

**Debagoiena.** Gizon arduratsua pertsonak zaintzeko gertu. Hamahiru urteko esperientzia eta gomendio onak ditut zaintzan. Kotxea, soziosanitario titulua eta legezko agiriak ditut. Gidari partikular gisa ere lan egingo nuke. 662 40 38 54.

## GARAI HORTZ KLINIA (ARETXABALETA)

Odontologo orokorra behar dugu Aretxabaleta Hartz Kliniketan 2 egunez lan egiteko. Interesatuak bidali kurrikuluma email honetara: [garai.hortzclinika@gmail.com](mailto:garai.hortzclinika@gmail.com)

**Debagoiena.** Emakumea pertsona nagusien zaintzan edo garbiketa lanetan aritzeko prest. Etxetik kanpo bizi izaten lan egingo nuke, baita orduka ere. 632 32 52 02.

**Debagoiena.** Zainketa lanetan, garbiketan, erakuntzetan edota margolari lanetan aritzeko prest nago. 632 18 53 17.

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Soziosanitario ikasketak ditut. Garbiketa lanak egin edota pertsona nagusiak zaintzeko eta beste lan motak egiteko gertu dagoen emakumea. Telefonoa: 631 19 50 43.

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Soziosanitario titulua dut. Telefonoa: 611 31 93 76 (Raul).

**Debagoiena.** Lana bilatzen dut adinekoen zaintzan. Kolonbiar zintzoa naiz. Deitu 645 70 84 95 telefonora.

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke pertsona nagusien zaintzan. Emakume atsegina naiz. 673 19 65 10.

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke pertsona nagusien zaintzan. Esperientzia eta soziosanitario titulua ditut, baita legezko agiriak ere. 611 75 39 92.

**Debagoiena.** Etxeko lanak egiteko, pertsonak zaindu edota garbiketa lanak egiteko prest nago. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Telefonoa: 644 19 11 28.

**Debagoiena.** Etxe etxe-ko zainketa profesionala, esperientzia duena, karrismatikoa eta arduratsua. Berehalako prestasuna asteburuetan, astegunetan edo orduka lan egiteko. 677 14 64 27.

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egin edota pertsona nagusiak zaintzeko eta beste lan motak egiteko gertu dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Garbiketa ikastaroa egin dut. 611 24 18 98.

**Debagoiena.** orduka lan egingo nuke. Pertsona nagusien zaintzan, garbiketa lanetan edo bestela lanak egiteko gertu nago. 643 89 13 75.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko gertu dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Telefonoa: 632 19 08 26.

**Debagoiena.** Taberna, etxe edo lantegietan garbiketa lanak egin, pertsona nagusiak zaindu edo bestela lan egingo nuke. Soziosanitario titulua dut. 624 83 95 19.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko gertu. Soziosanitario titulua dut. Telefonoa: 625 25 57 78.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak edo umeak zaindu eta beste lan motak egiteko gertu, baita txakurrak pasiatzera ateratzeko ere. Orduka lan egingo nuke. 672 96 46 49.

**Debagoiena.** Pertsona nagusien zaintzan edota garbiketan lan egingo nuke. Orduka edo asteburuetan lan egiteko prest. 623 35 99 03.

**Debagoiena.** Pertsona nagusien zaintzan etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Soziosanitario ikasketak ditut. Deitu 632 34 22 25 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Pertsona nagusien zaintzan lan egingo nuke. Esperientzia dut eta soziosanitario ikasketak ditut. Erizaintzako ikasketak eginak ditut nire herrialdean. Deitu 643 50 56 62 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Pertsona nagusien zaintzan, garbiketa lanetan edo bestelako lanetan aritzeko prest dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Deitu 632 17 21 98 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Zainketa lanetan, garbiketan edota margolari lanetan aritzeko prest nago. Deitu 604 28 78 39 telefono zenbakira.

## 8. DENETARIK

## 808. BESTELAKOAK

**Oñatitik Bergarara kotxea partekatzea.** Oñatitik Bergarara 14.35etan kotxean joaten den norbaiten bila nabil. Gastuak elkarbanatuko nitzuke. Deitu 652 73 12 34 telefono zenbakira.

## OROIGARRIA



## Jose Mari Lizarralde Gallastegi



2024ko azaroaren 9an hil zen, Donostian, 78 urte zituela.

*Gaztetan errotu zitzen Donostian Mondragoeko zuzterrak ebai barik. Josemari batzuetan, lagunendako Kimi, guretako tio izango zara beti. Zurekin bizi eta ikasitako guztixa gudan geratu bedi, ez adiorik!*

Arrasaten, 2024ko azaroaren 15ean.

## OROIGARRIA



## Marian Quintana Estevez



2024ko azaroaren 8an hil zen, 64 urte zituela.

*Beti izango zaitugu gogoan.*

Bergarako izeba-osabak eta lehengusuak. Bergaran, 2024ko azaroaren 15ean.

## OROIGARRIA



## Ander Gallastegi Egaña



*Lagun, euskaltzale eta ekintzaile aparta.*

*Lurra goxo bekizu.*

Mozos familia. Bergaran, 2024ko azaroaren 15ean.

## OROIGARRIA

## Ander Gallastegui Egaña

2024ko azaroaren 9an hil zen, 68 urte zituela.

*ULMA Eraikuntzako langile eta bazkideen izenean, eskerrik asko zure konpromisoagatik.*



Oñatin, 2024ko azaroaren 15ean.

## Korosti Inmobiliaria

**Bergara:**  
Irizar ibilbidea,  
78m<sup>2</sup> erabilgarri,  
3 logela, igogailua,  
balkoia, trastelekua.  
310.000€



**Bergara: Goenkale,**  
100m<sup>2</sup>, unifamiliarra,  
3 solairukoa, 3 logela,  
egongela tximinia.  
295.000€



**Bergara:**  
San Antonio,  
69m<sup>2</sup>, 2 logela,  
balkoia, igogailua,  
trastelekua, garajea  
203.000€



Ibargarai 3 BERGARA  
Tel.: 943 76 97 97  
[www.inmokokorosti.com](http://www.inmokokorosti.com)

Informazio  
gehiago:



## IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkiaren ondorioz zure daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## ESKER ONA

**Rosario Murguiondo Larrañaga**

2024ko azaroaren 10ean hil zen, 86 urte zituela.

*Beti gurekin egongo zara*

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2024ko azaroaren 15ean.

## ESKER ONA

**Ane Aguirre Fernandez**

2024ko azaroaren 8an hil zen, 53 urte zituela.

Ane Aguirre Fernandez-en familiak bihotzez eskertzen ditu jasotako dolumin guztiak. Lerro hauen bidez, Arrasate Rugby Taldeak sendiari azaldutako babesa eskertu nahi dugu, eta baita hileta-elizkizunera bertaratu ziren guztiei ere. Eskerrik asko bihotz-bihotzetik.

Arrasaten, 2024ko azaroaren 15ean.

## ESKER ONA

**Elisa Aranda Gutierrez**

(Mariano Oteroren alarguna)

2024ko azaroaren 9an hil zen, 96 urte zituela.

*Gero arte, ama  
Hasta la Revuelta*

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aretxabaletan, 2024ko azaroaren 15ean.

## ESKER ONA

**Marian Quintana Estevez**

2024ko azaroaren 8an hil zen, 64 urte zituela.

*Udazkeneko hostoak  
erortzean joan zara.  
Emetuko dira kimu  
berriak udaberrian.  
Maitte zaittugu.*

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2024ko azaroaren 15ean.

## ESKER ONA

**Juan Villar Lizarazu**

'Arrete'



2024ko azaroaren 5ean hil zen, 82 urte zituela.

*Urak dakarrena urak darama,  
lurrak emandakoa lurrean gelditzen da,  
zuk emandakoa betirako gurekin gelditzen da.*

Familiaren izenean eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu babesa ematera gerturatu zareten guztioi.

Oñatin, 2024ko azaroaren 15ean.

## ESKER ONA

**Maitere Lekuona Ruiz de Gauna**

2024ko azaroaren 7an hil zen, 87 urte zituela.

*Zure baikortasun, ausardia eta indarrak  
gure bizitzan gidatu gaitzala.*

Familiak esker ona eman nahi dizuegu momentu zail hauetan babesa eman diguzuen guztiei.

Bergaran, 2024ko azaroaren 15ean.

## URTEURRENA

**Anastasio Herran Izarra**

2023ko azaroaren 15ean hil zen, 95 urte zituela.

*Beti eramango zaitugu gure bihotzean.*

Urteurrenako meza domekan izango da, azaroaren 17an, 12:30ean, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2024ko azaroaren 15ean

## URTEURRENA

**Javier Belastegi Arribas**

2023ko azaroaren 6an hil zen, 79 urte zituela.

Urteurrenako meza domekan izango da, azaroaren 17an, 12:30ean, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2024ko azaroaren 15ean.

## URTEURRENA

**Cristina Pilar Muñoz Sanchez**

'Pili'

2023ko azaroaren 2an hil zen, 74 urte zituela.

Urteurrenako meza domekan izango da, azaroaren 17an, 12:30ean, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2024ko azaroaren 15ean.

## HILDAKOAK

- Julian Gardoqui Ortueta.**  
Aramaion, urriaren 28an. 88 urte.
- Andoni Azkarate Larrañana.**  
Antzuolan, urriaren 27an. 92 urte.
- Imanol Moreno Leibar.**  
Arrasaten, urriaren 26an. 88 urte.
- Basilio Rayo Sierra.**  
Arrasaten, urriaren 25ean. 67 urte.
- Javi Garcia Elices.**  
Arrasaten, urriaren 25ean.
- M. Luisa Alonso Ramos.**  
Arrasaten, urriaren 30ean. 92 urte.



## HILETA

**Juan Luis Bikuña Agirre**

2024ko azaroaren 13an hil zen, 78 urte zituela.

*Beti gure bihotzetan*

Hileta-elizkizuna Bergarako Santa Marina parrokiari izango da, gaur, ostirala, azaroak 15, 19:00etan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

Anai-arrebak, ilobak eta iloba txikiak. Bergaran, 2024ko azaroaren 15ean.

**Oroilore**  
Hileta zerbitzuakMaitasunez bizi,  
maitasunez agurtu*Gure artean agurtutako guztiei  
surren bidez aurreratu lagundu  
diegu, orain arte bezala, eta guztiek  
izango dute agur berezia Oroiloren.**Gure eskerrik beroenak gogon  
izan dituen konfiantzagarriak eta  
maitasunagatik.*

Mario, Iban eta Mariñi

617 44 21 55

BERGARAKO • ANTZUOLAKO • MOYSA OÑATI

BABESLEA



## ZORION AGURRAK




**OÑATI**  
**Lucca Ochotorena Mendiola**  
22an, 6 urte.  
Zorionak! Jarraitu irribarre horrekin. Muxu erraldoi bat etxekoan eta batez ere Chloe, Skye eta Tiagotxon partetik.



**ESKORIATZA**  
**Aimar Cubillas Alza**  
Azaroaren 20an, 4 urte. Zorionak, bihotza! Muxu erraldoia familia guztixan partetik, asko maite dotzugu!



**ANTZUOLA**  
**Jare Iparragirre Etxeberria**  
17an, 10 urte. Zorionak! Segi orain arte bezela zoriontsu eta alai. Asko maite zaitugu, patxo erraldoi bat.



**OÑATI**  
**Maialen Gonzalez Azaroaren** 16an, 7 urte. Zorionak, Maialen! Ondo-ondo pasau zure eguna. Asko maite zaitugu. Muxu erraldoi bat danon partetik!



**ARRASATE**  
**Maren Alonso Lopez**  
13an, 18 urte. Zorionak! Jarraitu zure ametsak betetzen! Ez izan beldurrik, nahi duzuna lor dezakezu, bizitza honetan ederra den dena merezi duzu!



**OÑATI**  
**Aiur Biain Ezkibel**  
Azaroaren 11n, 11 urte. Zorionak, Aiur! Egun zoragarria pasau. Patxo haundi bat etxeko danon partetik.



**OÑATI**  
**Beñat Sarriegi Derteano**  
Azaroaren 11n, 5 urte. Zorionak, Beñat! 5 urtetzar! Merezki dozun moduan ospatuko dogu eguna! Pilla bat maitte zaitzugu!



**ARAMAIO**  
**Aiur Muñoz Lopez de Bergara**  
11n, 5 urte. Zorionak! Mutil handi eta zintzoa bihurtu zara. Laztan handi bat guztion partetik eta potolo bat Marenen partetik. Asko maite zaitzugu!

## ASTEA GOIENA TELEBISTAN

**TRIBIAL JOLASA, BERGARAN**

Aitor Agiriano lehiakide bila joango da Bergarara, galdera-erantzunen jolasean parte har dezaten.

'Bixi ibili!' Martitzena, 20:00 eta 22:00

**MARTXEL BALANTZATEGI EZAGUTZEN**

Ointxe!-ko kapitainak bizitza erdia darama saskibaloian. Hamargarren denboraldia du EBA mailan jokatzeko.

'Luzapena' Eguena, 19:30, 21:30 eta 23:30



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:  
[goiena.eus/telebista](http://goiena.eus/telebista)

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / [kultura@goiena.eus](mailto:kultura@goiena.eus)

## EGUBAKOITZA 15

**ARAMAIO 'Go!azen'-en aurrestreinaldia**  
Lehenengo kapitulua ikusteko.  
*Kultura etxean, 17:00etan.*

**ELGETA Ipuinen Ordua**  
Hiru talde, adinaren arabera.  
*Liburutegian, 17:30ean.*

**ESKORIATZA 'Emakumeak enpresan' mahai-ingurua**  
Leire Zubizarretak, Maria Jarak, Eneritz Zubizarretak eta Isuri Rivasek egingo dute berba.  
*Ibarraundin, 18:00etan.*

**ARETXABALETA Gaztaina erreak Debalde.**  
*Kuku Mikuren egoitzan, 18:00etan.*

**ARETXABALETA A25 prestatzeko asanblada**  
Pikarraituz talde feministak deituta.  
*Udaletxe zaharrear, 18:00etan.*

**ARRASATE Arnaldo Otegiaren berbaldia**  
Arrasateko EH Bilduk gonbidatuta.  
*Kulturaten, 18:30ean.*

**ARRASATE Trikiti jaialdia**  
Trikitixa Eskolako ikasleak.  
*Kulturolan, 19:00etan.*

**ANTZUOLA Sambamaña batukada**  
Kalejira egingo dute.  
*Antzuolan, 19:15ean.*

**ARAMAIO V. Kopla Txapelketa**  
Zortzi bertsoari jardungo dute.  
*Goiko taberna zenaren parean, 19:30ean.*

**ELGETA Xabier Badiolaren kontzertua**  
Eibarko musikariak diskoa aurkeztuko du. Sarrerak, bost euro —Goibekoko bazkideek, hiru—. *Ozkarbi elkartearen, 19:30ean.*

**BERGARA Danbaka lehiaketa**  
Oholtzan egongo dira: Eten (Aretxabaleta), Low Cost Deluxe (Bergara), Rebel Noise (Bergara) eta K-PO (Bergara). Sarrera arruntak, bost euro. *Seminarixoan, 20:00etan.*

**BERGARA 'ZtandaP' bakarriketa**  
Mirari Martiarenarekin eta Idoia Torregararekin, Azaroa Gaztainatan ekimenaren baitan.  
*Txuringo tabernan, 22:00etan.*

## ZAPATUA 16

**OÑATI Film laburren rallya**  
15. aldia egingo dute.  
*Gaztelekuan, 08:00etan.*

**ARRASATE Baserritarren azoka**  
Babarruna izango da protagonista, eta dastatzea egongo da.  
*Seber Altube plazan, 09:00etan.*

**BERGARA Elkarteetako Okinaren pinturak ezagutzen**  
11:00etan, San Miguel-pe elkartearen; eta 12:00etan, Gure Ametsan. Edukiera mugatua. Izena emateko: 613 44 82 17 (Josu Okina). *Elkarte horietan.*

**ARRASATE Jostailu bilketa**  
Osorik eta egoera onean dauden jostailuak. Orduetgia: 12:00-13:30.  
*Arimazubi plazan.*

**ANTZUOLA 'Harritzearen abilezia' ikuskizuna**  
Hodei Magoaren eskutik. Sarrerak, bost euro.  
*Torresoroan, 17:00etan.*

**ESKORIATZA Imanol eta Larrañaga bikotea**  
Pasodobleak, balsak, rantxerak, tangoak... Herritar guztiendako dantzaldia egingo dute.  
*Zaldibar antzokian, 18:00etan.*

**BERGARA 'Euskalelea' ipuin musikatua**  
3 urtetik gorakoendako. Sarrerak, lau euro.  
*Seminarixoan, 18:00etan.*

**ARAMAIO Abesbatzen topaketa**  
Aramaioko Papargorri eta Zegamako Orkatz abesbatzak.  
*Kultura etxean, 18:00etan.*

**ARRASATE Estanpazio tailerra**  
Gaztetxoendako.  
*Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.*

**ANTZUOLA Gaztaina Erre Eguna**  
Herritar guztiendako.  
*Herriko Plazan, 19:00etan.*

**ARRASATE Mondravember jaialdia**  
Neomak, Etxepe, Sertx, Mikel Urdangarin, Txorbela Otxotea, dantzariak eta bertsolariak. Sarrerak, hamabost euro.  
*Amara antzokian, 19:00etan.*

**BERGARA Orkestra Sinfonikoaren kontzertua**  
Santa Zeziliaren omenezkoa.  
*Mariaren Lagundian, 19:30ean.*

**BERGARA 'Oroimenaren bidetik askatasunerantz' jaialdia**  
Inguma, Orhi eta Bidelapurak akustikoan. Sarrerak, hiru euro.  
*Kartzela zaharrear, 20:00etan.*

**BERGARA 'La desaparición de las luciérnagas' ikuskizuna**  
El Naan hirukotearekin.  
*San Juan auzoan, 20:00etan.*

**ARRASATE Chuleria Joder!, Zero eta The Potes taldeak**  
Sarrerak, bost euro.  
*Gaztetxean, 22:00etan.*

## DOMEKA 17

**ARRASATE Arrasate Musikaleko Banda**  
11:30ean, kalejira; eta 12:30ean, kontzertua, San Frantzisko elizan.  
*Arrasaten.*

**ARAMAIO 'Idi begi' eta 'Gizaunka' antzezlanak**  
Antzokoh! egitasmoaren baitan.  
*Azkoaga auzoko elizan, 12:00etan.*

**BERGARA Bikote gazteen dantza askatu txapelketa**  
46. txapelketa egingo dute.  
*Seminarixoan, 12:00etan.*

**BERGARA Haurrendako jolasak**  
Azaroa Gaztainatan ekimena.  
*Osintxun, 12:00etan.*

**LEINTZ GATZAGA Bertso-antzerkia**  
Alpistegiak ikuskizuna egingo dute. Debalde.  
*Liburutegian, 17:30ean.*



NEOMAK

### ARRASATE Mondravember jaialdia

Neomak –argazkian–, Etxepe, Sertx, Mikel Urdangarin, Txorbela Otxotea, dantzariak eta bertsolariak elkartuko dira oholtza gainean, prostatako minbiziaren ikerkuntzarako dirua batzeko. Sarrerak, hamabost euro. *Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 19:00etan.*

### ARAMAIO 'Pronoia' clown ikuskizuna

Virginia Imazen eskutik. *Kultura etxean, 18:00etan.*

### OÑATI Iñaki Palacios txistularia

Musikegunak egitasmoan. Sarrerak, zazpi euro. *Santa Ana antzokian, 19:00etan.*

## ASTELEHENA 18

### ARRASATE Intsektuen beherakadaren gaineko hitzaldia

Unai Ugaldek egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta. *Kulturaten, 10:00etan.*

### OÑATI Menopausia tailerra

Informazioa jaso eta esperientziak partekatzeko. *Osasun zentroan, 13:00etan.*

### BERGARA 'Azken borondateen dokumentua' tailerra

San Joxepeko erretiratuendako. *San Joxepe elkartean, 18:30ean.*

### BERGARA Arimen Gaua

19:00etan, gaztaina erreareta eta sagardoa; eta 21:00etan, afaria. *Osintxun.*

## MARTITZENA 19

### OÑATI 'Autodefentsa feminista' liburuaren aurkezpena

Maitena Monroy egilearekin. *San Juan kalean, 18:00etan.*

### ARETXABALETA Ludopatiari buruzko prebentzio-tailerra

Malko Estud Junior Elkarte kideen eskutik. *Arkupen, 18:00etan.*

### ARETXABALETA 'Nork agintzen du?' hitzaldia

Joxe Mari Agirretxe Porrotx-ek egingo du berba. *Arkupen, 18:30etan.*

### OÑATI Tertulixan Euskaraz literatura solasaldia

Xabier Gantzarainen *Zuloa* liburuaren gaineko saioa, Itziar Ugarte gidatuta. *Liburutegian, 18:30etan.*

### ARRASATE 'Compuesta y sin novio. Mujer y ruptura de promesas de matrimonio en Mondragón' hitzaldia

Nere Jone Intxaustegik egingo du berba, gaztelaniaz, Iragana Astintzen zikloaren baitan. *Kulturaten, 19:00etan.*

### BERGARA 'Arg(h)itzen' dokumentala

Torturatuak izan diren hainbat pertsonaren testigantzak jasotzen dituen lana, Manu Gonzalezek aurkeztuta. *Seminarixoa, 19:00etan.*

### OÑATI 'Baltoro. Oinez & hegan' ikus-entzunezkoa

Mattin Iñiguez eta Jose Ramon Agirre *Marron* alpinistek egingo dute berba. *Zinema-aretoa, 19:30etan.*

## EGUAZTENA 20

### OÑATI 'Mundua gerran. Eta gu, zertan?' hitzaldia

Adrian Zelaiak egingo du berba. *Santa Ana antzokian, 10:00etan.*

### ARRASATE Sasoibide, mendira

Elkartzen direnen artean erabakiko dute nora joan. *Biterin, 15:00etan.*

### ANTZUOLA 'Eraginez piztu' jardunaldiak

Baserrietan energia berriztagarriak jartzeko aukerez jardungo dute, D2030ek eta Udalak antolatuta. *Torresoroan, 18:00etan.*

### BERGARA Literatura solasaldia: 'Han egon zen'

Mikel Zubimendiren *Han egon zen* liburuaren gaineko saioa, Mikel Antzak gidatuta. *Irizar jauregian, 18:30etan.*

### OÑATI Antzerki laburrak

Patxo Telleriaren *Txizatoki bat eszenatokian* eta Mikel Martinezen *Hamalau* lanak. *Zinema-aretoa, 19:00etan.*

### BERGARA 'Traineras. Pasión por el remo' dokumentala

Zineklubean. Sarrerak, hiru euro. *Seminarixoa, 20:00etan.*

## EGUENA 21

### ARRASATE Jostailu bilketa

Osorik eta egoera onean egon beharko dute. *Arimazubi plazan, 17:00etan.*

### OÑATI Bingo berezia

Erretiratuendako. *Pake Lekun, 17:00etan.*

### BERGARA Santa Zeziliaren omenezko kalejira

Musika Eskolako musikariak. Ostean, txokolatea banatuko dute. *Herriko kaleetan, 17:30etan.*

### ARETXABALETA 'Lodifobia zainetan' tailerra

Ahalduntze feminista izango du oinarri. *Arkupen, 18:00etan.*

### ARETXABALETA Txalaparta ikastaroa

Hirugarren saioa, Sutunpa elkartarekin. *Kuartelean, 18:00etan.*

### ARRASATE Literatura solasaldia

Ursula K. Le Guin idazlearen *Oihan hitzean mundua* lanaren gaineko saioa, Alex Gurrutxagak gidatuta. *Kulturaten, 18:00etan.*

### ELGETA 'Hil arte bizi' tailerra

Heriotzari buruzko tailerra, Nerea Erkiagaren eskutik. *Liburutegian, 18:30etan.*

### ARRASATE 'Frauen bildet banden' dokumentala

Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko egunaren harira, Rote Zora talde feministaren inguruko dokumentala. Ostean, solasaldia. *Kulturaten, 18:30etan.*

### ANTZUOLA Kike Amonarrizen hitzaldia

Herritar guztiendako. *Olaran etxean, 18:30etan.*

### OÑATI 'La fragilidad del hielo' filma

Zineklubean, jatorrizko bertsoian eta azpitoluekin. Sarrerak, bost euro. *Zinema-aretoa, 19:30etan.*

### ARRASATE Bele taldea

Lide Hernando abeslariaren proiektu berriak egingo du geldialdia Kooltur Ostegunetan. Sarrerak, zazpi euro. *Gaztetxean, 22:00etan.*

## EGUBAKOITZA 22

### ARRASATE Jostailu bilketa

Osorik eta egoera onean egon beharko dute. *Usaetxe plazan, 17:00etan.*

### ESKORIATZA Santa Zezilia Eguna

17:30ean, musika eskolakoen kontzertua; ostean, txokolate-jana eta herriko musikarien emanaldiak; 19:00etan, Dantza Band taldearen erromeria; eta 21:00etan, Larru Beltzak taldea, Inkernu tabernan. *Fernando Eskoriatza plazan.*

## ZINEMA

### ARRASATE

#### AMAIA ANTZOKIA

**La sustancia**  
Domeka: 19:30.

**Robot salvaje**  
Domeka: 17:00.

### BERGARA

#### SEMINARIXOA

**La virgen roja**  
Domeka eta astelehena: 19:30.

**Liztor kapitaina**  
Domeka: 17:00.

### OÑATI

#### KULTURA ETXEA

**La habitacion de al lado**  
Egubakoitza: 22:00.

Zapatua: 19:30, 22:00.  
Domeka eta astelehena: 19:30.

**Goazen! telesailaren lehen atala**  
Zapatua eta domeka: 17:00.

### ARETXABALETA

#### ARKUPE

#### EI 47

Egubakoitza: 22:00.  
Zapatua eta domeka: 19:30.  
Astelehena: 16:00.

**Gru 4, mi villano favorito**  
Zapatua eta domeka: 17:00.

### EIBAR

#### COLISEO

**Elli y el equipo de monstruos**  
Zapatua eta domeka: 17:00.

**La cocina**  
Zapatua: 19:30, 22:30.  
Domeka: 20:00.  
Astelehena: 19:30.

**Azken erromantikoak**  
Zapatua: 17:00, 19:45.  
Domeka: 17:00, 20:00.  
Astelehena: 19:30.

#### Gladiator II

Zapatua: 22:30.

#### ANTZOKIA

**Azken erromantikoak**  
Zapatua: 22:30.

#### Gladiator II

Zapatua: 16:30, 19:30.  
Domeka: 17:00, 20:00.  
Astelehena: 19:30.

### GASTEIZ

#### FLORIDA

**La infiltrada**  
Egubakoitza eta zapatua: 19:45, 22:15.  
Domeka: 12:00, 19:45, 22:15.

#### Marco

Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 19:30, m21:45.  
Domeka: 12:00, 17:15, 19:30, 21:45.  
Astelehena, eguaztrena eta eguena: 17:00, 19:15.  
Martitzena: 17:00.

#### Amanece en Samana

Egubakoitza eta zapatua: 21:30.  
Domeka: 12:00, 21:30.  
Astelehenetik eguenera: 20:30.

#### Jurado n°2

Egubakoitza eta zapatua: 19:00, 21:30.  
Domeka: 12:00, 19:00, 21:30.  
Astelehenetik eguenera: 19:30.



AZKEN BERBA

MIKEL ARREGI  
ASKASIBAR

## X sare soziala

Pasa den asteazkenean, *The Guardian* egunkariak X sare soziala erabiltzeari utzi egingo ziola iragarri zuen. Bere idatzian agerkari britainiarrek dio Twitter zena eskuin muturreko ideiak zabaltzeko tresna bihurtu dela Elon Muskek 2022ko urrian erosi zuenetik hona.

Aste honetako albiste da baita Musk Trumpen kabinete berriko parte izango dela, gobernu federalean egiteko asmoa duen murrizketen arduradun gisa. Gastu publikoaren heren bat murriztu nahi du Trumpek, eta Musk izango da anputazioaz arduratuko den zirujaua.

Kamala Harris gorroto genuenok ere -daitort bere irribarrea higuigarria zaidala, demokraten hipokresiaren eredu- onartu beharra dago Trumpek Muski emandako botereak gune ezezagun batera garamatzala zibilizazio gisa.

Musken suzirriak NASARENak beharrean, Musken X Hollywoodeko entretenimenduaren itzalean. Batzuek diote Musk izango dela Trumpen atzetik Estatu Batuetako presidente berria. Ez dut uste. Musk Estatu Batuen jabe izango da, ugazaba. James Bonden filmetan bezala, mundua gaizkile zital eta eszentriko baten eskuetan dago, *The Guardian*-ek Xn idatzi edo ez.

BUKATZEKO

# Elkarrekin bukatu dute amaren aspaldiko ametsa

Lukene Igartua (1969) eta Izar Mendiola (2003) ama-alaba oñatiarrek bi ipuin publikatu dituzte: 'Txorimaloarena' eta 'Haitzeko zuloarena'. Amarenak dira hitzak eta alabarenak marrazkiak. Gaur aurkeztuko dituzte, Oñatin: zinema-aretoan, 18:00etan

Mireia Bikuña Madrid OÑATI

Duela hamabost urte, *Txorimaloarena* ipuina idatzi zuen Lukene Igartuak, eta *Haitzeko zuloarena*-ren hasiera ere bai. Kaxoi batean gorde zituen eta han egon ziren 2024 hasierara arte. Urte berrirako asmo berri moduan, alaba Izarri marrazkiak egiteko proposatu zion. Elkarrekin hasitako abentura hori heldu da helmugara: gaur aurkeztuko dituzte bi ipuinak, Oñatiko zinema-aretoan, 18:00etan. "Esperientzia bikaina izan da. Nik idatzitakoari Izarrek irudiak jartzea amets hutsa izan da", esan du Igartuak. Mendiolak hau gaineratu du: "Nire lehen proiektu editoriala izan da uni-bertsitatetik kanpo, eta familian egin izanak ilusioa egin dit. Amarekin batera lan egiteak asko erraztu dit bidea".

Idazketa tailerrean

Azken urteetan, udal liburutegiak antolatutako idazketa tailerrean parte hartu du Igartuak. Horrek aukera eman dio duela hamabost urte idatzitako testua garbitzeko eta borobiltzeko. "Hitz bakoitzak duen garrantziaz mintzatzen zaigu Joxemari Iturralde idazlea. Esango nuke tailer horrek ere



Izar Mendiola eta Lukene Igartua, ipuinekin. LUKENE IGARTUA

bultzatu duela proiektu hau", azpimarratu du.

Marrazkiak egiteko orduan, eta bi ipuinak bilduma berekoak direla argi ikusteko, estilo zehatz bat erabili du Mendiolak: "Kolor planoak erabiltzen ditut,

gehienbat, testurazko xehetasunekin eta batzuetan ingerada erabiliz. Dena dela, bi ipuineta-ko ilustrazioak nahiko ezberdinak dira, *Txorimaloarena*-rako marrazki dinamiko eta koloretsuak sortu ditut; *Haitzeko zuloare-*

na-rako berriz, naturari eta paisaiari eman diet lehentasuna".

Aitzulo eta txorimaloak

Oñatin oso esanguratsuek diren Aitzulo eta txorimaloak dira ipuineta-ko protagonistak. "Izar txorimaloekin ibiltzen zen garaian sortutakoa da *Txorimaloarena* ipuina. Oñatiko umee-ko oso gustuko dituzte Atzeko kaleko txorimaloak. Bestalde, Aitzulo oñatiar guztiok ezagutzen dugu, eta garai bateko ipuinaren itxura emanda, naturak eta pertsonak duten harremanean erreparatu gura izan dugu".

Irakurle hasiberriendako

Igartuak eta Mendiolak publikatu dituzten bi ipuinak irakurle hasiberriendako dira. Hurrek irakurtzeko liburuak, alegia, baina, ere berean, gurasoek haurrei kontatzeko aproposak direla ere uste dute. "*Txorimaloarena* txikientzako ipuina da, testu gutxiago du eta ulerterrazagoa da. *Haitzeko zuloarena* iraganeko garai eta testuinguru batean kokatzen da; beraz, baliteke azalpen gehigarri bat behar izatea. Gainera, ipuin zabalagoa da testuari dagokionez. Kasu horretan, gurasoek kontatzeko aproposa izan daiteke", uste dute ama-alabek.

"Gogotsu eta urduri"

Hainbat hilabetetako lanaren ostean, heldu da emaitza erakusteko unea. Gogotsu bezain urduri daude. "Oso hunkigarria da elkarrekin sortutako ipuinak esku artean izatea. Izar eta bere anaia Urdin txikiak zirenean kontatu nahi nizkien ipuinak direla esan dezakegu, eta horrek asko betetzen gaitu".

## BERBAGAI

GOIATZ ARANAK AURKEZTUTAKO SAIOA

AZAROAREN 20AN, EGUAZTENA, 20:00ETAN ETA 22:00ETAN.

ALBERTO ALONSO GOGORA ERAKUNDEKO ZUZENDARIARI ELKARRIZKETA



DESKARGATU  
GOIENA  
APLIKAZIOA

**goiena**  
Zu hemen zaude.

